goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2010-12-17
EGUBAKOITZA
446. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Santamas jaietako feria eguaztenean

Txerria ere egongo da, noski. | GOIENA

Barazkiak, artisauak, ganadua, herri kirolak eta askoz gehiago egongo da Arrasaten | **50**

DANBAKA

Gaur, barikua, 22:30ean, Espaloian:
Dark Code, Kubers eta Asfiksia taldeak | **56**

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Gabonetako errezetak eta agenda, Santamas... | **31**

Ezkerretik hasita Iker Arkauz, Iñaki Barrena, Xabier Altube eta Roberto Zugasti oñatiarrak aste barruan, zirkuituan.

ZIKLO-KROSA OÑATIN, BIHAR

Oñatiko txirrindulariak gertu daude Aloña Mendik antolatuta bihar egingo duten ziklo-kros lasterketarako; kadete, gazte eta master kategoriatako ziklistak lehiatuko dira, 10:00etan hasita. Urte asko pasa dira Oñatin azken lasterketa egin zutenetik, baina antolatzaileek orain ere San Martingo zuhaiztiaren alde egin dute zirkuitua non jarri erabakitzerako orduan. | **28**

XABIER URTZELAI

Reala Arrasaten entrenatuko da urtarrilean

3an edo 4an etorriko dira, gaztetxoenak oraindik oporretan daudelako | **14**

ASTEKO GAIA **2** | DEBAGOIENA **4** | IRITZIA **6** | GUTUNAK **7** | ELKARRIZKETA **8** | HERRIAK **11** | KIROLA **28** | KULTURA **55** | ZURE IRAGARKIAK **59** | TELEBISTA-IRRATIA **60** | EZKONTZAK **61** | ESKELAK **61** | NON-ZER **62**

Hainbat banketxeren aurka salaketa ipini dute

Debagoiendar batzuk kaltetuta sentitzen dira | **2**

"Okerrena pasa da eta ekonomia indarberritzen hasi da"

Pello Gonzalez
Ogasuneko foru diputatua | **8**

Sei etxe egin nahi ditu Leintz Gatzagako Udalak herrian

Herritarrek interesik ez badute, bailarara irekiko dute deia | **27**

Gitarrarako partitura liburua kalean

Xabier Ugarte oñatiarrak egin du | **21**

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

DVDaren prezioa:
13 €

Olentzero & CO! Musikaleko
DVDa salgai

Goiena Klubeko kideentzat prezio berezia:
10 €

Erosi eta zure etxeko buzoian jasoko duzu Goiena klubeko kide bazara.

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *www.goienakluba.com*

"Askok swap bat izango dute, eta ez dira konturatu"

- Hainbat debagoiendarrek salaketak ipini dizkiete banketxe batzuei
- Mailegu-produktu batekin (swap) bankuek gaizki jokatu dutela uste dute
- Horietako hiru elkarrizketatu ditugu; dirua bueltatu diezaieten eskatzen dute

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Swap, clip, IRS, finantza permuta, hipoteka babesteko kontratua, kuota segurua, tipoen estaldura... Hamaika izen izan ditu banku produktu jakin batek. Hego Euskal Herrian eta Espainian, hainbat banketxek asko eskaini eta sartu zuten produktu bat da, batez ere 2006a ezkero. Horren izena gero eta ezagunagoa da komunikabideetan eta epaitegietan; izan ere, orduko bezero asko, batik bat enpresa txiki eta ertainetako ugazaba asko –dendariak, taxi gidariak, tailer txikietako ugazabak, zapatariak eta norbanako arruntak barne– kaltetuta sentitu dira produktu horrengatik, eta euren egonezina eta haserrea gizarteratu nahi dute; eta, bide batez, jendea ohartarazi beharbada swap bat daukala eta ez dela horretaz konturatu.

Baina zer da swap bat?

Ingelesezko *swap* hitzak *truke* esan nahi du, eta horixe da, funtsean: finantza-truke bat. Kontratu bat da, eta horren bitartez bi alde konprometitzen dira etorkizunean diru-kopuru batzuk elkarren artean trukatzera. Normalean, truke horiek interes-tipo batzuk dituzte erreferentzia gisa. Zentzu orokorragoan, swap deitzen zaio etorkizunerako finkatutako ondasun edo zerbitzu truke baten gaineko kontratuari, erreferentziatzat hartuta adostutako edozein aldagarri. Bestela esanda, apustu antzeko bat da: denbora epe bat hartuta, banketxeak eta bezeroak elkarri ordainketa batzuk egitera konprometitzen dira, adostutako kopuru baten gainean (adibidez, kasu gehienetan moduan, hipoteka bat). Bezeroak interes finko batzuk ordaintzen dizkio banketxeari denbora-epe horretan, eta banketxeak bezeroari interes aldagarri batzuk. Bezeroaren interes -tipoa banketxearena baino altuagoa baldin bada, banketxeak irabazten du; alderantziz baldin bada, bezeroak.

Bestalde, kontratua ezeztatzeak diru-kopuru handia ordaintzea dakar: bezeroak bi interes tipoen arteko aldea ordaindu behar du geratzen den kontratu -epe osorako.

Tresna ona izan daiteke finantzetan aditu bat edo aholkulari bat duten enpresa handiendako. Adituek ez dute gomendatzen bestelako kasuetan (enpresa txikiendako, norbanakoendako...).

Debagoienean ere hainbat lagunek salatu dute euren egoera, eta ez bakarrik foro publikoetan eta jendartean: batzuk epaitegietaraino ere ailegatu dira. Horixe da Debagoieneko hiru lagun hauen kasua: Ignazio Bedia, Aitziber Uribetxebarria eta Gaizka Bolinaga. Baina ez dira bakarrak: Debagoienean dozena bat lagun dagoeneko batu dira, nor bere istorioarekin, baina guztiak kexu edo eskaera oso antzekoarekin: diru asko galdu dute eta kaltetuta sentitzen dira, eta, hala, salaketa jartzea erabaki dute gehienek. Epaiketa eguna dagoeneko jarri diete askori, eta horren zain daude. "Iruzur egin izan baligute bezala sentitzen gara", esaten dute gure elkarrizketatuek. Horregatik, Gaizka Bolinagaren esanetan: "Produktu horrekin orain arte egin ditugun ordainketa guztietako dirua bueltatzea eskatzen diegu banketxeei". Euren kasuetan, salatu dituzten bankuak dira Banco Guipuzcoano, Nafarroako Rural Kutxa, Banco Santander eta Bankinter.

Bestalde, Debagoieneko dozena hori baino kasu gehiago daude; Hego Euskal Herrian zein Espainian, tanta-jario bat bezala hasi ziren agertzen kasu horiek.

Ustez, aseguru bat

Gurekin hitz egin duten hiru lagunek hauxe esaten digute: "Gu enpresa txikien jabeak gara, eta beste profil bat daukagu: ez gara finantzetan adituak eta ez dugu inoiz burtsan jokatu. Hortaz, ordaindu dugunaren %100 itzul diezagutela eskatzen dugu", esaten du Gaizka Bolinagak.

Hego Euskal Herrian eta Espainian hainbat auzi egon dira swap -en kontura; bezeroek banketxeen aurka salaketak jarri izan dituzte, eta hainbat epai irten dira dagoeneko; asko bezeroen aldekoak izan dira; beste batzuk, banketxeen aldekoak.

"Oso egoera zailean nago"

Informazioa zelan eman zieten ere kexu dira. Abokatuak honela azaltzen du: "Bezeroari esaten diote aseguru bat, estaldura bat dela, doakoa dela eta bezero ona delako eskaintzen diotela. Nahastea sortzen du, ez dietelako ondo azaltzen zelan funtzionatzen duen. Baina gero, ezeztatu gura dutenean, esaten diete, adibidez, 25.000 euro ordaindu behar dutela produktua likidatzeko".

Aitziber Uribetxebarria arrasatearra Kanpazar jatetxea eramaten duen elkarteko ordezkaria da. "Orain dela lau urte sartu ginen gure enpresan. Euriborra gora zihoan eta merkatua ezegonkorra zen. Banketxeak auke-

ADITUAK DIO

SWAP ETA MAILEGUAK

ALVARO ISPIZUA
MU-KO IRAKASLEA ETA MIK-EKO IKERTZAILEA

Kontratu hauek onak al dira? Berez, kontratu hauek interesgarriak izan daitezke mailegu-hartzaileentzat eta aitzitik, bezeroari ez bazaio interesatzen aurreko baldintzekin mantentzen du.

Baina kontuan hartu behar dugu bankuek zerbait eskaintzen dutenean eurek irabazteko izaten dela, jakina! Bezeroaren aldetik ere komenigarria izan daiteke, baina benetazko abantailak ez dira izaten hain handiak, zeren bost urtetarako bakarrik aseguratzen dute tipoa eta bost urte barru Euriborra %3an badago, tipo berri hau aseguratzeko tipo handiago bat ordaindu beharko dugu.

Egia esan, kontratu hauek ez dute aseguratzen askorik, zeren normalean tipo baxuak daudenean ez dira igotzen arinegi eta benetako arriskua epe luzean dago eta ez hurrengo bi urteotan.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

tantana

LURRINDEGIA
GABONETAKO ESKAINTZA
Aurpegirako olio tratamendu bat opari 50 €-tik gorako erosketetan
Domingo Irala kalea z/g - BERGARA - 943 76 24 82

ESANAK

"Iruzur egin baligute bezala sentitzen gara, eta ipini dugun diru guztia itzul diezaguten eskatzen dugu"

GAIZKA BOLINAGA | AUZI-JARTZAILEA

"Dirua eskatzeko notarioarengana jo behar da, baina sinadura soil bat behar da swap-a hartzeko"

AITZIBER URIBETXEBARRIA | AUZI-JARTZAILEA

"Bankuak esan zidan aseguru bat zela; galtzen banuen ere, oso gutxi galduko nuela, baina ez da horrela izan"

IGNAZIO BEDIA | AUZI-JARTZAILEA

ra bat aurkeztu zigun, esanez aseguru antzeko bat zela, eta sinadura batekin bakarrik kontratatzen zela. Sasoi hartan dokumentu asko aurkeztu zizkidaten sinatzeko, eta esaten zidaten bat zela eurendako, beste bat Madrilera bidaltzeko... Baina gero, hasi nintzen kuota batzuen ordainketa-agiria jasotzen: 3.000 eurotik gora. Esan zidaten produktua kendu gura banuen 135.000 euro ordaindu behar nituela". Kontua ez zen aldatu, eta gaur egun "oso egoera zailean" dagoela onartzen digu.

Kaltetuak mugitzen hasi ziren, kezkatuta, eta euren moduan beste jende asko zegoela konturatu ziren. "Jende asko dago gu bezala; asko aurpegia emateko beldurrez daude", esaten dute. Eta euren abokatuaren esanetan, gaur egun Espainian 4.000 kaltetu inguru dago. Horren ondotik, herritar horiek webguneak, elkarteak... sortu dituzte.

Horietako batzuk hauek dira: *www.noclip.es*; edo *asuapedefin.wordpress.com*, permutek eta finantza-eratorriek kaltetutako minoristen elkartearena.

Bestalde, debagoiendar horiekin harremanetan jartzeko honako telefonora dei daiteke: 943 76 58 40.

"Bankuok ondo jokatu dugu"

Banco Santanderko bailarako ordezkariek ez dute komentariorik egin gura izan. Banco Guipuzcoanoko arduradunengandik ez da erantzunik izan. Nafarroako Rural Kutxako arduradunek hauxe esan digute: "Banketxeak Espainiako Bankuak ematen dituen arauen arabera jokatu zuen, eta ez dugu kasuz kasuko baloraziorik egingo. Epaiaren zain gaude eta baikorrak gara".

Bankinterko prentsa arduradun Gonzalo Garcia Rojasek honako azalpenak eman dizkigu: "Finantza-entitate guztiok merkaturatu genituen eta merkaturatzen jarraitzen ditugun produktuak dira. Guk bi swap produktu mota ditugu: trukeak eta clip-ak". Clip modalitatea honela azaltzen du: "Bezeroak eta banketxeak Euriborraren araberako atari bat adosten dute; %3 eta %5 artekoa izaten da. Euriborra igo egiten bada, bankuak ordaintzen dio bezeroari; jaitsi egiten bada, bezeroak ordaintzen dio bankuari. Bezero hauek clip-a kontratatu zuten Euriborra bere maila altuenean zegoenean, eta orain, orduan espero ez zituzten kopuruak ordaindu behar dituztela konturatu dira. Gu konturatzen gara hori eurendako kalte bat dela, baina, gure iritziz, zintzoak izan gara, eta uste dugu ondo jokatu dugula. Ulertzen dugu bezeroek orain pentsatzea operazioa ez zaiela ondo irten, baina banketxeak egoki jokatu du".

Mondragon Taldeak EAEko enpleguaren %3,9 sortu zuen; industria arloan, %8,1

Korporazioak erkidegoan sortutako Barne Produktu Gordin osoari emandako balio erantsia %3,5 izan zen

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Mondragon Taldeak joan den urteko jardueraren gaineko datuak ezagutarazi ditu asteon. Besteak beste, jakinarazi du Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpleguaren %3,9 sortu zuela; eta industria arloa bakarrik kontuan hartuta, enpleguaren %8,1. Horren harira, 2009an, taldeak bere kooperatiba eta elkarte partaidetuetan, batez beste, 85.066 langile enplegatu zituen; horietatik, 32.266 EAEn izan ziren eta 4.033 Nafarroan.

Korporazioko ordezkariek industria arloko datuak nabarmendu dituzte: "Mondragonen garrantzia areagotu egiten da, bere industria enpresek sektorean duten enpleguaren portzentajea %8,1 izan baitzen EAEn, eta %1,7 Nafarroan".

Mondragon taldeko Fagorko lantegia, Arrasaten. | MIRIAN BITERI

Zazpitik bat, Gipuzkoan

Horren harira, gaineratu dute taldeak Gipuzkoan izan zuela industria presentzia handiena, eta, bertan, portzentajea industria enpleguaren %14,6ra ere iritsi zela joan den urtean; hain justu ere, Gipuzkoako fabriketako zazpi langiletik batek Mondragonek dituen industria enpresetan lan egin zuen.

Euskadiko Kutxa eta Eroski

Bestalde, industriakoak ez diren sektoreetan, enplegu kooperatiboaren garapenaren protagonista nagusiak izan ziren Euskadiko Kutxa, finantzen sektorean, eta Eroski, banaketaren arloan. Korporazioak emandako informazioaren arabera, joan den urtean, EAEn eta Nafarroan 11.068 langileri eman zieten lana bi enpresa horiek. Kopuru hori 17.000 lanpostura handitzen da, Euskadiko Kutxako eta Eroskiko langileei finantzen eta banaketaren sektorean diharduten Mondragoneko gainerako kooperatiba eta elkarteetako langileak gehitzen bazaizkie.

DATUA

85.066

LANPOSTU

Korporazioak bere kooperatiba eta elkarte partaidetuetan, batez beste, 85.066 lanpostu enplegatu zituen.

Korporazioaren jarduera guztiak kontuan hartuta, 2009ko amaieran, Mondragon Gipuzkoako lehenengo enplegatzaile pribatua izan zen, zuzeneko 18.125 enplegurekin; baita Bizkaikoa ere, 11.434. Nafarroan, ostera, bigarrena izan zen, 4.033 lanpostekin; eta Araban hirugarrena, 2.707 enplegurekin. Zuzeneko enpleguaz gain, korporazioak garatutako jarduerak 13.900 enplegu induzitu inguru sortu zituen.

Barne Produktu Gordinari dagokionez, Mondragonek, EAEn, %3,5 sortu zuen iaz; kopuru hori %7,1era igo zen industria arloari begiratuz gero.

Mondragonek 28 eurotik bat

Horren harira, korporazioak emandako datuen arabera, 2009an, EAEn sortutako aberastasunaren 28 eurotik 1 Mondragonek garatutako jardueretatik etorri zen; proportzio hori 14tik batekoa izan zen industria sektorera mugatuz gero.

Enpresagintza Fakultateak Oñatiko campus berria zabalduko du bihar goizean, ezagutu nahi dutenendako

Bihar, zapatua, ate irekiak egingo dituzte Oñatiko Enpresagintza Fakultate berrian. Nahi dutenek 11:00etatik 13:30era bitartean bisitatu ahalko dute 20.000 metro koadrotik gorako eraikina. Campusko hiru arloak erakutsiko dituzte: enpresa kudeaketari buruzko unibertsitate mailako prestakuntza; etengabeko prestakuntza eta gradu-ondokoa; eta ikerketa, MIK zentroaren bidez. Eskaintzaren gaineko informazioa ere emango dute.

Maixol Iparragirre eskoriatzarrarendako 30 urteko espetxe zigorra eskatu du Fiskaltzak

Parisen egiten ari diren epaiketan, eska litekeen zigorrik handiena da Maixol Iparragirre eta Mikel Albisurendako Fiskaltzak asteon eskatu duena: 30 urteko espetxe zigorra. Gainerako akusatuendako 5 eta 15 urte arteko kartzela zigorrak eskatu ditu. Gaur, egubakoitza, jakinaraziko du epaileak auzi horren gaineko epaia. Iparragirre eta Albisu 2004an atxilotu zituzten, ETAko buruzagitzako kide izatea leporatuta.

Iraunkortasunaren gaineko Transition Formazioa egingo dute bihar Arrasateko Etxaluze egoitzan

Bagara egitasmoak antolatuta, *Ekintzarako gaituz: iraunkortasunerako hezkuntzaldia* Transition Formazioa egingo dute bihar, zapatua, 09:30ean, Arrasateko Etxaluze egoitzan. Horren helburua da iraunkortasunaren gainean sentsibilizatzea eta hura ekinbidean jartzea, eta horretan emango dute egun osoa. Interesatuek *bagara@bagara.net* helbide elektronikora idatz dezakete.

ARANTZAZU EZKIBEL

'Entzun nahi zaitugu' kanpaina

Arrasaten izan ziren eguaztenean Aralarko kideak; besteak beste, Oxel Erostarbe, Aralarko Gipuzkoako koordinatzailea eta Elgetako alkatea, *Entzun nahi zaitugu* kanpainaren barruan eskuorriak banatzen. Herritarren galderak eta ekarpenak jaso zituzten; hain zuzen, herritarrei entzutea da kanpainaren helburua. Ekarpenak *www.aralar.net* webgunean ere egin daitezke.

PILDAIN JATETXEA
Udala auzoa - ARRASATE - 943 79 11 65
Asteartetik igandera zabalik!
SANTAMASETAKO MENUAK
1) TXARRIBODA
2) BABA-JANA
3) MENU BEREZIA : 15 €-18 €
- ENTREMESAK
- KONTSOMEA
- OKELA / ARRAINA
- POSTREA
- EDARIA (URA EDO ARDOA)
ERRESERBAK: 943 79 11 65 / 943 77 18 67

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua
Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Zubizarreta, Galparsoro, Barruso eta Letona. | T.M.

Legalizazioaren aldeko giza kateak egingo dituzte bihar bailaran

T. MADINA/M.BITERI | ARRASATE

Ezker abertzalearen legalizazioa eskatzeko giza kateak egingo dituzte bihar, zapatua, Euskal Herri osoan, eta baita Debagoieneko herrietan ere. Azaroaren 27an ezker abertzaleak alderdi berriaren printzipioak aurkezteko Iruñean egindako ekitaldiaren harira datoz biharko mobilizazioak.

Iruñeko ekitaldian egondako Agurne Barrusok azaldu du alderdi hori legeztatzeko prozesuan aurrerapausoak emateko ordua dela: "Azkenaldiko adierazpenak eta Espainiako Estatuaren aldetik dagoen borondatea ikusita, inportantea da legalizazioaren aldeko ekimena plazaratzea, are gehiago orain bizi dugun momentu politikoan". Horren harira, azpimarratu du "beharrezkoa" dela Euskal Herrian zabaldu den prozesu berri horretarako.

"Erabilera alderdikoia"

Barrusok defendatu du ezker abertzaleak "espresio eta forma legala" izan behar duela: "Alderdi Legeari berari orain arte oso erabilera alderdikoia eta elektorala eman zaio". Dena dela, esan du maiatzeko hauteskundeetan ordezkatuta egotea "posible" dela, eta hori hala izan dadin lanean ari direla. Horren harira, iragarri du datorren asteotan alderdi berriaren estatutuak aurkeztuko dituztela erregistroan.

Hauteskundeei begira alderdia sendotzea dela asmoa azaldu du Hamaikabatek

Eskoriatzan egin zuen lurraldeko batzar orokorra Hamaikabatek eguaztenean

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Gipuzkoako Hamaikabatek hilero egiten duen lurraldeko batzar orokorra Debagoienean egin du oraingoan; Eskoriatzan, hain zuzen. Gipuzkoako presidente Martin Beramendi, Aldundiko Ogasun diputatu Pello Gonzalez, Batzar Nagusietako presidente ohi Leire Ereño, Gizarte Gaietako diputatu Maite Etxaniz eta Debagoieneko koordinatzaile Juan Karlos Bengoa izan ziren batzarrean, besteak beste.

Eskoriatzako batzarrean parte hartu zutenak. | A.E.

Urtebeteko lana

Urtebete da Hamaikabat taldea sortu zutela. Horren harira, balorazio positiboa egin du Bengoak: "Nahiz eta alderdi berria izan, gure jendea lehen EAn zegoena da. Esperientzia handiko jendea eta lan handia egindakoa da". Eraikitzen eta hazten ari den alderdia dela gaineratu zuen Bengoak. "Alderdiko egiturak sendotu, Gipuzkoa mailan egitura handitu eta jendea erakartzea da asmoa", azaldu zuen.

Erronka: langabezia

Martin Beramendi Gipuzkoako presidenteak Hamaikabatek Debagoienerako dituen asmoak azaldu zituen: " Krisi garai honetan langabeziari aurre egitea da erronka nagusia, Gipuzkoa osoan bezala. Guk baditugu ardurak Gipuzkoako Foru Aldundian, bai ogasunean, baita gizarte gaietan eta baita berrikuntzan ere. Hiru sail horietatik ahalik eta ekimen handienak egiten ari gara: poligono berriak sortu, enpresak lagundu...".

2011n hauteskundeak

"Hamaikabaten asmoa EAJrekin aurkeztea" izan den arren, EAJk uste du Hamaikabat "hauteskundeetan kontrastatuta ez dagoen" alderdia dela; horregatik, bakarrik aurkeztuko dira. "Gure lana alderdia indartzea da udal hauteskundeei begira. Dagoeneko 20 hautagai inguru aurkeztu ditugu", dio Bengoak. Beramendik hau gaineratu du: "Abertzaletasuna sendotu egin behar dela esan dugu behin baino gehiagotan. Politika ezin da muturretatik egin".

Bakea lortzeko ahaleginak

Beramendik argi dauka bakea lortzeko ahaleginean ezin dutela ez ikusiarena egin edo eskatu behar direnak ez eskatu.

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
'http://goiena.net/iritzia/'

Erabakiak noren esku?

Irabazi asmorik gabeko erakunde batean lan egiten dut duela urte batzuetatik. Zenbait pertsonaren bizi baldintzak zertxobait hobetzen laguntzen dugula sinesten dut eta horrek gure lanari zentzua ematen dio. 21 lankide gara, 8 gizonezkoak eta 13 emakumezkoak. Gutako lauk koordinatzaile lanak egiten dituzte eta laurak emakumeak dira. Leitu berri dudan artikulu batek zer pentsatua eman dit, ondorengoa azaltzen baitu: erakunde askotan pentsaezina dela emakumeek hainbesteko pisua izatea arduradun postuetan.

Artikuluak aipatzen duen ikerketa baten arabera, hirugarren sektoreko langile eta boluntarioen artean hirutik bi emakumeak dira, asko gazteak eta prestakuntza handikoak. Arduradun postuetan, aldiz, estatistikek buelta hartzen dute eta zuzendarien %30 bakarrik dira emakumeak.

"Emakumeok pisurik ez daukagu GKE eta bestelako elkarteetan"

Emakumeok, hortaz, presentzia bai baina pisurik ez daukagu gobernuz kanpoko erakundeetan eta bestelako elkarteetan. Beste zenbait alorretan ere hala dela pentsatuko duzue askok, baina mundu hobe bat eraikitzeko lan egiten duten erakundeetan ere erabaki gehienak gizonezkoen esku egoteak kezkatu egiten nau.

Salbuespena emakume elkarteak dira, noski. Azken hilabetean horiei zuzendutako ikastaro bateko irakasle izan naiz. Ikastaroa Internet bidez egin dugu. Askok zailtasunak izan dituzte ordenagailuaren eta sarearen funtzionamendura ohitzeko, trebakuntza faltagatik. Hala ere, gehienek aurrera egitea lortu dute. Esfortzua eta gogoa beldur eta zailtasunak baino gehiago izan dira.

Ikasteko eta esperientziak konpartitzeko gogoarekin hasi zuten ikastaroa eta bukaerako balorazioan denek gauza bera azpimarratu dute: oso aberasgarria izan dela eta besteengandik asko ikasi eta jaso dutela.

Erakunde zein enpresek asko daukate ikasteko emakumeen lan egiteko modutik. Hauen jakintzak eta gaitasunak hobeto ezagutu eta aprobetxatu beharko lituzkete!

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | 'aretxabaleta@goiena.com'

Argazkiak atera beharra

Kuriosoa da benetan azken urteotan argazkiak atera eta irudiak grabatzeko sortu zaigun grina. Edozein ikastetxetako umeen edozein ekitalditara gurasoak gonbidatuz gero, hor goaz denok makinak aldean hartuta. Horko argazkiak atera beharra, horko irudiak grabatu beharra...

Baina umeekin bakarrik ez zaigu gertatzen; astean ikusi dut nagusiekin ere gauza bera dela. Erretiratuen omenaldi ekitaldi batera joan eta argazki kamerak han eta hemen; hori da aitaita -amamak argazkitan jaso beharra. Eta galdera sortu zait bat-batean: argazki eta irudiekin ez ote dugu berreskuratu (ordezkatu) gura ume eta nagusi horiekin egoten ez garen denbora?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'

HANDIK ETA HEMENDIK

Aurkezpena: Euskal kulturgintzaren estrategiak

Iban Arantzabal
http://goiena.net/blogak/arantzabal/

Euskal Kulturaren oinarriez-eta jardun zuten atzo [martitzena, hilaren 14a] Koldo Mitxelenan. Formatuaz ere berba egin daiteke, baina hori beste baterako utziko dugu.

Kasu honetan, eta edukia zelan eman behar den garrantzitsua bada ere, edukiak zuen garrantziarekin geratu nintzen. Zelako eduki sakona dagoen atzo aurkeztu zuten horretan.

Taula gainean zeuden bost lagunetik lau gertukoak nituen: Iñaki, Nekane, Julen eta Jon. Lorea Agirre ere bazen, baina ez dut tril egin berarekin atzoko aurkezpenera arte.

Ezagunak ziren gehienak eta, jakina, haiek zer esango zuten irrikaz nengoen, entzuteko prest eta, jakina, ikasteko prest. Bostak ere MUko sorguneak ikertegikoak ziren.

Serio egin dute lan eta aurkeztu zuten Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak enkargatutako txosten bat: *Euskal kulturgintzaren estrategiak* izenburua duena, hain zuzen ere.

Azterketa kualitatiboa, subjektiboa eta aberatsa. 127 elkarrizketaturi hitza eskatuta eta 200 orduko transkribapenarekin mamitutako txostena.

Niri gustatu zitzaidan "euskaldun" berbaren pisua mahai-gaineratzea "euskal", "vasco" eta abarrekoen ondoan. Magisteritzako garai haietan ere nahikoa lan eman zidan euskaldun definizio zorrotzeko horrek.

Ikaskideren baten ama euskalduna ez zela eskola orduan esateak ere ekarri zituen buruhausteak. Gustatzen zait hain basikoa dirudien hori entzutea: euskarak egiten gaitu euskaldun.

Berriz entzun nuen Bagaran zein lehenago ere entzuna nuen "merkatua, gizarte zibil autoeratua eta administrazio publikoek" osatzen dutela kulturgintzak bizi duen eremua ere. Eta, hain zuzen, ni neu ere guztiz ados nago gizarte zibil autoeratuak duen garrantzia azpimarratzean.

Gustatzen zait eta bizi dut hori egunerokoan bertan. Bat egiten dut, baita ere, euskal kulturgintzak eskain dezakeen onena gertutasuna, berezkotasuna eta benetakotasuna direla.

Hamasei oinarriren gainean egin zuten berba eta bat edo beste gehitxoago aletu ere bai; izan ere, aletzeok izan ziren interesgarrienak entzule honendako.

Gero etorri ziren kulturgintza biziberritzeko estrategia batzuk hamabi puntura ekarriak. Gehienekin egiten dut bat.

Txostena (papera) ekarri dut etxera eta birpasatuko ditut, gogoz irakurriko dut kultur bizitzaren azterketa kualitatiboan elkarrizketatuetatik atera dena ere.

Egon ez zinetenok non irakurri? ez dakit sarean jarri duten. Gustura emango nuke lotura bat eta horrela kanpo-hedapena mimatu. Ez dut topatu.

Kuriositate bat, amaitzeko: txostenean internet "I" txikiarekin idazten dute Sorguneakeko lagunek eta bagara batzuk "Internet" idazten dugunak 2010ean :-)

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Ziklismoa ikusteagatik ordaindu egin beharko dugula?

Markel Larrañaga
Bergara

Horixe bera izan da aste honetako albisteetako bat; alegia, aire zabaleko ziklismo proba profesionalak ikustearren ordaindu egin beharko dela aurrerantzean. Bueno, hori proposatu du Eusko Jaurlaritzak, Kirol zuzendari Patxi Mutiloaren ahotan.

Badakigu hamaika ikusteko jaioak garela esan ohi dela, eta horra hortxe beste astakeria bat!

Ala ez?

Tira, nondik edo ze ikuspuntutatik begiratzen zaion gaiari, batzuek pentsatuko dute oso logikoa dela ordaintzea, kirol gehienak ikustearren ordaintzen den neurrian; izan ere, inortxok ere ez luke imajinatu ere egingo futbol partidu bat edo saskibaloi partidu bat ikustearren ez ordaintzea, ala? Ez zuk, ez nik. Serioak izan gaitezen. Gaur egun bizi garen mundu honetan...

Gainera, kirol batzuetan mugitzen den dirutza kontuan hartuta, pentsaezina izango litzateke hori.

Ziklismoan diru publikoa ere mugitzen da, eta, nolabait, gastuak eta bestelakoak parekatu edo estaltzeko nonbaitetik atera behar da dirua. Horixe da Eusko Jaurlaritzak eman duen arrazoietako bat ordaintzearen kontu hori dela eta.

Eta, jakina, beste ikuspuntua ere oso aintzat hartzekoa da: zergatik ordaindu aire zabalean egiten diren kirolak ikustearren? Kalea ez da guztiona, ala? Non ordaindu beharko da? Pentsa, nire kaletik pasatzen bada lasterketa, ezin izango naiz kalera irten lasai-lasai? Atari bakoitzean *peajea* jarriko dute, ala?

Bueno, nire ustez, ordaintzearen kontu hori mendateetara mugatuko dute. Hau da, etapa bukaerez ari naiz. Imajina ezazue Urkiolan amaitzen dela etapa bat: bada, mendatea hasten den lekuan kontrola jarri, baita goialdean ere, helmuga osteko errepidean, eta pasatu gura duenak ordain dezala; bereizketak ere egin ahal izango lirateke: autoz doazenek gehiago ordaintzea oinez doazenek baino. Baina... eta bizikletaz doazenek? Eta gauez mendatean kanpin denda jarri nahi dutenek?

Inguruko baserritarrek ere gustura hartuko lituzkete eurotxo batzuk euren lurretan ibiltzeagatik...

Garai baten, orain dela urte batzuk, Tourrean-eta ibili ziren *peaje* mota hori jartzen, baina sekulako ilarak sortzen ziren eta kaos hutsa zen. Eta seguruenik horregatik kenduko zuten.

A, asteon jakin berri dugu datorren urteko Espainiako Vuelta Debagoienetik pasako dela; azken aurreko etapa izango ei da, eta Elgetako mendatea igoko dute.

Oso ondo iruditzen zait. Euskal zaleok Pirinioetako mendateak laranja janzten ditugu urtero, Frantziako Tourra dela eta; hortaz, hemen zale andana batzea bermatuta dago.

Gainera, Frantziako Tourrak lurralde asko ukitzen ditu urtero: Holanda, Suitza, Italia, Espainia... Zergatik ez Espainiako Vuelta Euskal Herritik pasatu? Exotismo puntua ikus diezaiogun... Bai, badakit erabaki politikoa dela hemendik pasatzea eta ez dagoela kirolarekin lotuta, baina tira, behintzat, punta-puntako proba bat ikusteko aukera ezin hobea izango dugu. Utikan politikariak!

Ordurako ziklismo profesionalak jarraitzen badu, behintzat, ze... ikusita zelan dauden dopin kontuak eta gero eta talde gutxiago dagoela profesionaletan... auskalo zelan gauden 2011n.

E, non jarriko digute *peajea* Elgetarako bidean? Egin apustu.

Nazkatuta nago herriko gazte batzuekin!

Juan Anjel Rodriguez
Arrasate

Nazkatuta, eta kokoteriano! Astebururo, ostiraletan zein larunbatetan, herri erdialde -Zarugalde-Uribarri ibilbidea gauez, ordu txikitan, egiten duten batzuk zertan ari dira?

Ze kirol edo denbora-pasa hoberik, ahal den eta atzerako ispilu gehien apurtzea baino!

Aurreko ostiralean, gertuko adibidea jartzearren, bederatzi zenbatu nituen erreskadan.

Bederatzi!

Zer dela eta?

Hori egiten dutenek badaukate autorik? Gurako nuke jakin.

Badakizue zenbat kostatzen den atzerako ispilu berri bat jartzea? Niri 160 euro kobratu zizkidaten. Pozik zaudete? Biderkatu bederatzi 160 eurogatik eta ea zer irteten zaizuen. Egun bakarrean, ia 1.500 euro. Sikiera zuok ordainduko bazenituzte...

Inoiz ez dute inor harrapatu? Zenbat urte daramagu halakoak jasaten Arrasaten? Ezer egiten da? Neurririk hartzen da? Udaltzainek jakingo dute, baina ikusten da gazteok berdin segitzen dutela.

Alkoholak-eta edozer egiteko ahalmen eta boterea ematen du? Ba ez.

Mesedez, dibertitu, baina besteok zipriztindu barik eta kaltetu barik, krisi garaian dirutza da-eta halako ispilu bat konpontzearren gastatu behar dena. Faborez.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Pello Gonzalez | Ogasuneko foru diputatua

"Iruzurrari aurre egiteko borondatea dagoenean, emaitzak lortzen dira"

- Aurrekontua onartzeko oposizioarekin egin den ahalegina nabarmendu du Gonzalezek
- Diputazioaren aurrekontua %7,2 jaitsi da, baina "hartutako konpromisoei heltzen" zaie

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Iruzur fiskalaren, egoera ekonomikoaren, Diputazioaren aurrekontuaren eta opor fiskalen gainean dihardu Pello Gonzalez Ogasuneko foru diputatuak. Iruzur fiskalari aurre egiteko duten konpromisoa "sendoa" dela dio.

Badirudi Foru Aldundiko 2011ko aurrekontuak talde gehienen onespena edo abstentzioa izango duela.

Hilaren 22an behin betiko onartuko da aurrekontua, EAJren eta Hamaikabaten aldeko botoei esker. PSE-EE eta PPrekin izandako akordioen bidez, talde horien abstentzioa lortuko da, eta horri esker ere 2011ko aurrekontua onartuko da. Oso balorazio positiboa egiten dugu, orain beharrezkoa baita desadostasunen gainetik aurrekontu arloan akordioak lortzea, krisi garaian gaudelako; benetan ez gaude txantxetarako. Agintaldi honetan talde guztiekin izandako akordioak ere adierazgarriak dira, baita EAJ eta Hamaikabaten ordezkariok erabilitako adostasun ahalegina ere.

Aralar, Alternatiba eta EB ez dirudi ados daudenik aurrekontuarekin.

Talde Mistoak aurrekontuaren kontra egingo du. Uste dut oposizio politikoari lotutako jarrera dela, baina horretarako eskubide osoa dute. Dena den, gogoratu behar dugu 2008ko aurrekontuan, aurtengo orientazio bera izan arren, haiekin akordioa egin genuela eta aldeko botoa eman zutela. Nolanahi ere, aurkako sei boto besterik ez dira izango 51 batzarkideren artetik.

Murrizketarik izango da aurrekontuan?

2011ko aurrekontua %7,2 jaitsi da 2010ekoaren aldean, baina, nolanahi ere, Gipuzkoarekin hartutako konpromisoei heltzen zaie: gastu sozialari dagokionez eta inbertsio estrategikoko proiektuetarako beharrezkoak den diruari dagokionez. Departamentu guztietan nahitaezkoak ez diren gastuak kendu ditugu, ezinbestekoa den ezer aurrekontutik kendu gabe. Beraz, uste dugu, diru sarrerek eragindako zailtasunaren barruan, aurrekonturik onena dela posible direnen artean.

Euskara eta Kulturako Departamentuak jaitsiera handiak izan zituen 2010ean. Ze aurreikuspen dauzkagu 2011ri begira?

Oro har hartuta, departamentuaren aurrekontua %4 inguru jaitsi da aurten, nahiz eta hainbat urtean banatuko diren kultura inbertsioak aurreikusi. Hori dela-eta, behar bezala erantzuten zaie kultura eta euskara arloko politiken funtsezko alderdiei.

Zeintzuk dira zerga-batze aurreikuspenak 2011rako?

Zerga arloan, konpromiso bat hartua dute EAJk, PSE-EEk eta Hamaikabatek, iaz akordio fiskala lortu ondoren, gai horri buruz sakon eztabaidatu eta etorkizuneko euskal zerga sistemari buruz adostasunera iristeko. Orain ere ados jarrita, eztabaida geroratu egin dugu, hauteskunde arrazoiak direla-eta, horiek ez baitiote ezertan laguntzen eztabaidari; foru eta udal hauteskundeen ondoren egingo da. Eztabaida zabala eta lasaia behar dugu, ahalik eta adostasunik handiena lortze aldera, ahalegin guztiak eginez eta herritarrei akordioen edukiak ezagutaraziz.

Udalek diote eurenak ez diren konpetentzia askori erantzun behar izaten dietela baliabiderik izan barik.

Aldundiak udalentzat jasotako aurrekontua %3 handituko da datorren urtean. Egia da, bestalde, egiteko geratzen dela udal finantzaketaren nahikotasunari buruzko eztabaida. Udaletako arduradunek gure jarrera ezagutzen dute: koefiziente bertikala jaistea (Diputazioak Jaurlaritzari ordaintzen dion dirua %70 inguru da), eta jaitsiera hori udalen beharrak finantzatzeko erabiltzea. Nolanahi ere, gai hori arautzen duen Ekarpen Legea datorren urtea bukatu aurretik onartu behar da, eta orduan erakunde guztien finantza mugimenduak zehazteko momentua izango da.

Sarri esaten da presio fiskala igo behar dela Europan baino askoz txikiago delako.

Gure presio fiskala %35 inguru da: Estatuan baino pixka bat handiagoa, eta 27 herrialdeko Europako Batasunekoa baino txikiagoa (%40). Dena den, Ipar Europako herrialdeekin konparatuz gero, ia 15 puntu beherago geratzen gara. Horrek esan nahi du oraindik ibilbidea egiteko dagoela arlo honetan.

Oraindik lan asko egin beharra dago ordaintzen ez dutenen inspekzioak zorroztuaz?

Iruzurraren aurkako lana ogasun guztien lehentasuna izan behar da. Bermatu behar dugu zergadun guztiek araudiari jarraituz ordaintzea eta inork ihes ez egitea obligazio horri. Planteamendu etiko bat da, krisi garaian indar handiagoa hartzen duena.

Pello Gonzalez, Ogasuneko foru diputatua. | ARANTZAZU EZKIBEL

"%54 baino gehiago igo dugu gizarte politiken gastua"

"Okerrena pasatu da eta ekonomia indarberritzen hasi da, baina motel doa"

Aipatu duzu sarritan ahalegin berezia egin duela agintaldi honetan Aldundiak iruzur fiskalari aurre egiteko. Zenbateraino?

Gure konpromisoa sendoa izan da. Datuek horrela adierazten dute. Iruzurrari aurre egiteko borondate politikoa dagoenean, emaitzak lortzen dira. Agintaldi honetako gure helburua da 1.000 milioi euroren zorretik gora azaleratzea, hau da, antzinako 166.000 milioi pezeta inguru (Aldundi osoaren urteko aurrekontua baino nabarmen gehiago). Bide horretan lanean jarraituko dugu. Uste dut emaitzek pixkanaka eramango gaituztela Gipuzkoan zerga iruzurraren gaitza desagertzera.

Politika sozialen arloan asko aurreratu da azken urteetan, baina noraino luza daiteke ongizate estatua?

Etorkizuneko erronka nagusia da. Gure ustez, gastu sozialari eutsi behar zaio, denen gainetik. Horixe izan da agintaldi honetako aurrekontuaren orientazioa, eta, ildo horretan, %54 baino gehiago igo dugu Gizarte Politikako Departamentuaren gastua; hau da, hori gure aurrekontuaren erdia da.

ELAk dio "fiskaltasuna enpresarien mesedetan" jarri dela.

Iritzi guztiak errespetatu behar dira. Baina bereziki ELAren eta beste sindikatu batzuen irakurketa ez da batere objektiboa eta zorroztasuna falta zaio.

Opor fiskalen kontuak zela amaituko du?

Itxi gabe dago oraindik.

Europako Batasunak erreklamatzen duen dirua opor fiskalak izan zituzten enpresei eskatuz gero, enpresa batzuen bizi iraupena kolokan egon daiteke?

Hori horrela da, dudarik gabe, eta are gehiago gaur egun.

Europako Batasunak isuna ezartzen badu, zeinek ordainduko du, enpresek ala Foru Aldundiak?

Erakunde publikoek ordaindu beharko lukete isuna; laguntzen berreskurapena, ordea, enpresek.

BEZaren igoerak ekonomiaren suspertzea geldiarazi du?

Argi eta garbi, bi ondorio izan dira, eta zerga bilketaren bidez egiaztatu ditzakegu. Lehena izan da uztailean erosketak aurreratzeko efektua, zergaldi horretan zerga bilketa handiagoa ekarri duena, udako igoeraren ondoren kontsumoa murriztuta. Zerga bilketaren datuen arabera, %2 baino gehiago jaitsi dira iaz BEZaren sarrerak, nahiz eta zerga igo. Baina pentsatu nahi dut merkatuaren jarduera moteltzearen arrazoiak beste batzuk ere badirela.

Ekonomia hobetzeko zantzurik ikusten duzu?

Jadanik okerrena pasatu da eta ekonomia indarberritzen hasi da, baina, nolanahi ere, nahi baino motelagoa izango da, merkatuetan zalantza ugari zabalduz. Dirudienez, egoera horixe ezagutuko dugu datorren urtean.

Saia zaitez sasoian
egoten ez ezik,
zeure bizi-mailari
eusten ere: merezi du.

Kutxa Aurreikuspen Planak.
Etorkizun segurua **kutxa**ren
kaudimenarekin.

Kutxa 2016 eta 2018 Aurreikuspen Plan berriek **jarritako kapitalaren %100 eta errentagarritasun handia** bermatzen dute.

Sar zaitez kutxa.net-en eta kalkulatu zenbatekoa izango den zure pentsioa erretiroa hartutakoan. Gero, zuk erabaki aldatu nahi duzun edo ez.

Kutxaren Aurreikuspen Planak Kutxa Bi BGAEra atxikita daude.

kutxa
zugandik zugana

DUELA 10 URTE

2000-12-15

Martzial Agirreren erakusketa

Hil zeneko mendeurrenean, Martzial Agirre eskultore bergararraren erakusketa jarri zuten udaletxean. XIX. mendeko eskultore entzutetsua izan zen, eta bere obra nazioartean ere da ezaguna. Erakusketarako San Telmo museotik eskultura eta margolan bat ekarri zuten. Hamar urte beranduago, irailean, berari buruzko liburua kaleratu dute Mikel Lertxundi eta Larraitz Arretxek *Martzial Agirre eskultorea* izenburupean.

Zarzuelaren entseguko une bat. | ARRASATE PRESS

2000-12-15

Zarzuelak berriro Arrasatera

Arrasatearrek egin zuten azken zarzuela 50. hamarkadan izan zen. 1989an saiakerak egin ziren, baina 2000n egindakoak izan zuen arrakastaa. Hain justu ere, abenduaren 18an *La tabernera del puerto* antzeztu zuten hartan, eta orduz geroztik fidel eusten diote euren urteroko zitari. Jesus Mari Artze eta Tere Gonzalez izan ziren zarzuela Arrasatera itzul zedin lehen urratsak eman zituztenak.

DUELA 5 URTE

2005-12-16

Egitasmo berria Urkulun

Urkuluko urtegia biziberritzeko egitasmoa aurkeztu zuten orain dela bost urte. Aizkorri-Aratz parke naturalean sarbidea izango zuela eta, ingurua txukuntzeko eta erabilera arautzeko beharra zehaztu zuten Aretxabaletako Udalean. Horren berri emateko hainbat jardunaldi antolatu zituzten.

HERRITARRAK

Florentino Lamariano | Okin ohia

"Gaur egungo okindegietan ez dago apenas okin profesionalik lanean"

Hamaika urtetan irina ehotu, ogia egin eta etxerik etxe banaketan pasa ondoren, Antzuolako errotariak noizean behin egiten du orain irina

LANDER MUÑAGORRI | ANTZUOLA

Errotarri artean hazi eta hezi da Florentino Lamariano (Antzuola, 1933). Irausta baserrian, bere jaiotetxean, ez zeukaten errotarik, baina bere hiru koinaturen artean errota bat hartuta zeukaten, eta umetan bertan ikasi zuen ofizioa. Okin beharrean Eibarren aritu zen, harik eta 1960an Antiguako errota erosi zuen arte. Bertan garia ehotu, ogia egin, eta banatu egiten zuen bere emaztearekin batera. Beste okin batek egiten zion konpetentzia Antzuolan. Egun egoera zeharo aldatu da.

Zure garaiko okin ereduaren aldaketa ezagutu duzu, nola ikusten duzu gaur egun sektore hau?

Ogia gero eta gutxiago kontsumitzen da, eta edozein lekutan eros daiteke. Izoztutako ogiak labean erre, eta listo, horrek menderatzen du merkatua. Unean bertan jateko ona da, eta jendeak gauean etxera bidean erosten duen ogi berri bero hori oso gustura hartzen da. Baina ikusi egin beharko da hurrengo egunean nola dagoen! Guk egiten genuen ogiak bi egun iraun zitzakeen jateko moduan, eta gaur egun ordea egunerako egiten da bakarrik.

Bezeroen perfila aldatuko zen orduan...

1960an errota erosi eta hemen ogia egiten hasi nintzenean, etxerik etxe ibiltzen ginen banaketak egiten. Garai hartan bezeroa fidela zen, zain egoten zen ogia noiz iritsiko, eta egunen batean atzerapenen bat edukiz gero, itxaron egiten zuten. Okinaren lana baloratu egiten zuten. Esan gabe doa, gaur egun egiten den ogia baino naturalagoa egiten genuela. Egurrarekin berotutako labeak geneuzkan, adreilu erregogorrekin egindakoak, eta horrek guztiak ere beste kutsu bat ematen zion ogiari.

Okinaren perfila ere aldatuko zen orduan...

Gure garaiko okinek ogiaren masa egiten bagenekien, baita labea zaintzen ere. Gaur egun ez dago profesionalik, masa bat iristen zaie, eta hori labean sartu, gradu jakin batean jarri, eta denbora pasatakoan atera. Gaur egun horrela funtzionatzen du.

Zure perfila ere aldatu da, orain erretiroa hartuta baitaukazu. Errotak erretiroa hartu du?

Bai. Martxan jarraitzen duen arren. Noizean behin arto irina egiten dut, tarteka lagunek etxeko irinarekin egindako taloak eskatzen dizkidate eta... Astirik ez daukat irina egiteko, eta edukita ere ez nuke nahi izango.

Florentino Lamariano eguneroko ogia eman izan dion errotan. | LANDER MUÑAGORRI

"1975ean errota utzi eta Bergaran beste okindegi bat hartu nuen"

"Gure ogiek bi egun iraun zezakeen, gaur egun egunerako egiten da bakarrik"

Erabateko erretiroa hartzeko zorian ere egon zen hala ere...

1988ko uholdeak errotan sekulako kalteak sortu zituen. Une hartan nahikoa estu nenbilen, baina beti eduki nuen gogoa errota ezagutu nuen bezala jartzeko.

Eta orain bisitak ere jasotzen dituzu.

Otsailean hasi eta apirilera arte astean bi bisita jasotzen ditut eskolako umeen partetik. Horiez gain, bestelako taldeak ere etortzen dira, helduagoak direnak. Besteak beste Eva Argiñano eta bere ostalaritzako ikasleak hemen egondakoak dira bizpahiru aldiz edo.

Errotarriak orain geldirik baldin badaude ere, lantoki bat ere daukazue, ala?

Bai. 1975. urte aldera, hemengo errotetako lana agortu egin zen, baserritarrek artoa eta irina egiteari utzi baitzioten. Orduan Bergaran beste okindegi bat hartu eta beste jokamolde bat hartzea tokatu zitzaidan. Hala ere arazoak izan genituen, eta okindegi hartan ogia egin ezinik geratu ginen.

Zergatik?

Bizilagunak kexatu egin ziren ke gehiegi sortzen zela, eta lekuz aldatu behar izan genuen. Beste hiru okin lagunekin elkartu eta elkarte kooperatiba bat sortu genuen Oñatiko Zubillaga poligono industrialean. Orain nire seme alabek egiten dute han lan.

Baina ez duzue ogia bakarrik egiten.

Lehen esan dizudan bezala, ogia gero eta gutxiago kontsumitzen da, eta hortik bakarrik ezin daiteke bizi. Hori dela eta, pastelerian ere aritzen gara. Ogia egiteaz gain, gaur egun gehigarriren bat produzitzea ezinbestekoa da biziraun nahi baldin bada.

NIRE HERRIAN

PROIEKTU BERRIAK

"Herrian gazte eta haurrentzako gauza berriak egiten ari dira, eta hori oso ongi dagoela iruditzen zait. Beharrezkoa zen esaterako, orain dela gutxi inauguratu duten aterpe berria. Antzuolak behar zuen gisa horretako leku bat, haurrak bertan jolastu ahal izateko. Horrez gain ekimen ugari ere antolatzen dira eurentzat herrian".

INDUSTRIA FALTA

"Industria falta dagoela sumatzen dut Antzuolan. Asko herri handiagoetara alde egiten ari dira, eta Deskargako portua kentzen dutenean, okerrago izango da. Horregatik bultzatu behar dira enpresei zuzendutako ekimenak, bestela hemendik 50 urtera Antzuola zer izango da; lo egiteko herri bat besterik ez?".

HERRIAK

Auzoko egitasmoa: euskaldunak eta etorkinak elkarrekin euskara lantzen

Euskal Herriko sei tokitan jarri dute abian Auzoko programa; Bergaran, esaterako

EDU MENDIBIL | BERGARA

Auzoko programa Euskal Herriko sei tokitan jarri dute abian; Bergaran kasu. Agurain, Berriatua, Donostia, Orio eta Zeanuri dira egitasmoa jaso duten beste herriak. Topaguneak eta UEMAk jarri dute abian Auzoko eta Bergaran Jardun elkartea arduratzen da egitasmoaz, Udalaren laguntzaz. Aner Arregi arrasatearra dabil koordinatzaile lanetan.

Elkartrukea da Auzokoren ardatzetako bat. Etorkin kopuruaren handitzearen aurrean, egoera horri etekin gehien atera nahi zaio. Esan bezala, elkarrengandik ikasteko egoerak sortzea proposatzen du Auzokok. Lagun taldeak sortu eta erlazio berri horiek euskaraz eraikitzeko egoerak bultzatzea da asmoa. Aner Arregiren hitzetan: "Euskara perfektua egiteari baino, komunikazioari ematen diogu garrantzia. Euskaraz komunikatzen saiatzen gara eta errepikapenen bidez eta betiere modu ludikoan euskara lantzen dugu saioetan". Bergarako kasuan, zazpi lagun ari dira Auzokon parte hartzen. Irailaren erdialdean hasi ziren biltzen eta astean bitan egiten dituzte saioak: zapatuetan 11:30ean eta martitzenetan 19:00etan elkartzen dira Arrizurin.

Auzoko egitasmoko partaideak astean bitan elkartzen dira Arrizurin, zapatu goizetan eta eguaztenean, iluntzean. Ordubeteko saioak egiten dituzte iraila ezkero. | E.M.

Auzotarrak eta auzokideak

Auzokoko programak auzotarrak eta auzokideak bereizten ditu. Auzotarrak euskaraz bizi diren herritarrak lirateke eta auzokideak, berriz, egunero euskaraz bizi nahi dutenak. Auzotarren sentsibilizazio lana ezinbestekoa da. Bergaran, lauzpabost lagun ari dira etorkinei euskara ikasten laguntzen.

ESANAK

"Etorkinekin, modu ludikoan euskara lantzen dugu Auzokon"

ANER ARREGI | KOORDINATZAILEA

Erantzukizuna, denona

Martitzeneko saiora bost lagun azaldu ziren. Helduaz bat, banan-banan aurkezten joan ziren eta Aner Arregiren galderei erantzuten saiatu ziren. Keinuek ere berebiziko garrantzia dute hasierako saioetan. Guztia da lagungarria komunikatzeko ahaleginetan. Jolasak eta musika ere erabili zituzten. Hain zuzen, etorkinak euskarara erakartzea da helburua. Eta euskaldun guztien erantzukizuna azpimarratzen du Arregik: "Esate baterako, okindegira ogia erostera joan eta 'egun on!' esateaz bat '¡buenos días!' erantzun ziotela komentatzen zidan haserre auzotar batek aurrekoan. Guk ez badiegu laguntzen eta animatzen, nork egingo du ba?".

Euskara erabili eta herri bizitzako komunikazio-tresna izateari eusten diogun heinean, inolako zalantzarik gabe etorkinek euskara ikasiko dutela argi daukate arduradunek: "Auzokide askok bigarren eta hirugarren hizkuntza bereganatuak dituzte eta hizkuntza berri bat bereganatzeko prozesua ondo ezagutzen dute dagoeneko; euskaraz bizi izateko aukera eman behar diegu". Oraingoz, pozik daude egitasmoak izandako erantzunarekin; izan ere, bidea lehen pauso batekin hasten da beti.

NAWAL
MAROKO

"Maram alabarekin etortzen naiz Auzoko egitasmoko saioetara. Urtebete daramat Bergaran; lehen, Arrasaten bizi ginen eta, agian, Bergaran euskara gehiago egiten da. Ikasteko gakoa praktika da".

ROSA
BOLIVIA

"Nawalek konbentzitu ninduen Auzokora etortzeko. Lehenbiziko saioa izan da gaurkoa niretako. Egitasmo interesgarria iruditzen zait eta uste dut integraziorako modu ona dela euskara ikastea".

ADAMA
SENEGAL

"Orain dela urtebete etorri nintzen Bergarara. Ez dut uste euskara ikastea hain zaila denik. Ikasteko nahia eta gogoa izatea, horixe da garrantzitsuena. Gustura ari gara, oraingoz".

ALI
PAKISTAN

"Ikasteko ezinbestekoa da euskara praktikatzea, eta lehenbiziko hitzak ikasteko aukera polita eskaintzen du Auzokok. Pakistandar asko gara hemen eta Auzokora lagun gehiago animatuko dira, agian...".

FAISAL
PAKISTAN

Aner Arregi Topaguneko koordinatzailearen esanetan, Faisal da ikaslerik finena: "Askotan euskaraz egiten saiatu arren, jendeak gazteleraz erantzuten digu. Ez dut gustuko hori", dio hark.

Errege Kabalgata antolatzeko laguntza eske

Azken hamar urteotan talde bera dabil Errege Kabalgata antolatzen, "dagoeneko nekatuta"

UBANE MADERA | ARRASATE

Azkenaldian zurrumurrua zabaldu da aurtengo Errege Kabalgata ez ote den azkena izango, talde antolatzailea nekatuta dagoelako hura antolatzen. Bada, oraingoz, ez da horrela: "Arrisku -arriskuan ez nuke esango dagoenik, baina bai falta da belaunaldi aldaketa", adierazi du Aitor Izagirrek, kabalgata antolatzen duen taldeko kideetako batek.

Errege Kabalgatako irudi bat, iaz. | AITOR IZAGIRRE

Urte batzuetara, zalantzak

Hark kontatu du hamar urte daramatzala talde berak kabalgata antolatzen, eta dagoeneko nekatuta daudela: "Historikoki hainbat taldek antolatu izan du: Sendotza taldeak, aisialdi taldeek, Galtzagorri taldeak, katekistek... baina azken urteotan ez dago erreleburik. Betikoak gaude, eta ikusten da jende berriaren beharra dagoela. Hala, jendeari parte hartzeko deialdia egin gura diogu, ze, bestela, urte batzuetara ez dakigu-eta zer gertatuko den". Hauxe ere gaineratu gura izan du, jendea animatzeko: "Urtero -urtero oso ondo pasatzen dugu, oso gauza polita izaten da eta umeek asko gozatzen dute".

Ibilbide aldaketa

Horren adibide da iaz, esaterako, kabalgataren marka hautsi eta 80-90 bat neska-mutikok parte hartu zuela, eta kabalgata bera ikusten ere jende asko egon ohi dela urtero ibilbidean.

Azken horren harira, Izagirrek kontatu du aurten kabalgataren ibilbidea aldatu egin behar izan dutela: "Krisi urteak dira eta gurean ere halaxe izango da eta, ondorioz, ibilbidea motzagoa izango da. Iturbidetik irtengo gara, baina San Andresera joan beharrean Maalako biribilgunerantz egingo dugu, handik Okoretegiko biribilgunera, gero Seber Altubera eta handik plazara. Eta plazan agurra. Betiko moduan, 19:00etan irtengo gara".

Urtarrilaren 3an

Krisiak krisi, "sorpresaz" beteriko kabalgata iragarri du, karroza ere "oso-oso polita" izango dela adierazi du eta hainbat hitzordu ere egin ditu: "Urtarrilaren 3an San Viatorko patioan, paper banaketa egiteko: laguntzaile, morroi (paje), danbor-jole... 19:00etan. Edozein adinetako pertsonendako deialdia da; bestalde, abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 3an eta 4an abesbatzaren entseguetarako hitzorduak egin ditugu. 18:00etan abadetxean. Adin guztietako neska -mutikoei zuzenduta".

Jendaurrean dago Gesalibar auzoko plan berezia

U.M. | ARRASATE

Gesalibarko plan bereziaren helburua da auzo hura berriro ere ordenatzea. Beraz, planak egiten duena da zehaztu auzo hartan zer egitea komeni den, zer eraiki behar den eta zeintzuk diren etorkizunean kontuan hartu beharreko irizpideak.

Joan den astean onartu, eta oraingo astean ipini dute jendaurrean. 20 egunez edozeinek kontsultatzeko moduan izango da, alegazioetarako.

Halakoetan ohi denez, auzotarrak eurak dira interes handien dutenak; bada, Hirigintza Sailetik esandakoaren arabera, Udalaren asmoa da auzotarrekin batzarrak egitea, planaren nondik norakoak azaldu eta auzotarren iritziak jasotzeko.

Ze proposatzen den

Adibide praktikoetara joz, lanak proposatzen du oinezkoendako ibilbide berriak egin eta daudenak hobetzea; aparkaleku gehiago eraikitzea, kaleak zabaltzea eta auzotarrendako lokal bat eta parke bat egokitzea.

Besteak beste, etxeen gaia ere jasotzen du. Labur esanda, begi onez ikusten du baserri -etxeetan zatiketa egin eta bakoitzetik bi etxebizitza ateratzea. Eta proposatzen du baserrietan erabiltzen ez den espazioa auzoaren beharrak asetzeko erabiltzea.

Bedoñako errepidea konpontzeko proiektua onartuta

U.A./U.M. | ARRASATE

Jendaurreko informazioaren prozedura beteta, onartu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak Bedoñako errepidea (GI-354 izenekoa) zabaldu eta hobetzeko proiektua.

Zabaldu eta hobetu

Errepidearen kilometro bat zabaldu eta hobetu egingo dute, hain zuzen ere, 0,520 eta 1,570 kilometroen puntuen arteko zatia.

Helburua da errepidearen galtzadari 5,5 metroko zabalera ematea bere luzera osoan, zirkulazio arinagoa lortzeko eta bide segurtasuna hobetzeko.

Beste aldetik, errepidearen trazatua ere zertxobait aldatuko dute 1,330 kilometro puntuaren parean; eta inguruan gertatutako lur-jausia egonkortu egingo dute, 55 metroko harri -lubeta baten bidez.

Udala, jakinarazpenaren zain

Obra guztia Diputazioaren esku izango da; are gehiago, Arrasateko Udalari oraindik ez diote onartutakoaren jakinarazpenik bidali. Era berean, Udalak eskatuta dauka apurtxo bat beherago, Fagor inguruan biribilgunea egin dezaten, eta horren berri ere ez du, oraingoz.

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA
BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOA
ODOLOSTEAK
Zorionak eta
Urte berri on!!!
Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

Jose Antonio
GABON ZORIONTSUAK!
ile-apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

ARPE
Ile apaindegiko artikuluak
• Kalitate onena, prezio ezin hobean.
• Aholkularitza.
• Konfiantzazko denda.
Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

King's
Ile-apaindegia
Ondo pasa
Santamasak!
Zarugalde 23.
ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88


Jose Ramon Otamendi
haratégia
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Nikaraguaren aldeko AMS taldeak, ospakizuna bihar

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

AMS elkartasun erakundeak 10 urte bete ditu, eta hori ospatzeko ekitaldia egingo du bihar, zapatua, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 10:30ean. Mitch urakanak eragindako hondamendiaren harira sortu zen AMS (Activos/as por un Mundo Solidario–Mundu Solidarioa Helburu) erakundea. Antolatzaileek honela gogoratzen dute: "Itxaropen eta ilusioz, gure mundua leku hobea izateko lan egiteko nahiaz, batera AMS sortu genuen". 10 urteren ostean, euren "konpromisoa berritu" gura dute ekitaldi horrekin. Bertan izango dira elkartasun proiektua aurrera eramatera Nikaraguatik pasatu diren hainbat boluntario.

Santamasekin bat eginez, Txistorraren Eguna ospatuko dute Abaroan abenduaren 21ean

Urteroko ohiturari jarraituz, Abaroa erretiratuen elkarteak bat egingo du Santamasekin. Hala, Txistorraren Eguna ospatuko dute Santamas bezperan, hau da, abenduaren 21ean.

Abaroako bazkide guztiak daude gonbidatuta Santamasetako jaki preziatuenaz gozatzeko, eta 18:00etan elkartuko dira Etxaluzen. Hori bai, egun horretan txistorraz gozatu gura duten bazkideek bazkide txartela eraman beharko dute, behar den moduan eguneratuta.

Aste bukaera osorako plana gaztetxean: bertso saio musikatua gaur eta zuzeneko punk-rocka bihar

Jokin Labaien, Alaia Martin, Xamaoa eta Jon Martin izango dira gaurko saioko bertsolariak. Saio berezia izango da, izan ere, musika doinuen artean arituko dira kantuan bertsolariak; gai jartzaile lanetan Egoitz Aizpuru arituko da. Sarrera, hiru euro.

Zapaturako, bestalde, punk-rock gaua antolatu du Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak –AGAKO–, Oñatiko jatorri izendapenarekin: CC627 –Arrasate eta Oñati–, Reaccion 912 –Oñati– eta Golpe de Estado –Oñati– taldeek joko dute. 22:30etan hasiko da kontzertua eta sarrera doakoa izango da.

TXINATO TABERNA

Txinatoko mus txapelketa eskoriatzarrek irabazi zuten

Antonio Romero eta Angel Sebastian eskoriatzarrak izan ziren garaile Txinato tabernako mus azkarreko bosgarren edizioan. Bailara osoko 58 bikotek hartu zuten parte, eta finala Eskoriatzako bikoteen esku geratu zen; Xabier Eraña eta Joxe Regaño izan ziren bigarrenak. Hirugarrenak, Patxi eta Txiri arrasatearrak, eta laugarrenak, Musakolakoak: Blanco Perez eta Jose Mari Alcaide. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "giro paregabea" izan zen txapelketa osoan. Guztira 2.320 euro banatu ziren saritan.

SARRAILAGINTZA-LANAK,
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketa
RAOS
Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57


Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Santamas jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Ume bat gustuko jostailu bat eskuan duela, iazko azokan. | GOIENA

Olentzero heldu aurretik, jostailuen truke merkatua egingo da domekan

10:00etatik 14:00etara izango da azoka; 149 jostailu jarriko dituzte Okendoko ludotekan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdik Gabonen atarian urtero antolatzen duen jostailuen truke merkatua domekan egingo da, hilak 19. Azaroan eta abenduan aritu dira Txatxilipurdikoak ludoteka ezberdinetan jostailuak batzen. Jostailu bakoitzagatik– egoera txarrean daudenak edo sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituzten jostailuak ez dituzte onartu– txartel bana banatu dute, eta txartel hori gero jostailuengatik trukatu ahalko da azokan. Okendoko ludotekan jarriko dute merkatua, 10:00etatik 14:00etara.

Hala, Arantza Osoro Txatxilipurdiko dinamizatzaileak adierazi duenez, lehen orduan izango da "eskaintza zabalena". Izan ere, badago non aukeratu: denetariko 149 jostailu izango dira. Eskaintza zabalena gura duenak goiz ibili beharko da, beraz.

"Ahalik eta truke gehien"

Haur eta gurasoak animatu ditu Osorok, txartelak alferrik ez galtzeko: "Ahalik eta truke gehien egitea espero dugu, eta haurrek eurek aukeratutako gustuko jostailua eramatea". Soberan geratzen direnak Gurutze Gorrira bidaliko dituzte.

ESANAK

"Ahalik eta truke gehien egitea espero dugu, eta haurrek aukeratutako jostailuak eramatea"

ARANTZA OSORO | TXATXILIPURDIKO KIDEA

Adara
ILE-APAINDEGIA
Etorri gu ezagutzera!
Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 behea
adaraileapaindegia@gmail.com
Arrasate

Arrasateko Koldo Balantzategi *Bitxo*, 2008ko edizioan, plazan helmuga zeharkatzen. . | X.U.

Arrasate-Oñatin izan ziren guztiak, Santamas krosera

Behobia–Donostia probaraino entrenatzen ibili zirenak animatu nahi dituzte domekako kroserako

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Udazkenera arte inguruko lasterketek arrakasta handia izan dute, Arrasate-Oñatik, esaterako, jende mordoa ibili da-eta korrika. Eta, Behobia-Donostia probaren ostean, azken hilabetean zapatilak armairuan gorde dituztenek domekan dute lagunartean goiz -pasa ederra egiteko aukera, Santamasetako krosak –Enrike Kabiketa memoriala– 33 urte beteko ditu-eta.

Azken bi urteotan lasterketa hori hazi egin da; 2008an aurreikuspen guztiak hautsi zituen probak eta antolatzaileek nahiko lan izan zuten korrikalari guztiendako dortsalak lortzen; seinale ona zen hori (138 korrikalari izan ziren orduan). Iaz kopuru horri eutsi egin zion Santamasetako krosak, eta 19 koadrila ibili ziren korrika –atleta batzuk Gasteizko maratoi erdian parte hartzera animatuko dira–. Lasterketa buruan Zuhaitz Ezpeleta eta Beñat Arnaitz izan ziren, eta azken itzulian Bedoñakoak hartu zuen aurre. Emakumezkoetan, berriz, Raquel Rodriguez nabarmendu zen.

DATUA

131

LASTERKARI

Lasterkari asko izan ziren iaz, 19 koadrila guztira; etziko ez dituzte gutxiago espero

Gaztetxoak 11:00etan hasita

Koadrilen lasterketaren aurretik gaztetxoen lasterketak egingo dituzte Arrasate Kanpanzar Atletiko Taldeko lagunek. Ordubetean (11:00etatik 12:00etara) 7 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek hartu ahal izango dute parte, 175 eta 800 metro arteko lasterketetan.

Koadrilen arteko lasterketa (6,4 kilometro), berriz, 12:30ean hasiko dute –izenematea lehenago, plazan bertan–. Bakarkako lana saritzearekin batera koadrila azkarrenek ere saria izango dute, eta horretarako, koadrila bakoitzeko bost atleta azkarrenen denborak hartuko dituzte kontuan.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Fuxxion-Iluntz	1-10
Dribling-Dublin	6-4
Betrayer-Cipris	2-7
Steaua del grifo-Fidel	2-16
Ekaitz-Abokajarro	4-3
McAwen-Iriztu	2-3
Lasagabaster-Portaboleiros	11-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Cipris	18	7
2	Ekaitz	18	7
3	Dribling	16	7
4	Iriztu	15	7
5	Lasagabaster	13	7
6	McAwenDauen	13	7
7	Iluntz	10	7
8	Portaboleiros	9	7
9	Abokajarro	8	7
10	Dublin	8	7
11	Betrayer	6	7
12	Fidel & Disc.	3	7
13	Fuxxion	3	7
14	Steaua del Grifo	0	7

PARTIDUAK

ABENDUAK 18, ZAPATUA
10:30 Portaboleiros-Iriztu / **Dublin**
11:30 Dublin-Ekaitz / **Iriztu**
12:30 Fuxxion-Betrayer / **Ekaitz**
16:00 Iluntz-Lasagabaster / **Antolatzai.**

ABENDUAK 19, DOMEKA
11:30 Cipris-Fidel & Disc. / **Steaua**
12:30 Steaua-Abokajarro / **Fidel & Disc.**

Cipris eta Ekaitz, tinko aurrealdean

Zazpi jardunaldi jokatuta, Ciprisek eta Ekaitzek tinko jarraitzen dute, jokatutako partidu guztiak irabazita. Asteburuan Ciprisek Fidel & Disc taldea izango du aurrean (joan den astean 16 gol sartu zituen talde horrek), eta Ekaitzek Dublin. Bestalde, McAwen eta Driblingen artekoa atzeratu egin da.

Erregeekin batera Reala etorriko da Arrasatera

X.U. | ARRASATE

2011n Martin Lasarteren mutilek, Zubietatik kanpo, Arrasatera egingo dute lehenengo entrenamendu-bidaia, eta, zehatu gabe badago ere, urtarrilaren 3an edo 4an izango da. Lehenengo mailara igo zirenean, ospakizunak egitera Leintz aldera etorri ez izanagatik haserretu egin ziren zale asko, eta zuzendaritzan dauden ibarreko ordezkariek –Aitor Mendibil eta Juanjo Arrieta– eta Mikel Gonzalezek tratu hori egin zuten presidentearekin, Arantzazun bertan: Posible denean, Arrasatera. Hala, Aperribaik bete egingo du hitza.

Klubetik aditzera eman digutenez, Realeko jokalari guztiak izango dira Mojategiko entrenamenduan.

Ointxe!-k gertu du Gabonetako saskibaloi txapelketa

Aurten ere Ointxe!-k gazte mailako Gabonetako txapelketa antolatuko du (abenduak 26, 27 eta 28). Etxekoekin batera, besteak beste, CB Cornella (Bartzelona), Clavijo (Logroño), Lagunak (Iruñea) eta Euskadiko kadeteetako selekzioa izango dira. Ointxe!-k martitzenean aurkeztuko du txapelketa.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI • URDAITEGIA
Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak
Olarte kalea 20
ARRASATE
Ondo pasatu Santamasak!

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili Santamasetan!
Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu


VICOSTA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
LOOKFLEX
WONDERS
GEORGES
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
MBT
NATURALISTA
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

eya
etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku
Gabon zoriontsuak!
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

'Iragana iragan' Doke taldearen azken antzezlana bihar eta etzi Amaia antzokian

Mondragon sortu zela 750 urte bete direnean, umorezko klabean eutsi diote Dokekoek urteurrenari

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Doke taldeak *Iragana iragan* azken lana estreinatuko du aste bukaeran. Bi emanaldi egingo dituzte Amaia antzokian: lehenbizikoa bihar, zapatua, eta bigarrena etzi, domeka. Bi emanaldiak 20:00etan izango dira eta sarrerak (zenbaki gabeak) salgai daude Zabaleta (Maisu Arano pasealekua 2, Portaloia) eta Lore (Olarte kalea, 10) lurrin-dendetan. Gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko leihatilan eskuratu ahal izango dira.

Dokekoek urtebete daramate bihar estreinatuko duten antzezlana prestatzen | ANDER MONEDERO

Hamabi aktore

Mondragon hiria sortu zela 750 urte bete direnean, Dokek umorezko klabean eutsi dio urteurrenari. Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako antzezlana gai hartuta, Arrasate/Mondragon binomio itxuraz gatazkatsua aurkezten du taldeak, Itziar Rekalderen zuzendaritzapean. *80 egunean* filmari esker ezagun bilakatu den Mariasun Pagoagarekin batera, Marixabel Arsuaga, Mikel Dominguez, Eugenio Etxebeste, Arantza Ezkurra, Mikel Irastorza, Saioa Iturbe, Josu Jauregi, Marga Merkader, Itziar Rosado eta Elena eta Jesusmari Velez de Mendizabal izango dira aktore lanetan. Doke taldea duela sei urte sortu sortu zuten *Eskuak elkarri* antzezpen musikatuaren inguruan. Pedro Ignacio Barrutiak (Aramaio, 1862) XVIII. mendean idatzitako *Actto para la Noche Buena* antzezlana berreskuratu zuten 2006an.

Aramaiora eta Aretxabaletara

Arrasateko emanaldien ostean herritik kanpo ere erakutsiko dute antzezlana Gabonetan; hain zuzen ere, Aramaioko kultura etxean abenduaren 26an egingo dute emanaldia, 20:00etan; eta Aretxabaletako Arkupen abenduaren 30ean izango dira, 20:00etan baita ere.

Arrasate Musikal: kontzertuak gaur eta bihar

E.M. | ARRASATE

Gabonen atarian ohikoa denez, Arrasate Musikaleko ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Kulturaten, 18:30ean. Bakarka zein taldeka instrumentu asko entzuteko aukera izango da eta Xabier Leteren omenez piezaren bat ere joko dute. Bihar, zapatua, txistu kontzertua izango da Kulturaten, 12:30ean. Ikasleek eta Arrasate Musikaleko Bandak hartuko dute parte. Bandak, azkenik, Gabon zaharreko kontzertua eskainiko du hilaren 31n Amaian, 13:00etan.

Ganbara Gazterekin Gabonetako kantaldia bihar Bedoñan

Urtero bezala, Gabonetako kantaldia antolatu dute Bedoña auzoan. Aurten, Oñatiko Ganbara Gazte taldekoek abestuko dute auzoko Santa Eulalia elizan bihar, zapatua, 19:30ean. Ordubete inguruko emanaldia egingo dute. Ekitaldi irekia eta doanekoa da eta herritarrak gonbidatu dituzte antolatzaileek.

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

PROFESIONAL BAIMENDUNA
GARANTIA DE ALQUILER
902 21 21 92
DOANEKO AHOLKUA

- **Juridikoa:**
  - Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
  - Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
  - Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
  - Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
- **Laborala:**
  - Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...
- **Fiskala:**
  - Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilidadea:**
  - Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

ONDO PASA SANTAMASETAN!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Ipintza institutuak Eskola Iraunkor ziurtagiria jaso du

Eskola Agenda 21 ingurumen-heziketa proiektuan egindako lana hartzen du aintzat ziurtagiri horrek

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ipintza institutuak Eskola Iraunkor ziurtagiria jaso zuen astelehenean, Lakuan egindako ekitaldian. Ziurtagiri horrek aintzat hartzen du ikastetxeek Eskola Agenda 21 ingurumen-heziketa proiektuan egindako lana.

Hain zuzen ere, aurreko ikasturte bukaeran erabaki zuen batzorde ebaluatzaileak ematea ziurtagiri hori Ipintzari, Agenda 21 programaren autoebaluazioaren galdetegia aztertu eta gero eta ikastetxera bisita egin ondoren. Izan ere, planifikaziorako antolaketa, hezkuntza komunitatearekiko komunikazioa, ikasleen parte-hartzea eta curriculumaren txertaketa aztertu ondoren, ikusi zuten Eskolako Agenda 21 proiektuak erakusten zuela ikastetxeko garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kalitatea.

Ipintzak Eskola Agenda 21 proiektuari 2005ean ekin zion. Ordutik hona, ingurumenarekin zerikusia duten gaiak jorratu dituzte –ura, hondakinak, energia...– diagnostikoak landuz, baliabide kudeaketaren hobekuntzarako jarduerak garatuz eta ingurumenarekiko konpromisoa bultzatuz, ikastetxean eta herrian.

Aurrerantzean, IRAES 21 eskola iraunkorren sarean parte hartuko dute, eta, horren bidez, ingurumen gaiei buruzko informazioa eta esperientziak trukatu ahal izango dituzte.

Ipintzako ordezkariak astelehenean Lakuan. | IPINTZA INSTITUTUA

Udaleko egutegia jaso ez duenak eskatu egin dezake

Aurten ere Udalak 2011ko egutegia kaleratu du, azken urteetan egin izan duen moduan. Egutegi hori herriko etxe, komertzio eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo du Udalak, baita baserri auzoetara bidaltzekoa ere. Aurtengo egutegiaren gaiak dira etxe-atariak, etxe-sarrerak, ateak, aldabak... Postontzietan sartzeko egutegia tolestu beharra dagoen kasuetan, atarietan pilan lagako dira etxebizitza bakoitzerako bana. Hala ere, arrazoi batengatik edo bestegatik etxeren batean jasotzen ez bada, abenduaren 27tik aurrera eskuratu ahal izango dira egutegiok. Udaltzaingoan eskatu beharko dira.

NIRE USTEZ

JON SUINAGA

Herriko urdina itzali da

Herriko azken ehungintzaren produktiboa, TAVESA, zerratzera doa. Herriko tradizio zutoihal izan dena eta famatua den *Bergarako urdina* itzaltzen da.

1846. urtean Fabrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara sortu zen eta 1901ean Algodonera de San Antonio SA deitzera pasa zen. Aktibitate nagusiena, izenak adierazten duen bezala, kotoizko ehunak produzitzea zen.

1950. urtean Algodonera laneko arropa egiten hasi zen eta estatuko 90% produzitzera heldu zen. Oso famatua zen mahoi urdin kolorea eta herriak izenak trukatu zituen. Bergara *Villa Mahonera* izango zen eta mahoi kolorea *Bergarako urdina*.

1969. urtean Algodonerak herriko beste bi enpresarekin batera Tintes y Acabados de Vergara SA osatu zuen; TAVESA izenarekin ezaguna. Hurrengo urteetan ehun bakeroen merkatuan sartu zen eta Levi Strauss-en hornitzailea izan zen. 1975ean TAVEXA sortu zen produkzioa esportatzeko.

80ko hamarkadan Algodonerak Valentziako Alginet Textil eskuratu zuen, eta Grupo Tavex sortu. 90eko hamarkadan Marokon planta produktiboa eraiki zen eskulan merkearen bila. Garai hartan gainbehera hasi zen eta 2001ean Algodonera itxi zuten.

Ehungintzaren desagertzearekin, gure herriko tradizio eta historia garrantzitsu bat itzaltzen da.

OHARRAK

GAZTAINA-ERRE EGUNA GAUR, JARDUNEKIN

Urtero bezala, gaztaina-erre eguna antolatu du Jardun elkarteak. 17:00etan gaztainak erreko dituzte danbolinean eta 18:00etatik 20:00etara salduko dituzte Fraiskozurin.

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA BIHAR

Euskal Herriko mus txapelketa antolatu dute hirugarrenez eta herriko kanporaketa bihar, zapatua, jokatuko da, 16:30ean, Artatse elkartean. Izenematea 16:00etan izango da. Bikoteko 20 euro ordainduko dira.

HILAREN 25EAN ITXITA EGONGO DA AGORROSIN

Abenduan egun bakarrean itxiko dute Agorrosin Ekintza Gunea; Gabon egunean, hain justu ere.

VALDEZCARAYRA IRTEERA BERTAN BEHERA GERATU DA

Udalak antolatuta zeukan irteera abenduaren 18rako, Valdezcarayra, eskiatzera. Bada, bertan behera gelditu da: abendu hasieran pistak ireki zituzten arren, berriz itxi dituzte, elur faltagatik. Izena eman dutenek kultura etxetik pasa beharko dute dirua jasotzera.

Ibargarai 14 **BERGARA**
Tel.: 943 08 29 65

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira
ile-apaindegia edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

中國點心
dinsun ekialdeko tapak
Etor zaitez probatzera!
DRAGON ORIENTAL Jatetxea
福龍食品

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) BERGARA 943 25 06 77

Astelehenean hasiko da Olentzero gutunak jasotzen

Udaletxean laga beharko dira, osoko bilkuren aretorako sarreran egongo diren zakuetan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Astelehenean, hilaren 20an, hasiko da Olentzero umeen gutunak jasotzen. Hain justu ere, udaletxean jasoko ditu, osoko bilkuren aretorako sarreran egokituko duten gunean. Egubakoitzera bitartean eroan ahalko zaizkio gutunak Olentzerori, udaletxeko ordutegian, eta han laga dituen zakuetan sartu.

Egubakoitzean etorriko da Olentzero, Mari Domingirekin batera, eta orduan eroango dituzte gutunak. 19:00etan iritsiko dira, gurdian, eta honako ibilbidea egingo dute herrian barrena: Udal Biltegitik abiatuta, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar eta Barrenkaletik igaro ondoren, San Martin plazan bukatuko dute.

Ibilbidean barrena hiru bat geldialdi egingo dituzte Olentzerok era Mari Domingik, jende gehien batzen den hiru bat gunetan, hain zuzen ere, eta haiekin batera bidea egingo duen abesbatzak –egun horretarako espreski hainbat herritarrek osatutako abesbatza– Gabon kantuak abestuko ditu.

Olentzerok eta Mari Domingik umeei agur esan aurretik, udaletxeko balkoian hitz batzuk egingo dituzte.

Gaztetxoendako tailerrak

Udaleko Gazteria Sailak gaztetxoendako tailerrak antolatu ditu Gabonetako oporraldirako.

Sei tailer egongo dira, Munibe plazan jarriko duten karpan, 17:00etatik 20:00etara: hilaren 27an, sexologiaren gaineko tailerra egongo da; 28an, automakillajea; 29an, zirko teknikak; 30ean, barreterapia; urtarrilaren 4an, euskal dantzak; eta urtarrilaren 7an, dantza eta koreografia.

Tailerrok doan izango dira eta parte hartzeko nahikoa da izena ematea. Hain justu ere, astelehenean, hilak 20, bukatuko da izenematea, kultura etxean.

Giza katea deitu du ezker abertzaleak biharko, zapatua

Mobilizazio "irudimentsu" baten parte hartzeko dei egin du ezker abertzaleak biharko, zapatua. 12:30ean, Fraiskozurin hasita eta herriko gune garrantzitsuenetan barrena, giza kate jendetsua egingo dute, Euskal Herriarentzat historikoak izan diren uneak eta pertsonaiak gogoratuz, hitzez, kantuz eta bertsoz lagunduta: Jose Luis Elkoro eta alkateen mugimendua, Monzon eta Olaso dorrea... Herritar guztiei egiten diete gonbita parte har dezaten.

Napar feria egingo dute bihar, zapatua, San Antonio auzoan

10:30ean zabalduko dute eta 14:30ak bitartean Angie disko -jartzaileak alaituko du giroa. 11:00etan txistulariek kalejira egingo dute eta 11:00etatik 13:00etara elkarteen arteko hirugarren sukaldaritza lehiaketa jokatuko da. Hain justu, txipiroiak patatekin prestatu beharko dituzte parte-hartzaileek. 11:30ean meza egongo da eta 12:00etatik 14:00etara, poneyak, zezentxoak eta jolasak neska-mutikoendako. 13:30ean, berriz, Alai taldeak emanaldia egingo du.

39 lagunek eman zuten odola egubakoitzean

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak emaile berriak batzeko egiten diharduen kanpaina erabat arrakastatsua izan da herrian. Aurreko egubakoitzean egin zuten deialdia, Miguel Altuna institutuan, eta 44 lagunek eskaini zuten euren burua. Horietatik 39k eman ahal izan zuten odola; 16k lehenengoz.

GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Pilotako Gabon Sariko azken finalaurrekoak astelehenetik aurrera

Aste barruan jokatu dituzte Bergarako Gabon sariko pilota txapelketako kanporaketa partiduak –ezin izan ditugu emaitza denak batu–, baina bi kategoriatan dagoeneko finalistak daude: benjamin B mailan Xabi Muruamendiaratz eta Iker Etxaniz eta alebin A mailan Mikel Najere eta Aimar Olañeta.

Hala, finalaurrekoetarako sailkatzeko geratzen diren norgehiagokak hilaren 20an eta 21ean jokatuko dituzte, Bergarako pilotalekuan.

Lokatzak batzar orokorra egingo du hilaren 30ean

Lokatza Ziklismo Eskolak 2010eko batzar orokorra egingo du abenduaren 30ean, 19:00etan, kultura etxean.

Hala, batzarrean urteko balantzea egiterarekin batera –kirol mailan Bergarako taldeak urte aparta izan du–, klubeko zuzendariek datorren urterako egitasmoak aurkeztuko dizkiete klubeko bazkideei. Hala, batzar orokorrean esku hartzeko klubetik adierazi dute bazkideek nahikoa izango dutela nortasun agiria aurkeztuta.

Leihoak Zast Zarautz taldearen kontrako partiduko une bat; zarauztarrek eraman zituzten puntuak (50-67). | GOIENA

Taldearen norabideari buelta emateko partidua domekan

Azken bi jardunaldiak galdu ostean, seniorrek garaipena behar dute

XABIER URTZELAI | BERGARA

Azken bi jardunaldietan batutako porrotak lehenbailehen ahaztu nahi dituzte David Urbinaren mutilek; bolada txarrak jarraipena izanez gero, agur aurrealdean ibiltzeko nahiari. Joan den asteburuan Easo Zahar ez zen bergararrak baino gehiago izan (60-58), jokoan ez, baina sendoagoak izan behar dute partiduko une garrantzitsuetan. Hala, domekako (17:00, Labegaraieta) partidua garrantzitsua da mahoneroendako, taldearen norabidea aldatzeko. Gainera, Labegaraietan izango den Aluminios Alberdi taldea kontrario zuzena da.

Urdulizeko ur nahastuetara, urteko azken puntuen bila

X.U. | BERGARA

Romoren kontra etxean puntu bat batu ostean (26-26), 2010eko azken norgehiagoka jokatuko dute Josetxo Muniategiren mutilek bihar, zapatua (19:30, Urduliz): "Berdinketa positiboa izan zen, eta justua, parean ibili ginen".

Biharkoak, berriz, jokoan dauden urteko azken puntuak dira: "Ligako talde beteranoenetakoa da Urduliz, baina aspaldian makal dabiltza, joan den astean azken sailkatuaren kontra galdu egin zuten; horretaz baliatu nahi dugu", dio entrenatzaile bergararrak.

Geroago eta hobeto

Urdulizen eta etxeko taldearen artean puntu bateko aldea baino ez dago: "Euren kantxan ezustea ematen badiegu aurrea hartuko diegu sailkapenean, eta hori garrantzitsua da. Makal hasi genuen denboraldia, orain dela hilabete eta erdi baju samar nenbilen taldea zelan zegoen ikusita, baina tarte honetan erakutsi dugu beste taldeak ez direla gu baino gehiago, eta horrek konfidantza eman digu".

Biharko Gabonetako kontzertuan hasiko dira ospatzen orkestraren 25. urteurrena

- 'Avatar' filmaren soinu-bandaren moldaketa joko dute kontzertuan parte hartuko duten lau taldek
- Bestalde, gaur, musika eskolakoek ere Gabonetako kontzertua egingo dute Udal Pilotalekuan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Dagoeneko Gabonetako kontzertuen garaian gaude murgilduta. Gaur, egubakoitza, musika eskolakoen txanda izango da eta bihar, zapatua, urteroko Gabonetako kontzertua egingo dute Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

Lehenengo zatian hiru taldek parte hartuko dute: herriko musika bandak zabalduko du emanaldia, J. de Hannen *Virginia* izeneko piezarekin; jarraian, Imanol Urtzelaik Aritzeta abesbatza zuzenduko du. Besteak beste, Beatriz Coronaren *Barcarola* edo Xabier Sarasolaren *Neskatx ederra* kantuak abestuko dituzte. Bergarako Orfeioa igoko da gero agertoki gainera.

Joan den Gabonetako kontzertua. | GOIENA

Kontzertu bateratuan soilik

Bigarren zatian, urtero moduan, agertoki gainera igoko dira Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Orfeoia eta Orkestra Sinfonikoaren partaide guztiak. Azken horrek ez du bakarkako kontzerturik eskainiko aurten; kontzertu bateratuan bakarrik parte hartuko du, emanaldi horretan pisu handia du-eta. Lau musika taldek *Avatar* filmaren soinu-banda joko dute; Udal Musika Bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek egindako moldaketa, hain justu ere. 35 minutu irauten du horrek.

Etorkizunari begira

Chirlaquek esan digu *Avatar* filmaren soinu-bandaren moldaketa horrekin Orkestra Sinfonikoaren 25. urteurrenaren ospakizunak hasiko dituztela. Datorren urtean egingo ditu orkestrak zilarrezko ezteiak eta horiek ospatzeko 2011-ko Gabonak bitartean hainbat ekitaldi gertatuko dituzte; tartean, biharko kontzertu bateratua. Hauxe dio Chirlarquek: "Urteurrenaren bueltan, nahita aukeratu dut *Avatar* filmaren soinu-banda; etorkizunari begirako mezua zabaltzen duelako. Oso zaila da herri txiki baten 25 urtez orkestra egonkorra izatea; guk lortu egin dugu eta etorkizunari modu positiboan begiratzen diogu".

Kontzerturako sarrerak kultura etxean eta Lazkano oinetako dendan eros daitezke, 5 eurotan. Bihar ordubete lehenago zabalduko dute leihatila.

Musika eskola

Gaur, esan bezala, musika eskolakoek Gabonetako ohiko kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 18:30ean. Bertan, 400 ikasle inguruk parte hartuko dute, talde desberdinetan banatuta, eta askotariko abesti eta obrak eskainiko dituzte; haurren abesbatza ere izango da. *Olentzero&company* musikalean lanpentuta ibili bada ere, tarte bat hartu du gaurko kontzertuan ere emanaldia egiteko. 18:00etan hasiko dira sarrerak saltzen; helduenak 4 eurotan eta 12 urtetik beherakoenak, 2 eurotan.

Bestalde, beste kontzertu bat egongo da hilaren 23an, eguena: Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak eskainiko dute.

Taila eta buztinzale zeramika elkartearen lanak Aroztegin gaurtik

Erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan: Bergarako taila eta buztinzale zeramika elkartearena, hain justu. Honako ordutegian egongo da zabalik: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan 12:00etatik 14:00etara. Erakusketa horren ondoren, Beartekoak izango dira euren lanak erakutsiko dituztenak; hilaren 31n inauguratuko dute erakusketa.

Umeendako eta helduendako filmak ikusgai Zabalotegin

Hiru film ikusi ahalko dira datozen egunotan Zabalotegi aretoan. Bihar eta etzi, 17:00etan, *Olentzero eta oparien ordua* ikusi ahalko da. 19:30ean, berriz, *Que se mueran los feos* izeneko filmaren txanda izango da; 7 urtetik gorakoendako da hori. bada, umeen saioak 2 euro balio du eta helduenak, 3 euro.

Bestalde, zineklubaren harira, eguaztenean intrigazko *Moon* filma izango da Zabalotegin. Horretarako sarrerak ere 2 euro balioko du.

Gabonetako eskaintzak

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Gabon zoriontsuak, guztioi!

Denuntzia atalean lehen saria jasoko du Jokin Astigarragaren *Desindustrializazioa'07* delako argazkiak. | ALOÑA MENDI

Argazki lehiaketako sari onenak oñatiarrendako

Aloña Mendi mendi taldeak gaur egingo du sari banaketa ekitaldia, kultura etxean, 19:30ean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi mendi taldeak deitutako VII. mendia eta natura argazki lehiaketako sari banaketa ekitaldia gaur egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Ekitaldian irabazle guztiak egongo dira (ikus ondoko taula); besteak beste, sail bakoitzeko lehen saria lortu duten hiru argazkilari oñatiarrak: Josu Garai (mendia eta natura atala), Jokin Astigarraga (denuntzia edo salaketa) eta Iñaki Idigoras (alpinismoa). Gainera, epaimahaiak atal bakoitzeko oñatiar argazki onenak aukeratu ditu: Jose Ramon Txintxurretarena (mendia eta natura atala) eta Iñaki Idigorasena (denuntzia edo salaketa) izan dira onenak.

Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, lehiaketara aurkeztu dituzten argazki onenekin osatutako erakusketa zabalduko dute. Ikusgai egongo da urtarrilaren 2ra arte, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

186 erretratu

Guztira, 55 argazkilarik egindako 186 argazki jaso ditu Aloña Mendi mendi sailak lehiaketarako; iaz baino, 31 gehiago (2009an 155 jaso zituzten). Horietatik 142 mendia eta natura atalean lehiatu dira (iaz 111) eta gainerako 44ak denuntzia edo salaketa atalean (iaz 44 erretratu).

Epaimahaia osatu dute Ikatza argazki taldeko Xabier Mata legorretarrak eta Ezkio-Itsasoko Asier Azarolak eta Bergarako Pol-Pol argazki taldeko Juan Jose Lopez Azurmendik.

SARIDUNAK

MENDIA ETA NATURA

1. **Josu Garai Ibabe**
2. **Jose Maria Llavori Romatet**
3. **Julian Gil Gartzia**

OÑATIKO ONENA

Jose Ramon Txintxurreta

ALPINISMOA

1. **Iñaki Idigoras**

DENUNTZIA

1. **Jokin Astigarraga**
2. **Javier Pedro Fernandez**
3. **Josu Garai Ibabe**

OÑATIKO ONENA

Iñaki Idigoras

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)

> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa

Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

Zeharkaldi ikastaroa egingo dute eski sailekoek

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko eski sailak gertu ditu denboraldirako irteera eta ikastaroak. Aste bukaerako hiru irteera, aste osoko bat eta eski zeharkaldiko beste bat antolatu dituzte. Guztietan izena emateko epea urtarrilaren 10ean zabalduko dute. Astelehenetan eta eguaztenetan egongo dira Aloña Mendi tabernan, 19:00etatik 20:00etara.

Eski zeharkaldiko ikastaroa martxoaren 11n, 12an eta 13an egingo dute Baqueiran. Parte-hartzaile bakoitzak duen mailaren arabera hiru talde egingo dituzte: maila baxua, ertaina eta altua.

Bestalde, Baqueira Bereteko irteerak egingo dituzte urtarrilaren 28tik 30era, otsailaren 25etik 27ra eta martxoaren 25etik 27ra. Azkenik aste osoko irteera antolatu dute eski sailekoek Tignes-Val Disere estazioara, apirilaren 22tik 30era.

Eguneko zentroko jaia hilaren 29an egingo dute

M.B. | OÑATI

Urtea bukatu aurretik, eta Gabonak ospatzeko, jaia egingo dute Eguneko Zentroan. Hain zuzen ere, hilaren 29an. Hango egoiliarrak, euren senitartekoak, hango langileak, udal ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak bilduko dira 11:00etatik aurrera. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Musika ere protagonista izango da: Jose de Azpiazu musika eskolako trikiti eta akordeoi taldeetakoek emanaldia egingo dute, eta festan parte hartzen dutenek dantza egiteko aukera izango dute.

Festa eguna bukatzeko, luncha egingo dute guztiok elkarrekin.

NIRE USTEZ

JOXAN LARRAÑAGA

2010eko Gabonak

Badatoz aurten ere Gabonak. Oraingoan, krisialdian erabat sarturik. Batzuk lanik gabe (poltsikoari begiratu behar!) eta lanean jarraitzen dutenek ez diote poltsikoari horrenbeste begiratuko eta, beharbada, urtero gutxiago gastatzeko egiten ditugun ahaleginak ahaztu egingo zaizkie, eta hortxe eroriko dira aurten ere kontsumismoaren atzaparretan.

Gabonak bizitzeko era ezberdinak daude: batzuek festari ematen diote garrantzia: opariak egin eta jaso; familiarekin, lagunekin, jatordu bikainak egin, urte berria ospatu xanpainarekin, Errege Eguneko opila jan... Beste batzuek ohiturak gogoratu eta biziko dituzte: Olentzero, Gabon kantak, Jaiotza egin eta Jaiotzen ikustaldiak egin, Erregeen Kabalgata. Beste batzuentzat, egun hauetan bizi den *Bakearen eta justiziaren* mezua da garrantzitsuena. Beste askorentzat, erlijioa bizi dugunondako, urtean dauden jai nagusienetako bat dira Gabonak. Kristau garenok, alegia. Jainkoa gizon egina. Pozteko arrazoi handia: Jainkoa hain gertu izatea. Jainko apala, xumea, estalpe batean jaiotakoa ostaturik eman ez zietelako. Garai hartan pobreenak ziren artzainen artean jaioa. Hauek izan ziren honen berri lehenengoak izan zituztenak eta bigarrenak atzerritik etorri ziren hiru azti. Irakurle: Gabonetan zentzuz eta pozik, itxaropenez eta elkartasunez bizitzera gonbidatzen zaitut.

"Gabonak zentzuz eta pozik bizi beharko genituzke"

Abenduaren 18an Eskuratu BERRIArekin zure kioskoan

xabier lete

Xabier Letek 1974. urtean kaleratu zuen bakarkako lehen disko luzea, CD formatuan



Xabier Ugarte | Musikaria

"Biziko balitz, Jose de Azpiazuk oso gustura irakurriko luke liburua"

Musikari oñatiarrak 'Euskal musika gitarraz' delako liburua argitaratu du, 80 partiturarekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Xabier Ugartek *Euskal musika gitarraz* delako liburua idatzi du. Abenduaren 2an aurkeztu zuen Donostiako Koldo Mitxelenan.

Durangon egon zara liburuarekin. Zer moduz joan da azoka?

Partitura liburuentzako ez da Durangoko Azoka lekurik aproposena, baina liburu batzuk saldu ditut. Dena den, gehiago saldu genituen egun berberetan Zarautzen egin zuten Gitarra Jaialdian. Gitarra klasikoari buruzko ikastaro trinkoa zen, eta hori da leku naturalagoa halako liburuak saltzeko.

Gitarra klasikoko partiturak dira liburuaren oinarri. Zergatik?

Gitarra klasikoa da nire zaletasuna. Urte asko daramatzat gitarra klasikoa jotzen eta lantzen, eta gogoa nuen urte askoan bildu eta landu ditudan partiturak argitaratzeko. Donostiako Duo Seraphin argitaletxean eskaini zidaten aukera, eta ez nuen zalantzarik izan. Oso pozik jaso nuen erronka.

Xabir Ugarte. | GOIENA

Zer jaso duzu liburuan?

Gitarra klasikorako 80 pieza inguru dira. 24 autore daude, XIII. mendetik XX. mendera arte. Tartean daude Teobaldo I, Antxieta, Aritzu; barroko garaiko Larrañaga, Olague eta Gamarra; eta Oñatiko musikari Azpiazu eta Madina. Hain zuzen ere, pieza asko Jose de Azpiazuk transkribatutakoak dira, eta besteak neuk moldatutakoak. Harreman estua izan nuen Jose de Azpiazurekin, eta ziur nago gaur biziko balitz oso pozik ikusiko eta irakurriko lukeela horrelako liburua. Haren alaba Lupek asko lagundu dit eta erraztasun asko eman dizkit lana nire erara moldatzeko. Eduardo Baranzano gitarra-jotzailearen aholkuak ere jarraitu ditut. Bientzat, nire esker ona. Liburuaren hasieran, Euskal Herriaren historian zehar aurkitu ditudan gitarra aipamenekin artikulu bat sartu dut.

Gustura geratu zara?

Itxura aldetik oso dotore gelditu da: itxura ederra eta egokia dauka. Edukiaren aldetik euskal musikari buruzko mostra interesgarria dela iruditzen zait. Ez dago horrelako musika askorik argitaratuta eta gitarrazaleok badugu horrelako argitalpenen premia euskal musika eta euskal egileak ezagutzeko.

Nortzuendako liburua dela esango zenuke?

Ba, zuzen-zuzenean musika eskoletan gitarra klasikoa ikasten ari direnentzat, hasierako mailetatik eta azken mailaraino. Pieza batzuk ikasleentzat prestatuta daude, eta beste batzuk kontzertuetan emateko modukoak dira.

Zaila izan da halako liburu bat idaztea?

Urte askoko lana bildu dut eta iaz hasi nintzen argitaratzeko prestaketan. Lan nekeza eta handia da, baina gustuz egiten den lanak arinagoa ematen du. Orain, dena bukatu eta argitaratua ikusi dudanean, nekeak ahaztu egin zaizkit.

Gobernuz kanpoko erakundeen azoka egingo dute bihar plazan, Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, gobernuz kanpoko erakundeek azoka egingo dute bihar plazan. Goizean zehar herriko GKEen proiektuak ezagutzeko aukera egongo da, eta baita artisautza eta bidezko merkataritzako produktuak erosteko ere. Besteak beste, parrokiako misio taldeak parte hartuko du, eta Kolonbian egiten diharduten proiektuaren gaineko informazioa erakutsiko dute.

Herriko musikari eta abesbatza guztiak batuko dira parrokian, Gabonetako kontzertua egiteko

Herriko musikariek eta abesbatzek Gabonetako kontzertua egingo dute domekan, 19:00etan, parrokian. Hain justu ere, Udal Musika Bandak, Oñati Abesbatzak, Parrokiako Koruak, Ganbara Abesbatzak, Ganbara Txiki Abesbatzak eta Txantxiku ikastolako abesbatzak parte hartuko dute. Sarreran Hermansoloñakoak egongo dira Kolonbiako proiekturako dirua batzen.

Oñatiko ezker abertzaleak giza katea egingo du etzi plazan, "legalizazioa" lortzen laguntzeko asmoz

Oñatiko ezker abertzaleak giza katea egingo du domekan, plazatik abiatuta. 19:00etan bilduko dira, eta euren asmoa da "ahalik eta kate luzeena" egitea. Antolatzaileek diote giza katea arrakastatsua izatea "ezinbestekoa" dela, eta herritarren babesa "beharrezkoa" dela legalizazioa lortzeko. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte.

The Graffiti Classics: musika eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna domekan Santa Ana antzokian

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, The Graffiti Classics taldeak ikuskizun berezia egingo du domekan, 19:30ean, Santa Ana antzokian. *16 cuerdas con mucho ritmo* delako emanaldirako sarrerak aldez aurretik eros daitezke 10 eurotan, kultura etxean. Musika, umorea eta koreografia uztartzen dituen ikuskizuna egiten dute The Graffiti Classics taldekoek.

ZELAIA ONATI
www.zelaia.net

40 urte elkarrekin
1970-2010

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu. Horietako baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!

Santo Tomas ospatuko du Basotxok martitzenean

Mus txapelketako finala jokatuko dute eta II. kantu eta narrazio lehiaketako sariak banatu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ospakizunez ospakizun dabiltza Basotxo erretiratuen elkarteko kideak; Santa Luzia egunetik Santo Tomasera. Izan ere, astelehenean, hilak 13, aurten 90 urte betetako bazkideak omendu zituzten. Jendetza elkartu zen erretiratuen egoitzan, gehienak senideak eta lagunak, eta tartean izan ziren Inaxio Garro alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Araceli Herran. Bederatzi omenduetatik zazpik joan ahal izan zuten ospakizunera eta oso pozik agertu ziren guztiak.

Bata bestearen alboan, ilaran, eseritako omenduei dantzariek egin zieten ongietorria. Gero, erretiratuen abesbatzak *Zorionak* abestu zien guztien izenean eta omenaldi ekitaldia bukatzeko, opariak jaso zituzten. Opari-kaxa handiak banatu zizkieten eta harrituta geratu ziren omenduak.

Senideak izan zituzten lagun guztiek –seme-alabak, ilobak...– eta makina bat argazki atera guran ibili ziren. Trikitilariek girotuta hartu zuten txokolatea guztiek, Santa Luzia eguneko ospakizuna bukatzeko.

Sariak eta opariak hilaren 21ean

Datorren martitzenean, ostera, Santo Tomas eguna ospatuko dute Basotxon. Azken asteotan jokatzen dabiltzan mus txapelketaren finala izango dute lehenengo (15:30) eta ospakizuna hasiko dute gero (17:00). Basotxok antolatutako II. kantu eta narrazio lehiaketako sari banaketa egingo dute; aurten 20 abesti eta bi narrazio jaso dituzte, iaz baino gutxiago. Ekitaldian, gainera, Emilia Murillo, aurten zendu den bazkidea, omenduko dute; izan ere, iaz gogotsu hartu zuen parte lehiaketa horretan –20 abesti eta 14 erromantze grabatu zizkioten senideek–, eta saria eskuratu ere bai.

Ospakizunarekin jarraituta, oparien zozketa egingo dute gero bazkideen artean, eta bukatzeko, txistorra mokadutxoa izango dute elkartutakoek.

Aurten 90 urte betetako bederatzi bazkideetako batzuk, astelehenean egindako omenaldi ekitaldian. | M.A.

Kurtzebarriko ordezkariak agiria jasotzen, alkatearekin. | KURTZEBARRI BHI

Eskola iraunkorraren agiria eta bandera jaso ditu Kurtzebarrik

M.A. | ARETXABALETA

Eskola iraunkor edo jasangarriaren agiria jaso zuen Kurtzebarri institutuak astelehenean, Jaurlaritzak Lakuan egindako ekitaldian. Sei ikasle eta hiru irakasle joan ziren, Inaxio Garro alkatea lagun zutela, eta bertan jaso zituzten iraunkorrak direla ziurtatzen duten agiria eta bandera.

22 ikastetxeri agiria

Brasilen ekainean egin zen nazioarteko konferentzian EAEk egindako ekarpenak aurkeztu zituzten lehenengo –Gasteizko ikasle bi izan ziren konferentzia hartan–. Gero, Eskola Iraunkorra ziurtagiria banatu zieten 22 ikastetxeetako ordezkariei Ingurumen, Nekazaritza eta Arrantza sailburu Pilar Untzaluk eta Hezkuntza sailburu Isabel Zelaak. Eta bukatzeko, Eskola Agenda 21 programan egindako lanagatik errekonozimendua jaso zuen Jaurlaritzak berak, Unescoren eskutik.

Pozik itzuli ziren Kurtzebarri BHIko ordezkariak, eta orain, jasotako bandera non jarri pentsatu beharko dute.

M.A.

Dantza eta musika emanaldiak

Leizarra musika eskolako ikasleak dantza eta musika emanaldiak eskaintzen dabiltza azken asteotan; astelehenean dantzan egin zuten Herriko Plazan eta datorren martitzenean, hilak 21, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Arkupen, bi saio eginda (18:30 eta 19:30).

Garbittu

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Santakurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

MAPFRE

FONDMAPFRE BURTSA G VIII

INBERTITU BURTSAN DIRUA ARRISKUAN JARRI BARIK

• %100eko GARANTIA
• %125eko ERRENTAGARRITASUNA

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

Jon Díaz Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Ludotekako ume eta gaztetxoek ekitaldi asko dituzte Gabonetan

- 8 eta 12 urte arteko guztiendako egitasmoa jarriko dute abian domekan
- Umeek hainbat ekintza dituzte, baita Eskoriatzako parkera irteera ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gazteria Zerbitzuak Algara ludotekarekin batera 8 eta 12 urte arteko gazteendako egitasmoa jarriko du abian aste bukaeran. Domekan, hilak 19, hasiera jaia egingo dute ludotekan, eta apirila bitartean domeka guztietan izango dute zereginen bat. Egitasmoa gaztetxo guztiei dago zabalik, ludotekako bazkide izan edo ez.

Gazteria teknikari Maider Etxanizek uste du eskaintza gutxi dituen adin tartea dela 8-12 urte artekoa: "Lagunekin irteten hasten dira, baina neguan eguraldi txarra da nagusi eta ez dute izaten nora joan". Hori horrela, apirila bitarteko domeka arratsaldeetan (17:00-19:00) ludotekan izango dute egonlekua hezitzaile bi lagun dituztela. Jaialditxoa eginda hasiko dute etzi egitasmoa, eta gero Gabonetako oporretan irteera bi egiteko aukera daukate: 23an, eguena, Bilboko jolasparkera (09:30 -18:30); eta 28an, martitzena, Gasteizko izotz pistara (15:30). Izena ludotekan eman behar da abenduaren 21erako eta 10 euro ordaindu irteera bakoitza.

Iaz Gasteizko izotz pistara irteera egin zuten gaztetxoak. | GAZTERIA ZERBITZUA

Urtarrilaren 9an, ostera, txantxa jolasak izango dituzte ludotekan eta orduan emango diete urtarrileko gainerako egitarauaren berri.

Umeendako egitaraua

Bestalde, ludotekako erabiltzaile diren umeek hainbat ekintza izango dituzte Gabonetan: hilaren 24an, Gabon kantuan aterako dira kalera, ikastetxeetako kideekin batera (10:30, Herriko Plaza); 27an, ekintza berezia izango dute ludotekan bertan (17:00-20:00); 28an, izotz pistara irteera (7 urtetik gorakoak); eta 29an, Eskoriatzako parkera goiz pasa (4 eta 6 urte artekoak). Irteeraren bat egin gura dutenek izena aurrez eman behar dute ludotekan, eta ordaindu.

Gaztelekuko ekitaldiak

Atxagazte gaztelekuko kideek ere hainbat ekintza egingo dituzte abenduko azken astean. Ikasturtea gogotsu hasi zuten eta ordutik hona hainbat ekitaldi egin dituzte, tartean Euskararen Egunari eskainitako aste bukaera. Oraingoan, jolasak, jaia eta irteera izango dituzte, eta urtarrilean ohiko ordutegia.

GAZTELEKUKO EGITARAUA

ABENDUA

Abenduak 23 (18:00) Sukaldaritza ikastaroa.

Abenduak 17, 18 eta 19 (18:00) Opariak paperean biltzeko ikastaroa.

GABON JAIAK

Abenduak 27 Izotz pistara irteera.

Abenduak 28 (18:00) Beldurrezko arratsaldea.

Abenduak 29 (18:00) Jinkana jolasa.

Abenduak 30 (17:00) Urte bukaerako festa eta kontzertua.

Izotz pistara joateko aurrez eman behar da izena, gaztelekuan edo Gazteria Zerbitzuan.

Saria emango dio Udalari Aldundiak Kirol Zerbitzuagatik

Jakinarazoi dute Udaleko Kirol Zerbitzuak saria jasoko duela Foru Aldundiaren eskutik; hain zuzen, gehien nabarmendu den kirol zerbitzuaren Kirol Saria jasoko du. Aldundiak antolatutako Kirol Sarien banaketa ekitaldia abenduaren 22an, eguaztena, (19:00) izango da, Donostiako Kursaaleko Kamara aretoan.

OHARRAK

BUTOH DANTZA
Jaiki elkarteak antolatuta, Butoh dantza ikuskizuna izango da gaur Arkupen (19:00). Kontakt-inprobisazio ikuskizuna ere eskainiko dute.

BIDEZKO MERKATARITZA
Hiruatx elkarteak bidezko merkataritza denda jarriko du bihar Durana kalean.

GIZA KATEA
Ezker abertzaleak deituta giza katea egingo dute bihar (19:00) Herriko Plazan, *Orain legalizazioa!* lelopean.

AKORDEOI KONTZERTUA
Aretxabaletako akordeoi orkestrak emanaldia egingo du bihar (20:00) Arkupen.

Luis Ezeiza ikastetxeari buruzko irudiak jasotzen dabiltza, erakusketa antolatzeko

Eskolak 40 urte beteko ditu laster eta hainbat ekitaldi egingo dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Herriko Luis Ezeiza ikastetxeak 40 urte beteko ditu laster, eta, hori dela-eta, hainbat ekimen antolatuko dituzte datozen hilabeteotarako; tartean, eskolaren bilakaera islatzen duen argazki erakusketa egitea erabaki dute, eta horretarako, argazkiak dituztenendako deia zabaldu nahi izan dute.

Luis Ezeizako zuzendari Arrate Landak azaldu digu erakusketa udaberri aldean egiteko asmoa dutela eta urtarrilaren amaiera bitartean eskolako argazkiak batu nahi dituztela. Etxeko kutxetan horren gaineko irudiak gordeta dituztenei horiek kultura etxera, Ibarraundi museora edo ikastetxera bertara eroan ditzatela eskatu die. Horrekin batera, jakinarazi du argazki horien kopia bat egingo dutela, eta jarraian, jabeari itzuliko dizkietela. Landaren esanetan: "Jasotzen ditugunekin eta dagoeneko dauzkagun argazkiekin erakusketa polita egingo dugu kultura etxean. Ikastetxearen bilakaera ezagutarazteko eta oroitzapenak gogorarazteko ekimen egokia dela iruditzen zaigu".

Dena dela, erakusketa horrek helburu bikoitza duela aipatu du zuzendariak; hain justu ere, Eskoriatzako argazki zaharren artxiboa osatzea. Hortaz, erakusketa amaitzean artxibora bideratuko dira irudi horiek.

DATUA

196

IKASLE

Horixe da Luis Ezeiza ikastetxeak gaur egun duen ikasle kopurua.

Hitzaldiak

Oraindik guztiz zehazteke badute ere, Landak esan digu bestelako ekitaldiak antolatzeko asmoa ere badutela; tartean, hitzaldiak. Zuzendariaren arabera: "Besteak beste, nondik gatozen, non gauden eta etorkizunari begira, nahi dugun eskola motaz jardungo da hitzaldi horietan. Azken finean, ikastetxea ezagutaraztea nahi dugu horiekin".

Luis Ezeiza ikastetxeak, gaur egun, 196 ikasle ditu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Horretarako, 25 irakasle, hezitzaile eta logopeda bana ditu. D hizkuntza-ereduan ematen ditu eskolak; hain justu ere, bai irakasteko eta baita komunikatzeko ere, euskara erabiltzen du hizkuntza nagusitzat.

OHARRAK

WII TXAPELKETA ETA TAILERRA GAZTELEKUAN

Astero moduan, ekintzak izango dituzte oraingoan ere gaztelekuan. Bihar wii txapelketa egingo dute han, 18:00etan; eta domekarako sukaldaritza tailerra gertatu dute, ordu berean.

IAZKO SILBESTRADEN GAINEKO ERAKUSKETA

Joan den urteko bi Silbestradetan ateratako argazkien erakusketa dago kultura etxean abenduaren 31era arte. 18:00etatik 20:00etara bisita daiteke.

ATXORROTZEKO INDUSKETEN ERAKUSKETA

Atxorrotzen egindako induskетei buruzko informazioa eta aurkitutako aztarnak ikusgai egongo dira urtarrilaren 14ra arte museoan, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Bilboko Gabonetako parkerako sarrerak salgai

M.B. | ESKORIATZA

Bilboko Gabonetako parkera joateko aukera izango dute aurten ere herriko neska-mutikoek. Interesatuek Tortolis ludotekan eman behar dute izena martitzena, hilak 21, baino lehen. Gazteria Zerbitzutik jakinarazi digute irteera datorren eguenean, abenduaren 23, izango dela. 09:30ean irtengo dira umeak herritik, eta 18:30ean itzuli.

8 eta 10 euro bitartean

Horrekin batera, azaldu digute 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako dela irteera, eta ludotekako bazkide ez direnak ere joan ahal izango direla. Prezioa, dena dela, ez da bera izango: bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, 10.

NIRE USTEZ

DORLETA KORTAZAR

Aitzorock II, eta III eta IV...

Aitzakia gutxi behar izaten dogu herrixen zerbait antolatzen danien, alkarren ingurura bildu eta disfrutetako. Zapatukua moduko ekimenak antolatzen dienien giro ezberdina egoten da herrixen, beti sentitzen dogu urduritasun puntu bat, dana ondo urtengo ete dan.

Zapatukua primerakua izen zan: Pastors of Muppets taldiak, Bordeletik etorrita, begi bistakua zan eurak be gure artien gustora ibili ziela. Oso proposamen originala da eurena, 14 haize instrumentu Metallica, Iron Maiden eta Su ta Garren bertsioak egiten... *Jo ta Ker*-en bertsiñua itzela!!

Zea Mays, indartsu eta goxo. Diska guztixak Durangon saldu ta ezer barik etorri zien gurera! Gatibu be ederto; oholtza gaineko espektakulua bezain ikusgarrixa izen zan gaztetxoak eta heldutxoak elkarrekin dantzan, saltoka eta abesten ikustia. Eta bukatzeko Amaiur, San Pedrotako izarrak berriro be danok dantzan jartzia lortu zauien.

Eta horretarako 50 pertsonatik gora jo ta su lanien. Halakotan, laguntza eske etorriz gero, ezin ezetzik esan, lana zenbat eta gehixaun artien banatu, atseginaua egiten da-ta. Eskerrak hemendik Aitzorrotz elkartiai, lanien ibili zienei, kontzertuaz disfrutau zauienei, eta inguruko biztanliei euren pazientziagatik.

Musika eskolakoen Gabonetako kontzertua dago etzi

Gabonetarako astebete baino ez da falta eta horrekin lotutako ekimenak egiten hasi dira dagoeneko herrian. Beheko Errota musika eskolako ikasleek, esaterako, etzi, domeka, eskainiko dute urteroko Gabonetako kontzertua. Herriko parrokian egingo dute esandako musika emanaldia, 19:00etan.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

LAGUNAK DASTALEKU
Gustura egoteko!
Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA
943 71 40 63

Santo Tomas eguna ospatuko dute gaztetxoek

A.E. | ANTZUOLA

Eskolak eta Pausokak antolatuta Santo Tomas eguna ospatuko dute herriko gaztetxoek datorren martitzenean. Eskolako patioan egingo dituzte ospakizunak, 14:30etik aurrera. Orain arte pilotalekuan egin izan dute Santo Tomas feria, baina oraingoan, eskolako patio berrituan egingo dute. Ikasleek eramango dituzte etxean dituzten animaliak; bestek beste: arrainak, katuak, untxiak... "Ardiren bat ere ekarri izan dute", azaldu dute eskolako arduradunek. Gainera, etxean egindako postreak eramango dituzte eta behin feria amaitutakoan dastatzea egingo dute.

6. mailako ikasleek, berriz, saski berezi bat egin dute eta zozketatu egingo dute, urte amaierako irteera berezirako dirua lortzeko.

Futbol taldeak Azpeitian jokatuko du

A.E. | ANTZUOLA

Antzuolak Lagun Onaken aurka jokatuko du domekan, 16:30ean. Erabakigarria izango da lehia, batez ere taldearen animuak nola dauden ikusteko. Izan ere, joan den aste bukaeran galdu egin zuten Juanina Garairen mutilek Getariakoren aurka (3-1). Bederatzi partidu galdu gabe egin ondoren taldeak ze jarrera erakusten duen ikusteko balioko du lehiak.

Antzuola sailkapeneko hirugarren postuan dago orain, 25 punturekin.

Bestalde, urtero moduan Xabier Barkeroren omenezkoa jokatuko dute Gabonetan. Abenduaren 26an izango da norgehiagoka. Antzuolako beteranoek Barkeroren omenezkoa jokatuko dute Eztalan, 11:30ean.

Gabon doinuak eskainiko dituzte herriko musikariek

Astelehenean izango da Musika Eskolako gaztetxoen kontzertua Torresoroan, 18:30ean

2009an Musika Eskolak egindako udaberriko kontzertua. | GOIENA

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Musika Eskolako gaztetxoek kontzertua eskainiko dute datorren astelehenean. Gabonetako kontzertua izango da eta herriko musikariek parte hartuko dute.

25 ikasle inguru antzuolarrak izango dira eta gainontzekoak bergarakoak izango direla azaldu dute Musika Eskolako arduradunek. Urtero egiten duten kontzertua da Gabonetakoa.

Soka taldea

Musikariak taldetan banatuta igoko dira Torresoroako oholtza gainera. Lehenengo, hari taldekoak igoko dira; ondoren, txistulariak, gitarra-jotzaileak eta piano-jotzaileak igoko dira. Gainera, pianoari laguntzen flautak eta saxoak ere izango dira.

Amaitzeko, abesbatza

Emanaldia amaitzeko, ahots teknikako eta koraleko ikasleek kontzertua eskainiko dute. Nagore Sanz izango da abesbatzaren zuzendaria.

Esan behar da aurten trikiti eskolakoek ez dutela parte hartuko Gabonetako kontzertuan. 18:30ean da hitzordua eta ordubete inguru iraungo du.

AMAIA TXINTXURRETA

OHARRAK

ERAKUSKETA

Bihar eta etzi argazki erakusketa egingo dute Olaran etxean. Urteko hainbat ekintzatan ateratako argazkiak izango dira. Erakusketak ateak zabalik izango ditu 18:30etik 20:30era.

DEIALDIA

Ezker abertzaleak deituta giza katea egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan. 13:00etan izango da hitzordua. *18an babesa eman, legalizazioa orain!* izango da giza katearen leloa eta helburua, berriz, legalizazioari babesa ematea.

KZGUNEA

Martitzenetan egongo da KZgunean tutorea: hain zuzen, abenduaren 21ean eta abenduaren 28an. Ordutegia izango da 09:00etatik 13:00etara.

Presoendako materiala jasotzeko azken eguna da gaur, egubakoitza

Elizbarrutiko Espetxe Pastoraltzak egin du deia. Kartzelan preso daudenendako materiala jasotzea da asmoa. Horretarako azken eguna gaur izango da: 18:30etik 19:30era eraman beharko da materiala parrokiako salara. Jasoko dute, besteak beste: barruko arropa, galtzerdiak, gela...

Herriko 71 ahots Interneten

Badiharduguk *Ahotsak.com* aurkeztu zuen joan den hilaren 2an. Herriko 71 hizlari edo lekukok hartu dute parte, oraingoz, *Ahotsak.com* proiektuan; eta kontsultatzeko moduan daude Antzuolako nagusien 1.084 pasarte. Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea da asmoa.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

ABENDUKO ZOZKETA

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: *kluba@goiena.com* | Kuota: 48 €.

UMEENTZAKO LIBURUA
Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
PAMIELA argitaletxea

UMEENTZAKO IPUINA
Bidali KLUBA ipuina [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Ikastolen Elkartea



UMEENTZAKO DVD-A
Bidali KLUBA DVD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
ELHUYAR fundazioa



UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
Ikastolen Elkartea

ERREMEIXUAK DVD-A
Bidali KLUBA ERREMEIXUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
gizarte kutxa · Bergarako Udala · goiena"

DANBAKAKO PACKA
Bidali KLUBA danbaka [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
DANBAKA

SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
26 HAZBETEKO TELEBISTA
- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0
EROSKI

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Ekainetik 600 litro olio batu dituzte edukiontzian

Astean behin egiten dute bilketa; Arrasateko Eko3 enpresakoak pozik daude jasotako erantzunarekin

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Olioa batzeko edukiontzia ekainaren erdialdean jarri zuten Aramaion eta azarora bitartean 600 bat litro olio jaso dituzte. Horiexek dira bilketaz arduratzen den Eko3r enpresak emandako datuak.

Arrasateko kooperatibatik esan digutenez, Aramaion harrera oso ona izan du Pedro Ignacio Barrutia kalean jarritako edukiontziak: " Sistema edo zerbitzu honen gakoa Eko3r-k duen ontzi berezia da. 1.000 pote inguru banatu genituen Aramaion, herritar guztiengana helduz, eta makinara eraman besterik ez daukate. Sistema garbia, praktikoa eta erosoa da". Udalak bere garaian banatutako pote berdeak erabili behar dira. Bilketa astean behin egiten dute Aramaion.

Betiere, sukaldeko olioa da edukiontzian jasotzen dutena eta olio berorik ez isurtzea eskatzen dute. Era berean, poteko tapa ondo ixtea ezinbestekoa da. Birziklatutako olioa biodiesela egiteko bideratzen dute gaur; bien bitartean, Eko3r beste irteera posible batzuk ikertzen ari da.

Adin guztietako erabiltzaileak

Erabiltzaileei dagokienez, adin guztietakoak direla azpimarratzen dute Eko3r-ko arduradunek; "Gaztetxoek askotan bultzatzaile lana egiten dute, gurasoak eta aitaita -amamak birziklatzera animatuz. Oraindik ere, beharbada, emakumeak gehiago sentsibilizatuta daude gai honekin, baina denborarekin herritar guztiengana heltzea da helburua. Sistema probatu dutenek, gazte zein adinekoek, praktikotasuna azpimarratu dute. Erabiltzeko erraza eta garbia denez, gehienek gustuko dutela frogatu ahal izan dugu". Herritarrak kontzientziatzea eta informatzea da helburuetako bat. Olioa birziklatuta, besteak beste, ura kutsatzen duen hondakinaren deuseztapena eta araztutako uraren berrerabilpena lortzen da.

Gaur egun Arrasaten eta Aramaion daude olioa batzeko edukiontziak, eta urte berriaren hasieran Debagoieneko gainerako herrietan jarriko dituztela aurreratu dute.

Pedro Ignacio Barrutia kaleko edukiontziak erantzun ona izan du. | E.M.

Bilboko Gabonetako haurren parkera irteera hilaren 30ean

E.M. | ARAMAIO

Gaztetxoei zuzendutako irteera iragarri du Udalak abenduaren 30erako. 09:15ean aterako da autobusa Aramaiotik eta izenematea hurrengo eguaztenera arte, hilaren 22ra arte, dago zabalik, udaletxean. 7 euro ordaindu behar dira, eta, 10 urtetik beherako neska-mutikoen kasuan, helduren batekin joan beharko dute.

Gabon kantuak bihar Legution

Bestalde, Aramaioko talde batek parte hartuko du bihar, zapatua, Legutioko elizan izango den Gabon kantaldian. Otxandio, Oleta, Ubidea eta Legutioko bertako kantariek ere hartuko dute parte; 19:30ean hasiko da kantaldia.

Domekarako, berriz, Olentzeroren etxera, Izenadubara, joateko irteera antolatu du Zuiako Koadrilak. Mungiarako autobusa 16:30ean aterako da Aramaiotik.

'Iragana iragan' antzezlana

Bestalde, Doke antzerki taldeak *Iragana iragan* antzezlana eskainiko du abenduaren 26an kultura etxean, 20:00etan. Umorezko lana da, Josemari Velez de Mendizabalek aurten ospatzen den Mondragon hiriaren sorreraren 750. urteurrenaren harira idatzitakoa. Itziar Rekaldek zuzendu du antzezlana eta estreinaldia bihar, zapatua, Arrasaten egingo dute.

Errenta-simulagailua Diputazioaren 'Alava.net' atarian

Arabako Ogasunak *Alava.net* atarian jarritako errenta-simulagailuak aukera ematen du PFEZren aitorpenerako kalkuluak egiteko. Joan den astea ezkero errenta simulagailura sartu ahal dira herritarrak, hurrengo errenta aitorpenaren emaitza kalkulatu eta behar diren erabakiak hartu ahal izateko.

Aramaixo Ekimenaren bilera astelehenean udaletxean

Herritarren parte hartzean oinarrituta, talde eta eragile ezberdinek hartzen dute parte Aramaixo Ekimenean. Orain, egitura juridikoa eman nahi zaio eta hori dela eta, bilera deitu dute astelehenerako, hilaren 20rako. Udaletxean izango da batzarra, 19:00etan. Parte hartzeko dei egin diete gaiarekin interesatutako herritar guztiei.

'Horton' animaziozko filmaren emanaldia domeka arratsaldean

Haurrendako zinema emanaldia izango da domekan, hilaren 19an, kultura etxean. *Horton* animaziozko filma eskainiko dute, 17:00etan. Elefante txiki eta jostalaria da Horton; laguntza eske etorriko zaizkio lagunak, eta oihaneko arriskuei aurre egin beharko die orduan. 83 minutuko iraupena du filmak.

LEINTZ GATZAGA

Etxeak egiteko interesa du Udalak eta herritarren iritzia jakin gura du

- Herrian interesik ez badago Debagoienera zabalduko du eskaintza
- Ur depositua egindakoan Arlaban gaineko plana aurrera joango da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Agintaldia bukatzeko sei hilabete inguru geratzen dira, eta Eusebio Villar alkatea Goiena Telebistako *Magazinea* saioan izan zen martitzenean. Jakinarazi zuen ez duela asmorik alkatetzara berriro aurkezteko, baina orain artekoak izan zituen berbagai.

Datorren urteko aurrekontua goiz onartzera behartu dituena –abenduaren 1ean onartua– mailegu eskaera izan dela argitu zuen; izan ere, inbertsioetarako ez dago dirurik eta mailegu bidez egingo dituzte proiektuak; ur-depositua-rena, esaterako. Proiektu hori Etorlurren eskuetan dago, eta jakinarazi zuen egunotan egingo dutela lan deialdia: "Urtarrilean esleitu eta otsail bukaeran lanean hasiko direla uste dut. Lanak egingo dituen enpresak esango du zenbat iraungo duten, baina gehienez 8-10 hilabete". Depositu horrek Goierri auzo inguruan eta Gaztainuzketan duten ur gabezia konponduko du, eta, gainera, Arlaban gaineko plana aurrera eroan ahal izango dute. Plan horri esker Jakionek egoitza berria izan dezake Arlabanen: "Behar-beharrezkoa da Jakionen aldaketa, orain oso leku gutxi daukatelako". Eta turismoak ere izango du lekua: "Turismoa garatzeko lursaila jarri duen udal bakarretakoak izango gara", esan zuen alkateak.

Bestalde, astean bukatuko dituztela pilotalekuaren berritze lanak argitu zuen. Kristalarekin guztiz itxi dute eta herritarrak gustura geratu direlakoan dago: "Datorren urterako pilota txapelketak egiteko interesa agertu dute, behintzat".

Gatz museoa indartu beharra

Rosa Urretak, Sorginak emakumeen elkarteko kideak, orain arteko lana eskertzearekin batera gatz museoa bultzatzeko eskatu zion Villarri. Alkateak esan zuen lan batzuekin hasi direla, eta bi fase egin ere bai

Eusebio Villar, martitzenean, *Magazinea* saioan. | ENEKO AZKARATE.

"Txirrindularitzari eskainitako erakusketaren kontua geldi dago"

–Espainiako Gobernuak eta Ereinek bideratutako laguntzei esker–, Santa Kolunbako ermita konpondu esaterako, museoko sarrera eta harreragunea izan dadin. Hala ere, onartu zuen beste bi fase behar dituela inguru horrek behar bezala txukuntzeko. Eta argitu zuen plan orokorrago baten aldekoa dela: "Txirrindularitzari eskainitako erakusketaren kontua ere hor daukagu, aurreproiektua eginda, baina geldi. Dorletako santutegian izango litzateke, eta Elizak zer esango zain

"Errepideko bihurguneek konpondu beharra daukate"

gaude". Hala, museoaren inguruan txirrindularitza eta artisauak ere kontuan hartuta osatuko litzatekeen proiektua garatzearen alde agertu zen.

Eugenio Otsoa gatz museoak bisitariak ekartzen dituela herrira uste du: "Baina seguru nago Debagoienean oraindik askok ez dutela ezagutuko", bukatu zuen. Era berean, onartu zuen herrian dauden ostalaritza negozioek ez dutela bizi unerik gozoena: "Larri antzean dabiltzala uste dut, baina kontua orokorra da, edonon dabiltza larri eta".

Arau subsidiarioak egiteko

Herrian etxe batzuk egiteko interesa dutela ere jakinarazi zuen Villarrek. Sei egiteko asmoa dago: erdiak Udalaren lurretan eta beste erdiak eraikuntza enpresa batenean: "Herritarrek interesik duten jakin nahian galdeketa egin dugu. Nik izena ematera animatuko nituzke interes apur bat dutenak, eta gero erabakiko da zelakoak egin Udalarenean... Interesik ez badago, bailarara zabalduko dugu deialdia". Lehenago egin behar zirela etxeok onartu zuen, "gazteak alde eginda daudelako", baina baten batek gura dezakeela uste du.

Gurel guraso elkarteko kide Dorleta Elkorobarrutiak galdetu zion datorren agintaldiko udalbatzak zein lanekin jarraitu gurako lukeen. Eta alkateak erantzun zion "arau subsidiarioek buelta bat" emateko premia dutela: "Baina ez da batere samurra lan hori. Ikerketa geologikoa egin beharko litzatekeela aurretik uste dut, eta horretarako ez dago laguntzarik. Herriak norantz jo beharko lukeen asmatzea ez da batere samurra".

Bestalde, wi-fia edo banda zabala noiz iritsiko den Gatzagara jakin gura izan zuen Gureleko kideak. Euskaltelekin harremanetan egon direla erantzun zion, eta azterketatxo bat ere eginda daukatela Euskaltelekoek, baina ez dakitela kontua aurrera joango den onartu zuen.

Bukatzeko, herrirako sarreretan Aldundiak jarritako semaforoen gainean jardun zuen: "Herriko sartu-irtenak lasaiago egiteko zerbait behar genuen eta herritarrak gustura daude orain. Gainerako erabiltzaileendako eragozpena izan daiteke, baina beste modurik ez dugu asmatu. Hala ere, nik uste dut errepideko bihurguneek dutela konpontzeko behar handiagoa; izan ere, Gatzagara doan errepide zaharra orain dela 200 urte bezala dago".

Gatzagarren kezkak entzun ditu Uribarren diputatuak

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Martitzenean izan zen Landa Ingurumeneko Departamentuko diputatu Rafa Uribarren Gatzagan. Gipuzkoa Eraikitzen egitasmoak antolatutako bisita zen eta Aldundiak hiru urtetoan egindako Kudeaketa Plana azaldu zien elkartutako 16 herritarri. Haiek, ostera, kezkak agertu zizkioten.

Errepidea eta bidegorria

Eusebio Villar alkateak Gipuzkoako hirien eta herri txikien arteko orekarik eza aipatu zion: "Batez ere azpiegiturei dagokienez. Errepidea hobetu beharra dago, baina laguntzak ez dira iristen". Rafa Uribarren diputatuak azaldu zuen Aldundiaren betebeharra herri txikiak azpiegituraz hornitzea dela: "Hori delako herri txikietako herritarrak inguruko herrietara bizi izatera ez joateko eta herri txikiak bizirik mantentzeko modua".

Bestalde, herritar batek bidegorriaren egitasmoa zelan dagoen galdetu zuen. Eta beste batek garraio sarearen inguruko hausnarketa egin zuen: "Ez daukagu bidegorririk, garraio publikoaren ordutegia mugatua da, herritik auto mordoa pasatzen da, autobide garestia... Horren aurrean, garraio sistemarik eraginkorrena autoa da". Diputazioaren helburua 400 kilometroko bidegorri sarea eraikitzea dela adierazi zuen Uribarrenek, eta dagoeneko ehun kilometro eraikita daudela. Garraio sarearen gainean, herri txikietan aplika daitezkeen "ideia berritzaileak behar direla" azpimarratu zuen.

Bukatzeko, baserritarren egoeraren gainean jardun zuten eta bat etorri ziren egoera "kezkagarria" dela esatean. Gatzagak 32 baserriko errolda du, eta horietatik oso gutxi bizi dira baserriaren ustiapenaz. Baserritarren bizi iraupena ziurtatzeko "instituzioen inplikazioa" beharrezkoa dela azpimarratu zuen Uribarrenek.

ELGETA

Berrikuntza garrantzitsuak aurten Gabon jaietako egitarauan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gabonetan egitarau zabalagoa eta landuagoa izango dugu aurten. Elkarlanean aritu dira Udala, ludotekako eta gaztelekuko hezitzaileak, jaio berria den Txirikil aisialdi taldeko kideak, Maala Guraso Elkartea zein musika irakasleak, eta hainbat gauza berri egiteko aukera eman du horrek. Berrikuntzen artean, abenduaren 23an, Mari Domingik egingo duen ipuin kontaketa saio dago. 11:00etan abiatuko dira umeak Intxortara Olentzeroren bila eta mendian Mari Domingirekin egingo dute topo.

Gabonetako haur parkean ere nobedadeak egongo dira aurten. Hilaren 27tik 31ra bitartean egunero egongo da ekitaldiren bat. Puzgarriak, jolasak eta tailerrak, euskal dantzak, film emanaldia, txotxongilo ikuskizuna... Bestalde, hilaren 30ean gaztetxoek disko festa eta karaokea izango dituzte. Skate erakustaldia urtarrilaren 3an egingo dute aurten eta izena eman beharko dute bost urtetik gorako interesatu guztiek. Urtarrilaren 5ean, berriz, sorkuntza erakustaldia egingo dute umeek Espaloian. Egitaraua martitzenean jasoko dute umeek Herri eskolan.

OHARRAK

KIROLA

Gaur, 19:00etan, jokatuko dira pilota txapelketako finalerdiak. Aurretik, 17.30ean, umeen Gabonetako pilota txapelketako lehenengo norgehiagokak jokatuko dira. Bestalde, zabalik dago hilaren 31ra bitartean Elgetako III. frontenis txapelketan izena emateko epea. Prezioa bikoteko 10 euro da. Izenemateak Espaloian egin behar dira.

GARAGARDO FESTA

22:00etan emango diote hasiera bihar, zapatua, gaztetxean. Kontzertua egingo dute No Hope, In Your Face, Robel Roots eta Deskankiks taldeek.

BISITA MIZPIRUALDERA

Sei elgetar daude uneotan Mizpirualde egoitzan. Urteroko bisita hilaren 22an egingo diete. Parte hartu nahi izanez gero, deitu udaletxera: 943 76 80 22.

ZIKLO-KROSA

"Munduko txapelketetan egoten diren zirkuituen antza du gureak"

Biharko, zapatua, ziklo-kros lasterketa antolatu dute Oñatin

XABIER URTZELAI | OÑATI

Munduko ziklo-kros txapelketaren testigu izandakoak dira Oñatiko San Martingo belardiak (1953an). Hala, dagoeneko 44 urte pasa dira Oñatin nagusien azken ziklo-kros lasterketa antolatu zutenetik, 1966an egin zuten-eta azken proba; 80ko hamarkadan gazteen lasterketaren bat izan zen, baina ez nagusiena. Eta zapatuan, berriz, kadeteak, gazteak eta master kategoriako ziklistak ibiliko dira, berriro ere, Aloña Mendiko ziklismo saileko lagunek San Martingo belardietan prestatu duten zirkuituan.

Aste barruan izan gara Pedro Irurtzunekin, zirkuitua markatzen zebiltzala: "2.500 metro inguruko zirkuitua da, eta aste barruan ez zegoen batere lokatzik. Dakitenek diote munduko txapelketetan izaten diren zirkuituen antza duela gureak. Nik esango nuke teknikoa dela, asfalto gutxi du, San Martin zuhaiztian eta ondoan dauden bi zelaitan gora eta behera ibiliko dira, eta nahiko laua da; txirrindulariek oztopo naturalak ere aurkituko dituzte", adierazi du.

Osintxun egin zuten, iaz, ibarreko azken ziklo-kros proba. | GOIENKARIA

Ibarreko ziklistak

Etxeko proba izanda, oñatiarrak gogotsu daude. Kadetetan Iker Alberdi ibiliko da; gazte mailan Iker Arkauz; eta masterretan Iñaki Barrena, Xabier Altube eta Roberto Zugasti. Gainera, Zugasti master 40 kategorian podiumeko lehen postura igo berri da. Oñatikoa Euskadiko Challengerako proba puntuagarria izango da: "Elitekoen lasterkariak faltako dira, baina poliki hasi nahi dugu, aurrekontua ere mugatua dugu-eta".

DATUA

120

TXIRRINDULARI

Hiru lasterketen artean antolatzaileek 120 ziklista batzea espero dute.

PROBEN ORDUTEGIA

10:00 Kadeteak (30 min)
11:0 0 Gazteak (40 min)
12:00 Masterrak (60 min)
13:00 Sari banaketa

ESANAK

"Elitekoak ez dira izango, poliki hasi nahi dugu-eta"

PEDRO IRURTZUN
ALOÑA MENDIKO KIDEA

TXIRRINDULARITZA

Debagoienetik pasako da 2011ko Espainiako Vuelta, irailean

2011ko Espainiako Itzuliaren aurkezpena urtarrilaren 12an egingo dute, baina dagoeneko ibilbidearen zati batzuk filtratu dira. Hala, aste barruan Vocento taldeko medioek Vueltak Gipuzkoan egingo duen ibilbidearen berri ekarri du. Honako ibilbidea izango du du gurean: Eibartik Elgetara, Bergarara jaitsi eta Elosua igota Azkoitira jaitsiko dira. Zumarraga eta Legazpi pasata Udana igo eta Oñati zeharkatuko dute, handik Arrasate aldera joateko.

FUTBOLA

Hirugarren derbia jarraian, oraingoan Aretxabaletan

Domekan jokatuko dute (16:30, Ibarra futbol zelaia) ohorezko erregional mailako ibarreko taldeen arteko derbia. Eta hirugarrena izango da jarraian, Aretxabaleta (20) eta Aloña Mendi (12) zein baino zein gehiago.

Joan den asteko garaipenak indarberrituta (0-4), Bergarak Trintxerpe izango du bihar bisitari (15:30). Mondrak, berriz, Idiazabalen zelaian (zapatua, 16:30) batu nahi ditu joan den asteko derbian irabazi ez zituen puntuak.

ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu seihilabetean interes barik.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagutgaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

2011

zorion

hator **etxera**

Gabon

olentzero begi gorri

txipli gabon gaba

txapla **zorionak**

pun

urte berri on

merry christmas

HORRA! **HORRA!** **elurra** mara mara

OPORRAK eguberri on

bon nadal **elkarlanean**

zorionak ikastolak AURRERA

Urte berri on feliz año nuevo

Joyeux Noël ametsak

Frohe Weihnachten din dan **don**

OPARIAK

gure **olentzero** HORRA! **HORRA!**

gabon **zoriontsuak**

2011

ARANZADI *ikastola*
Kalitatezko Euskal Heziketa

Arizmendi
ikastola

TXANTXIKU
IKASTOLA

www.aranzadiikastola.org www.arizmendi.eu www.txantxikuikastola.net

DOKE Antzerki Taldeak Iragana iragan obra eramango du antzokietara 2010eko abenduan.

Mondragon hiria sortu zela 750 urte betetzen direnean, DOKEk efemerideari heldu nahi izan dio, umorezko klabean. Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako antzezlana gain hartuta, Arrasate / Mondragón binomio itxuraz gatazkatsua aurkezten du taldeak, Itziar Rekalderen zuzendaritzapean.

Emanaldiak

ARRASATEN:
AMAIA antzokian, abenduaren 18an eta 19an, arratsaldeko 8etan.
Sarrerak: 10 euro. Txarteldegian salgai, abenduaren 16an eta 17an eta saioa hasi baino ordubete lehenagotik. Baita Zabaleta eta Lore lurrin-dendetan, zenbait egun lehenagotik.

ARAMAION:
Udal kultura etxean, abenduaren 30ean, arratsaldeko 8etan.

ARETXABALETAN:
ARKUPE kultura etxean, abenduaren 30ean, arratsaldeko 8etan.

Dokekideak:
Mariasun Pagoaga, Marga Merkader, Josu Jauregi, Elena Velez de Mendizabal, Mikel Irastorza, Itziar Rosado, Arantza Ezkurra, Eugenio Etxebeste, Marixabel Arsuaga, Mikel Dominguez, Josemari Velez de Mendizabal eta Saioa Iturbe.

Zuzendaria: Itziar Rekalde.

Babesleak:

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

Aramaioko Udala
Araba

Aretxabaletako Udala

gizarte kutxa

Laguntzaileak:

goiena

eusko media fundazioa

Mondragon Unibertsitatea

Mugarri

obenerreka

JMA
Alejandro Altuna S.A.

GABONAK + SANTAMASAK 2010

Gabonak Gabonak

Jatordu berezietarako errezeta berezia

Jostailuak aukeratzeko gomendioak

Turroia, ezaugarriak

Basarritar gabonetako produktuak

Santamasetako merkatua

Kaleko jolasak

Gabonetako dekorazioa

Gabonetako jakia

Imaki Perdigenarekin berriketaldia



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

GABONETAN NON-ZER

ABENDUA 23
URTARRILA 6

EGUENA
23

AISIALDIA

ARETXABALETA Sukaldaritza tailerra gaztelekuan
18:00etan.

ARETXABALETA PINera irteera
7-12 urte arteko umeek Bilboko PINera joateko aukera dute.

MUSIKA

ARRASATE Naiz Roxa taldea
Pasai San Juandik dator talde hori. Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Bergarako Orfeoiaren eta Gaberoren Gabonetako emanaldia
Mariaren Lagundian, 20:00etan.

OÑATI Gaztetxoendako disko festa
Sound Project DJ taldearekin. Gaztelekuan, 19:00etan.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea Mitarte kalean
Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta. 17:00etan.

GOIENA

BERGARA Bizarzurik umeen gutunak jasoko ditu
Errege Magoen laguntzaile Bizarzurik (argazkian) umeen gutunak jasoko ditu urtarrilaren 5ean, udaletxean, 17:00etan. Errege Magoak 19:00etan ailegatuko dira Bergarara, eta kabalgata egingo dute, Udal Biltegian hasita.

EGUBAKOITZA
24

OSPAKIZUNAK

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi Bergaran
Kalejira egingo dute, Udal Biltegian hasita, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA Olentzero eguneko zozketa
Zozketa egingo dute Labidean, 19:00etan. Sorpresatxo bat jasoko du irabazleak.

ANTZUOLA Olentzero kalejira eta ekitaldia egingo dituzte
Umeek eta gurasoek Olentzero kalejira egingo dute. Segidan, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin ekitaldia egingo dute, plazan, 18:30ean.

ARETXABALETA Olentzero Aretxabaletan izango da
Leizarra musika eskolako txistulariek lagunduta, Olentzerok kalejira egingo du Araba ibilbidetik (18:30) plazaraino.

ARAMAIO Olentzero Aramaion
Olentzerori ongietorria egingo diote, 18:00etan.

OÑATI Olentzero Oñatin
Otadui zuhaiztitik irtengo da kalejira egiteko, 17:30ean.

LEINTZ GATZAGA Olentzero eguna
Etxerik etxe abesten ibiliko dira ume eta gurasoak. Elkartean bazkalduko dute, eta bazkalostean Olentzero etorriko da.

ARETXABALETA Gabon kantuak
Herriko gurasoek eta haurrek, baserritar jantzita, Gabon abestiak kantatuko dituzte.

ESKORIATZA Olentzeroren gaineko ospakizunak
Herriko Plazan Olentzerorendako gutunak batzen egongo dira laguntzaileak 13:30era arte. 18:00etan, Apotzagatik datorren Olentzerori ongietorria egingo diote.

ARETXABALETA Ludotekako ekintza berezia umeendako
17:00etatik 20:00etara.

MUSIKA

OÑATI Musika Bandaren Gabon kantuen kontzertua
Plazan, 19:00etan.

BESTELAKOAK

LEINTZ GATZAGA Olentzero eguneko zozketa
Olentzero egunean, Gurelen inkestari zuzen erantzun diotenen artean zozketa egingo dute, eta sorpresatxo bat emango diote irabazleari. 19:00etan.

DOMEKA
26

ANTZERKIA

ARAMAIO Doke taldearen 'Iragana iragan' antzezlana
Kultura etxean izango da antzezlana, 20:00etan.

BERGARA 'Azken portua' txotxongilo emanaldia
Zabalotegin, 18:00etan.

ZINEMA

BERGARA 'Asesinos natos' filma
Gaztetxean, 18:00etan.

OÑATI 'Gran Torino' filma
Topalekuan, 17:00etan.

ARAMAIO Umeendako film bat
Kultura etxean, 17:00etan.

KIROLA

ANTZUOLA Barkeroren omenezkoa
Futbol beteranoen eskutik. Eztalan, 11:30ean.

MUSIKA

ESKORIATZA Ganbara abesbatzaren Gabonetako kontzertua
Unibertsitatean, 19:00etan.

JAIAK

ARRASATE Kulturaniztasun festa, Ekin Emakumeek antolatuta
Herriko Plazan, 17:30ean.

ELGETA 'Herrixa dantzan'
Espaloian, 19:00etan.

ASTELEHENA
27

ANTZERKIA

BERGARA 'Teleipuina' antzezlana, umeei zuzendua
Zabalotegin, 18:00etan.

ARAMAIO Txotxongilo emanaldia
Zirkun antzerki taldeak *Tina* ikuskizuna egingo du, 17:00etan.

MUSIKA

ARETXABALETA The Upper Room
Arkupen, 19:00etan.

AISIALDIA

BERGARA Sexologia tailerra gaztetxoendako
Kultura etxean eman behar da izena, hilaren 20a baino lehen.

ARETXABALETA Izotz pistara irteera gaztetxoek
Izena eman behar da gaztelekuan edo Gazteria Zerbitzuan.

BERGARA Gabonetako hiruko saskibaloi txapelketa
Pilotalekuan, 16:30-21:00.

OÑATI Debagoieneko esku-pilota txapelketak jokatuko dira
San Lorentzoko pilotalekuan, 16:00etatik 20:00etara.

ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol txapelketa
Ibarran, 15:00etan. Baita hilaren 28an eta 29an ere.

ESKORIATZA Gabonetako parkea
Igerilekuan, 11:00-13:00.

MARTITZENA
28

AISIALDIA

BERGARA Txoborro magoa
Umeendako emanaldia egingo du Zabalotegin, 18:00etan.

ARAMAIO Tarta txikien tailerra
5 urtetik beherakoek gurasoekin joan behar dute. Ludotekan, 12:00etan.

BERGARA Automakillaje tailerra gaztetxoendako
Izenematea zabalik dago kultura etxean abenduaren 13tik 20ra arte.

ARAMAIO Zurrunka taldearen ipuin kontaketa, umeendako
Hala bazan edo ez bazan... ipuin emanaldia egingo du. Bi txanda izango dira: 17:00etan, 2-6 urte arteko umeendako; eta 18:00etan, 7 urte eta gorako umeendako.

ARETXABALETA Izotz pistara irteera, ludotekaren eskutik
7-12 urte arteko umeendako da. Izenematea zabalik dago ludotekan eta Gazteria Zerbitzuan.

ARETXABALETA Beldurrezko arratsalde dibertigarria
Gaztelekuan, 18:00etan.

KIROLA

BERGARA Gabonetako hiruko saskibaloi txapelketa (2. eguna)
16:00etatik 20:00etara jokatuko dute, Udal Pilotalekuan.

ANTZUOLA Alfonso Castro oroimenezko partidua
Gazteen futbol txapelketa. Futbol zelaian, 10:30ean.

HITZALDIAK

OÑATI 'Exoplanetas, en busca de nuevos mundos'
Ilatargi taldeak antolatuta. Ane Garces Eneriz IEEC-CSIC erakundeko doktoregaiak egingo du hitzaldia, kultura etxean, 19:00etan.

GANBARA ABESBATZA

OÑATI Ganbara Txikik eta Gaztek ikuskizun berezia egingo dute
Bizitzaren maitasun harian ikuskizuna egingo dute hilaren 29an, Zubikoan, 19:00etan. Andoni Salamero poetak, Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa txalapartariek, Oñatzek eta Joan Mantzisidor margolariak ere parte hartzen dute.

MUSIKA

ESKORIATZA 'Dantzara edo sutara' saioa, gaztetxoendako
Gaztelekuan, 17:00etan.

EGUAZTENA
29

AISIALDIA

BERGARA Zirku teknika tailerra gaztetxoendako
Izenematea zabalik dago kultura etxean abenduaren 20ra arte.

ARAMAIO Amets-harrapagailuak egiteko tailerra, umeendako
Ludotekan, 12:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea, hilaren 30era arte
Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etara 20:00etara. Kioskoaren kantxan.

ARETXABALETA Eskoriatzako parkera irteera
4 urtetik hasi eta 1. mailara arteko umeendako. Izenematea zabalik dago ludotekan eta Gazteria Zerbitzuan.

ARAMAIO Magia ikuskizuna
Madiber magoak ikuskizuna egingo du, 17:00etan.

ESKORIATZA Jinkana erraldoia
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE Umeendako merienda eta jolasak Bedoñan
Bedoñako eskola-etxean, 17:00etan.

BERGARA Ur-jolasak Agorrosinen
10:00etatik 12:30era eta 16:30etik 18:30era.

ZINEMA

BERGARA 'Noche en la tierra' filma
Zabalotegin, 20:30ean.

34. orrialdean, jarraipena.

Iurrindegia perfumeria ZARRAOA

Oparitarako artikuluak • Larruzko artikuluak • Bitxiak • Kosmetika

Kanpantorpea 4, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 12 19





33. orrialdetik dator.

BERGARA Film laburren maratoia
Gaztetxean, 18:00etan.

KIROLA

BERGARA 4 t'erdiko Soraluce Koop. pilota txapelketa
Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

EGUENA
30

AISIALDIA

BERGARA Barreterapia tailerra gaztetxoendako
Izenematea zabalik dago kultura etxean abenduaren 20ra arte.

BERGARA Ur-jolasak Agorrosinen
10:00etatik 12:30era eta 16:30etik 18:30era.

ANTZERKIA

ARETXABALETA Doke taldearen 'Iragana iragan' antzezlana
Arkupen izango da emanaldia, 20:00etan.

BERGARA Anne Monna, Oskola eta Karramarroi: 'Harritxu Maritxu'
5-11 urte arteko umeendako ikuskizuna da. Sarrera, 3 euro. Zabalotegin, 18:00etan.

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Urtezaharreko festa
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Urte amaierako festa eta kontzertua
Gaztelekuan, 17:00etan.

KIROLA

OÑATI Koadrila arteko saskibaloi txapelketa jokatuko da
Egun osoan, Zubikoan.

MUSIKA

ARRASATE Fiachras taldea
"Mahoneroen herritik eta itsaslanetik bueltan, tabernan abesteko kantuak", antolatzaileen esanetan. Gaztetxean, 22:00etan.

ARAMAIO The Upper Room taldea
Gospela euskaraz eta ingelesez. Kultura etxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA
31

AISIALDIA

OÑATI Topalekuko II. mus txapelketa gaztetxoendako
Izena emateko aukera izango da txapelketa hasi arte, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Bizarzurik kalejira egingo du herrian zehar
Herriko ikastetxeetako guraso elkarte eta Leizarra musika eskolarekin, Bizarzurik kalejira egingo du, Araba ibilbidetik Herriko Plazaraino, 18:30ean.

MUSIKA

OÑATI Musika Bandaren Gabon zaharreko kalejira
19:00etan irtengo dira.

ARRASATE Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldiak
Gabon zaharreko kontzertua eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 13:00etan. Eta 11:30ean, kalejira egingo dute.

KIROLA

OÑATI San Silbestre herri lasterketa egingo dute
2010 ixa 2011 San Silbestre izeneko lasterketa jokatuko da. 17:00etan, proba nagusia jokatuko da, Foruen plazan. Aurretik, 16:30ean, gaztetxoen lasterketa jokatuko da.

ESKORIATZA Silbestradie
11:00etan, haurren lasterketarako izenematea zabalduko da; 12:00etan, 14 urtetik beherakoendako lasterketa hasiko da, Herriko Plazan; 12:30ean, txistorra-jana egongo da; 16:30ean, helduen lasterketarako izenematea hasiko da; eta 17:00etan, Herriko Plazan hasiko da lasterketa; 17:30ean, luncha egongo da parte -hartzaile guztiondako.

OÑATI Debagoieneko esku-pilota txapelketen finalak
Zubikoa kiroldegian jokatuko dituzte partiduak, 10:00etan.

JOSHUA NELSON SINGERS

ARRASATE Joshua Nelson abeslariak gospel judu emanaldia egingo du Amaia antzokian hilaren 23an
Joshua Nelson beltza eta judua da, eta Kosher Gospel delako estiloa lantzen du; hebrear eta soul musikak uztartzen ditu. Kontzertua egingo du hilaren 23an, 20:00etan. Sarrerak salgai daude *www.kutxa.net* webgunean.

ERAKUSKETAK

BERGARA Herriko taila eta zeramika egileen erakusketa
Abenduaren 31tik urtarrilaren 9ra arte bisita daiteke Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Bisita ordutegia honakoa izango da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00 -20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta, azkenik, domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00.

ZAPATUA
1

AISIALDIA

ARAMAIO Tarta txikien tailerra
Umeek tarta txikiak zelan egin ikasteko aukera izango dute. 5 urtetik beherakoek gurasoekin joan behar dute. Ludotekan izango da tailerra, 12:00etan.



OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Presoen aldeko brindisa egingo dute
Herriko Plazan, 01:00etan.

ANTZUOLA Arrolara irteera
Urteberriari ongietorria Arrola mendian. 08:00etan irtengo dira.

DOMEKA

2

ANTZERKIA

ARETXABALETA Umeendako ikuskizuna: 'Cyrano'
Gorakada taldeak egingo du. Arkupen, 18:30ean.

BERGARA 'Batuta' txotxongilo saioa, 4 urtetik gorakoendako
Taun-Taun taldeak egingo du, Zabalotegin, 18:00etan. Sarrera, 3 euro.

OÑATI Poxpolo eta Konpainia
Poxpolo eta Konpainia pailazoek *Segi jotzen!* delako ikuskizuna egingo dute. Sarrerak salgai daude 3,5 eurotan kultura etxean. Santa Anan, 17:00etan.

ANTZUOLA Erakusketa
Urteko hainbat ekintza argazkitan erakutsiko ditu Udalak. Olaranen izango da erakusketa, 18:30ean.

ASTELEHENA

3

KIROLA

ARETXABALETA Bixente Etxeandia txapelketako finalak
Debagoieneko futbol eskolen artean jokatutako txapelketa da (2000, 2001 eta 2002. urteetan jaiotako neska-mutilak). Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.

AISIALDIA

BERGARA Gabonetako jolasparkea
Udal Pilotalekuan, hilaren 3tik 5era. 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra
Ludotekan, 11:00etan.

OÑATI Umeendako uretako jolasparkea Zubikoan
Hilaren 3an, 4an, 7an eta 8an. 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.

MARTITZENA

4

AISIALDIA

ESKORIATZA Eskulanak
Umeendako tailerra. Ludotekan, 11:00etan.

REAL SOCIEDAD

ARETXABALETA Reala, Athletic, Eibar eta Debagoieneko taldeak emakumezkoen Gabonetako VI. futbol txapelketan
Hogei talde lehiatuko dira bi egunean jokatuko diren partiduetan. Ibarra futbol zelaian izango da; hilaren 30ean, infantil eta kadete mailetakoak; eta 31n, seniorrak: Reala, Athletic, Eibar eta Debagoieneko selekzioa.

BERGARA Euskal dantzen tailerra gaztetxoendako
Udalak antolatzen du. Izenematea zabalik dago kultura etxean abenduaren 20ra arte. Tailerra debalde da.

EGUAZTENA

5

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Erregeen kabalgata
Errege Magoek kabalgata egingo dute, pilotalekutik hasita, 19:00etan.

ARETXABALETA Errege kabalgataren etorrera
Errege Magoak pasatuko dira eta Herriko Plazan egongo den jaiotzan geralditxoa egingo dute. Araba ibilbidetik hasiko dira, 18:30ean.

OÑATI Errege Magoen kabalgata
Foruen plazatik (parrokia ondotik) abiatuko dira Errege Magoak, 18:00etan.

OÑATI 'Oñati ezagutu jolasten' jinkana-jokoa
Turismo Bulegoak antolatutako ekintza da. 7 eta 12 urte arteko umeendako da. 10:00etan hasiko da, eta sari banaketa 16:30ean egingo dute.

KIROLA

OÑATI Ainhoa Lazkanoren omenezko saskibaloi txapelketa
Zubikoa kiroldegian jokatuko dituzte partiduak, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 21:30era.

BERTSOLARITZA

OÑATI Bertso jaialdia
Honako bertsolariek parte hartuko dute: Amets Artzallus, Sustrai Colina, Anjel Mari Peñagarikano, Jexus Mari Irazu, Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiak. Oñatiko Bertso Eskolak jarriko ditu gaiak. Sarrerak txarteldegian bertan salduko dituzte. Zubikoa kiroldegian izango da jaialdia, 22:30ean.

EGUENA

6

MUSIKA

OÑATI Musika Bandaren kalejira eta kontzertua
Kalejira egingo dute, 11:00etan, eta kontzertua Santa Ana antzokian, 12:45ean. *La gran evasión* (Bernstein), *En un mercado persa* (Ketelbeg), *Antonin's new world* (Dvorak), *Sinatra in concert* (Nowak), *Cantemos villancicos* Gonzalez Bastida eta *Marcha Radetzky* (Strauss) joko dituzte.

Gabonetan ere, on egin!

MAIALEN GONZALEZ | BERGARA

Urteko egun guztiak dira aproposak plater eta menu on bat jateko. Hala ere, urteko azken egunak heltzen ari direla, jaki goxoak eta menu dotoreak jateko aukera izaten dugu askotan, jaiegunak direla eta. Nork bere aukera eginda, etxean zein jatetxeetan plater goxoak jan ditzakegu.

Bergarako Lasa jatetxeko Koldo Lasa eta Oñatiko Etxe Aundi jatetxeko Eloi Iartza sukaldariek jatetxeetan prestatutako plater elaboratuetako batzuk etxean egiteko proposamenak egiten dizkizuete jarraian.

Oilagorra saltsan

Garaiko hegaztia da oilagorra, eta, hainbat modutara presta daitekeen arren, sukaldari bergararrak bere proposamena egiten digu.

Hura prestatu eta platerean forma emanda, bero-bero jatera gonbidatzen gaitu. Oilagorra modu askotara presta daiteke. Lasaren errezeta horrek duen berezitasunetako bat da oilagorrak daraman saltsa. Saltsa hori egiteko, hauek dira erabili beharreko osagaiak: kipula, porruak, azenarioa, berakatza, ura eta ardo beltza. Nahi dugun saltsa kopuruaren arabera, erabili beharreko osagai kopuruak gora edo behera egingo du.

Postrerako ere proposamena

Jatordu luzeetan postrea heltzerako bete-bete eginda gaude askotan, baina, normalean, goxo-goxoa den azken plater hori ikusterakoan, betekada bat-batean ahazten dugu. Eloi Iartza sukaldariak postrerako proposamena egiten digu: piku-lehor biskuita intxaur -saltsarekin.

Plateraren prestaketak ordu erdi bat eskatzen duen arren, biskuitak 24 ordu eman beharko ditu hozkailuan. Beraz, aurreko egunean biskuita prestatu eta egunean bertan, intxaur-saltsa prestatzea besterik ez zaizue geldituko.

Gustuen araberakoak izango dira zuen Gabonetako menuak, baina ideia faltan egonez gero, hemen dituzue bi proposamen.

Koldo Lasa, jatetxean. | M.G.

ESANAK

"Postre goxo batek jatordua apaintzen laguntzen digu"

ELOI IARTZA | ETXEAUNDI

"Saltsa berezi batek plateraren zentzua guztiz alda dezake"

KOLDO LASA | LASA

Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa

CALIDAD TURISTICA

leku eta egun ahaztezinak

Etxe Aundi

Jatetxea-Hotela**
Torre Auzo 9.
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

Oilagorra saltsan

Koldo Lasa | Lasa jatetxea

Fitxa

- Denbora: 60 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIAK

- Oilagorra
- Kipula bat
- Porru bat
- Saltsa espainiarra, edalontzi bat
- Errege-sagar erdi
- Ardo zuria, baso erdi
- Kipulin glasatua eta onddo koilarakadatxo bat
- Olioa
- Gatza
- Irin koilarakadatxo bat (Rouxerako)

Prestaketa

1. Oilagorraren barrenak atera ondorengo saltsa egiteko (sabela izan ezik).
2. Alde bietatik olioarekin ondo bridatu eta txigortu.
3. Barazkiak ondo txikitu.
4. Barazkiak eta sagarra (azala kendu gabe) ondo garbitu eta erregosi ondoren, ardo zuriarekin eta saltsa espainiarrarekin busti (ordu erdi alde bakoitzarentzat).
5. Saltsari barrenak gehitu eta irakinaldi bat eman.
6. Olio eta irinarekin rouxa egin eta puregailu fin batekin nahastu.
7. Oilagorrari soka kendu eta erditik moztu.
8. Saltsari kipulin egosiak eta onddoak gehitu.

Piku lehor biskuita intsaur-saltsarekin

Eloi Iartza | Etxeaundi jatetxea

Fitxa

- Denbora: 30 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

INTXAUR-SALTSA OSAGAIAK

- Litro bat esne
- 200 g intxaur, zurituta eta txikituta
- 200 g azukre
- Kanela adartxo bat

BISKUITA (MOLDE BAT)

- Bost gorringo
- Bi zuringo
- 0,75 litro esne-gain
- 75 g piku lehor, txikituta
- 80 g azukre
- Pistatxo batzuk

Prestaketa

INTXAUR-SALTSA

1. Esnea kanela adarrarekin egosi 10 minutuz.
2. Sua jaitsi eta intxaurrak eta azukrea gehitu.
3. Poliki-poliki egosten utzi 45 minutuz.

BISKUITA

1. Zuringoak 40 g azukrerekin ongi altxatu.
2. Gorringoak beste 40 g azukrerekin altxatu.
3. Esne-gaina ere erdi altxatu.
4. Pikuak, esne-gaina eta gorringoak nahastu.
5. Zuringoak gehitu eta behetik gora dena nahastu.
6. Amaitzeko, budin-ontzi luze batera bota eta izozkailuan sartu 24 orduz.
7. Zerbitzatzerakoan, platerean bi zati jarri eta intxaur-saltsa alboan eta gainetik pistatxo zuritu batzuekin apaindu. On egin!

Eloi Iartza, Etxeaundi jatetxean. | M.G.



Zorionak eta Urte berri on!!

itziar optika

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88 OÑATI • *itziaroptika@wanadoo.es*



Urtaza

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia

Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89

Amets Bengoa Branka Ederra Iamai Itzala
Lora Monte Okorotegi Rumba Txoko

Jaiegunetan gozoak ezin dira falta

Gozotegiak Gabonetarako gozo bereziak prestatzen hasiak dira dagoeneko; zapore eta mota ugari, nork bere gustura jateko.

MAIALEN GONZALEZ | BERGARA

Ez da zaila gozotegietan gozoa den edozer aurkitzea. Orain, gainera, Gabonetarako bereziki prestatzen direnak ere baditugu, menu dotore eta mardularen ondoren tripan lekurik baldin bada jaten jarraitzeko.

Mazapanezko krokodiloa

Koldo Lasa sukaldariak Gabonetarako gozo-sorta du ikusgai eta salgai jatetxean bertan. Hainbat gozoren artean bada berezia eta handia den bat: mazapanezko krokodiloa. Norbait gosez gelditzen baldin bada, hortxe du tripa betetzeko gozo aparta!

Bailarako gozotegi askotan Gabonetako pastel bereziak prestatu dituzte dagoeneko, herritarrek euren gustuen arabera aukera dezaten.

Turroiak eta mazapanak

Urtero legez, klasikoak ez dira falta aurten ere. Arrasateko Muruamendiaraz gozotegian aurreko astean hasi ziren Gabonetako gozoak prestatzen eta jada herritarren eskura dituzte.

Mazapanak, gorringozko turroia, mazapanezko turroia, gurinezko turroia, gorringozko bizkotxoa, mokazko bizkotxoa, turroi txikiak, turroi biguna, Cadizko turroia, trufak eta polboroiak.

Lasa ere gozogile lanetan

12-13 turroi-mota prestatu ditu bergararrak, hainbat zaporedunak: gorringoa, etxeko irasagarra, intxaur esne-gaina, pralina, pistatxoa, naranja trufak eta intxaurrak. Inor jan gabe geldi ez dadin.

Nerea Tronpeta, Muruamendiaraz gozotegian. | M.G.

Arrasateko Galburu gozotegia. | M.G.

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
Tel: 943 79 01 82
Faxa: 943 10 69 66

Carrascal aroztegia
scarrasc_1@infonegocio.com

Gabon zoriontsuak pasa!

· Sukaldeko altzariak
· Bainurako altzariak
· Horma armairuak
· Bestelako armairuak



Gabonetarako dotore-dotore

Egun batzuk falta diren arren, asko eta asko hasi dira baserritar jantziak armairutik ateratzen; dena prest egon dadila Gabonetarako eta Santamasetarako

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Askok eta askok baserritar jantziak armairutik aterako dituzte Gabonetan eta hilaren 22an, Santamasetan. Urtez urte baserritar janzteko ohiturak gorabeherak izaten dituen arren, ohikoa da herritarrak jantziekin kalean ikustea.

Umeak dira janzteko ilusio handien izaten dutenak, baina helduen artean bada ohitura ere. Santamasetako adibidea hartzearren, herri bazkarian oso gutxi dira baserritar jantziak jantzita ez dituztenak. Bestalde, Gabonetako kantu kalejiretan ere herritarrak baserritar janztera animatzen dituzte antolatzaileek.

Estilo aldaketa nabarmena

Urtetan baserritar jantzien estiloa nabarmen aldatu da. Gehienbat, emakumeena. Motibo sinpleak erabiltzetik, askotariko kolore eta formak dituzten jantziak geroz eta ugariagoak dira.

Bordatuak ere garrantzitsuak dira emakumeen jantzietan. Amantalean, azpiko gonean eta pololoetan edota zapietan ohikoak dira bordatuak, eta estilo eta liraintasun berezia ematen diote.

Gizonezkoen jantziek ez dute aldaketa nabarmenik izan, baina geroz eta gehiago dira jantzi berezia soinean eraman nahi dutenak. Izan ere, jai bereziak dira santamasak herritarrentzat eta soinean jantzi berezi bat eramateak ere badu bere xarma.

ESANAK

"Soineko panpoxoek motibo sinpleak ordezkatu dituzte"

ENEKO ARANA | ARROSTAITZ

"Baserritarrez jantzita are politagoak egiten ditugu Santamasak"

NEKANE GARDOKI | ARROSTAITZ

Itxurak zaintzea ere eskertzekoa izaten da jaiak heltzerakoan. Izan ere, baserritar jantziak hainbat atal ditu eta askotan, denak behar bezala eramatea ez da samurra izaten: eguraldi txarraren ondorioz abarkak janztea ez da batere erosoa edota buruko zapia egun osoan eramateak nekatu ere egiten gaitu.

Txikitxu-Arrostaitzeko sei kide prest agertu dira euren jantziak erakusteko. Talde guztiarekin batera, Santamas egunean dantzaldia eskainiko dute. Goizean txerri-dantza eta arratsaldean, berriz, txerri-dantza eta larrain -dantza. Horiek guztiak, Arrasateko Herriko Plazan. Herri bazkarian, gainera, dantzaldia baino lehen ere dantza saioa eskaintzen dute urtero.

Eneko Arana dugu gizonezko bakarra eta hark Debako jostun batek egindako jantzia darama. Bestalde, sei neska ditugu: Leire Murillo, Alaitz Martinez, Oihana Gonzalez, Nekane Gardoki, Ainhoa Nafarrate eta Irati Gallastegi. Jantzi bakoitza bere istorioarekin.

Jantzi bereziak dira, data berezi batzuetarako.

Eneko Arana eta Irati Gallastegi arrasatearrak. | M.G.

KOLORE BELTZA ETA URDINA Duela bi urte erosi zuen Eneko Aranak soinean daraman baserritar jantzia. Debako jostun batek egina, XIX. mendeko argazki batetik ateratako diseinua da. Irati Gallastegik ere kolore urdina eta beltza aukeratu ditu baserritar janzteko.

oinesku
fisioterapia . podologia
Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate

Eider Zabala Casteig (Kolg. Zenb.: 520)
Fisioterapia
Osteopatia
R.P.G. Berreziketa postural orokorra

Idurre Osa Salegi (Kolg. Zenb.: 239)
Podologoa

Ondo pasau Gabonak!

ALAITASUNA SOINEAN Irunen erositako oihalak dira Nekane Gardokirenak. Gona Orion egin zioten eta alkandora, berriz, Zarauzko jostun baten obra izan zen. Azkenik, bordatua, Aramaion egina. Kolore morea amantalean eta lepoko zapian, gona marraz josia eta buruko zapian, berriz, loreak nagusi. Morearekin batera, kolore berdeek alaitzen dute jantzia.

Nekane Gardoki. | M.G.

Oihana Gonzalez. | M.G.

KOLOREAK ETA LOREAK Oihana Gonzalez arrasatearraren jantzia ere Debako jostunak egina da. Kolore urdina nabarmen, berdea ere aukeratu du baserritar jantzirako eta loreak ez dira falta, gonan, amantalean eta lepoko zapian.

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69

Leire Murillo, Alaitz Martinez eta Oihana Gonzalez. | M.G.

Buruko zapia ahaztu gabe. | M.G.

ZAPI-MOTA UGARI Kolore bakarrekoak, loredunak, ilunak, argiak... zapi-mota ugari ikus daitezke. Soineko biziak zapi arrunt bat lagun izan dezakeen bitartean, badira loreak eta kolore biziak dituzten zapiak ere. Nork bere gustuen arabera, buruan zapia eramateak baserritarrez jantzita are dotoreago eta prestuago egoten laguntzen du askotan.

DANTZARAKO ETA PARRANDARAKO PREST Arrostaitz dantza-taldeko dantzariak dotore baino dotoreago ikusiko ditugu Santamas egunean ere. Goiz eta arratsalde dantzan arituko diren arren, izango dute parrandarako aukera ere.

Doinua: Habanera

Bi mila eta hamaikan
pentsatzen ari gara gu
urte ona izango da
egon zaitezte seguru.
Aurretik gabonak datoz
(e)ta ospatuko ditugu
Olentzeron oparia
lortzea dut nik helburu.
Opari hori aukeratzen
nik horrenbeste apuru
eska(t)uko dizkiot prakak
edo igual bi liburu
oporrak pe(ere) badauzkagu
guk hiru aste inguru
URTE BERRI ON guztioi
ongi pasatuko dugu.

Egilea: Peru Abarrategi
Taldea: DBH 2A

arrasate Herri Eskola
Arrasate Institutua
HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA (H.H.I.) EDUCACIÓN DE PERSONAS ADULTAS (E.P.A.)

Baserritar jantziekin dotore-dotore. | M.G.

Ainhoa Nafarrate. | M.G.

KOLORE APALAK ETA BIZIAK Hainbat elementu tartekatzen ditu Ainhoa Nafarrate arrasatearraren baserritar-jantziak. Buruko zapian loreak nagusi, amantal moratua alkandora grisarekin konbinatzen du eta gonak ere kolore ugari nahasten ditu.

Koloreak bizi-bizi!

Arrasateko Zeziaga eta Bergarako Arantza dendetan izan gara azken joeren berri izateko.

- Kolore biziak geroz eta ugariagoak dira baserritar-jantzietan eta dendetan koloredun amantalak, alkandorak edota zapiak ez dira falta.
- Artilezko xalak ere kolore askotakoak daude. Gonek eta alkandorek duten kolore ugaritasunari probetxua ateraz, urtetik urtera gaineko xala konbinatzeko joera ere badago.
- Tradiziozko tantoak edo loreak oraindik ere ageri dira hainbat gonatan, baina beste elementurekin batera, beti ere.
- Bai nesken eta bai mutilen txalekoek ere kolore biziak dakartzate. Bordatuz josiak bai kolore apalak zein kolore biziak tartekatuz.
- Tradizioa baztertu gabe, oraindik ere artilezko txalekoek eta jakek badute beren lekua dendetan.
- Grisa, beltza edota txuria nahasten dituzten marradun gonak ere badira. Hala ere, ondoan dituzten kolore bizidun gonek argitasuna eta bizitasuna ematen diete baserritar-jantziei. Nork bere gustura aukera dezala!



Bordatuak. | M.G.

Tradizioak mantenduz. | M.G.

Kolore biziak. | M.G.

Txaleko-mota ugari. | M.G.

IGARZA

Gabon zoriontsuak igaro!

Domingo Irala, 5
BERGARA
Tel.: 943 76 24 88

Olentzero maitxia,
aurten be txintxua izan naizeneg
hurrengo oparixak eskatzen dotsudaz:
- Bularretakoak eta kuleruak
- Pijamia eta batia
- Bufandia eta guantiak
- Barruko kamisetia
- Galtzak
- Kaltzetinak
- Lana eta osasuna danontzat
Zorionak eta urte barri on!
Gorantzixak Astotxo eta Mari Domingiri

Guztiz Gedeer

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Eguberritarako OPARI GOXOAK...

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK:
• Gorputz osoko peelinga eta hidratazioa
• Algekin egindako bildukinak gorputz osoan
• Masajea gorputz osoan
• Bizkarrarendako tratamendua lur beroaren bitartez
• Gorputzaren eta aurpegiaren hidratazioa
• Sagar terapia: Sagarrarekin egindako bildukinak
• Lasaitasuna eta oreka aurkitzeko masajea harri bolkanikoekin

AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK:
• A eta E bitaminaren bitartez
• Azido hialuronikoa
• Ama zelulaen bitartez

ETA OPARI IZAN DAITEZKE...
• Aurpegirako mesoterapia
• Zimur txikiak eta handiak kentzea
• Laserra gorputz osoan
• Eskuaren irakurketa

Kale Barria 26 behea. 20.560 OÑATI (Orbea etxea, parke aldetik) • Tel.: 943 78 01 46 • www.goiena.net/blogak/guztizeder

Opari egokia: hainbat gomendio

Jostailu-dendetan dagoen aniztasuna dela-eta, Olentzerok opari aproposa aukeratzeko lanak izango ditu; beharra errazteko, hona hemen aholku batzuk

MAIALEN GONZALEZ | BERGARA

Abenduaren 24a gertu dugu eta Olentzero txintxoak izan diren umeen opariak prestatzen egongo da honezkero. Jostailu dendetan milaka opari izango ditu Olentzerok aukeran, baina zentzuz eta modu egokian hautatu beharko du opari bakoitza.

Bailaran haurrekin lanean ari diren hainbat elkartek euren aholkuak bota dituzte opari egokia aukeratzea errazagoa izan dadin.

Haur bakoitzak bere gustuak izango ditu eta ez daude opari *onak* edo *txarrak* direnak. Bai, ordea, egokiagoak edo desegokiagoak direnak. Hori dela eta, aukeraketa ona egitea garrantzitsua da.

Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak hainbat gomendio plazaratu ditu. Funtzionaltasunari dagokionez, jostailua dibertigarria eta haurraren interesa iratzarri eta mantentzeko gai izatea garrantzitsua ikusten dute, oparia haur bakoitzaren gustuen arabera aukeratua izanda. Jostailuak fantasia, imajinazioa eta sormena eragin behar ditu. Izan ere, haurra fantasiaren garaian baldin badago jostailua ere bere mundu pertsonal horretan murgiltzea nahiko du. Ondorioz, haurraren hezkuntza mailara egokitutako oparia izan beharko du.

Haurrek badakite arauak daudela eta lehenbailehen horiek errespetatzen ikastea funtsezkoa dela diote Txatxilipurdin. Horrela, jostailuak ere erabilera arauak izatea egoki ikusten dute. Haurraren adinaren arabera, ertzekin kontu handiz ibili beharko da, baita jostailuaren beraren tamainarekin. Toxikoa edota arriskutsua den edozer ebitatu, nahiz eta jostailua oso erakargarria eta telebistan punta-puntakoa dela behin eta berriz errepikatu.

Ume bat jostailuei begira. | GOIENA

Haurra bakarrik jolas daiteke, baina talde-jolasa sustatzea ere egokitzat jotzen dute Txatxilipurdin, haurrak alde soziala ere gara dezan.

Sexuaren araberako ezberdintasunik egiten ez duen oparia erostea gomendatzen dute, eta, denboran iraun dezan, konponketa erraza duen oparia izan dadila, haurra berehala aspertu eta beste bat eskatzen has ez dadin.

Webgune interesgarriak

Oñatiko Txaloka ludotekak webgune sorta hau proposatzen du, jostailu egokia aukeratzeko lagungarriak izan daitezkeenak. Horien artean, honako hauek: *argia.com, aisia.net, elhuyar-com, ikastola.net, jugueteseducativosalday.com, katxiporreta.com, kometak.com, ttarttalo.com, urtxintxaeskola.org, zernola-net, erabili.com, portuigualdad.info, txiki.net, gabonak.com, katalogoa.org*.

ESANAK

"Haurrendako jostailuetan sexu bereizketa eta indarkeria ekiditen saiatu behar dugu"

ARANTZA OSORO | TXATXILIPURDI

"Sarean webgune interesgarriak daude opariak aukeratzen laguntzeko"

LUKENE ASTIGARRAGA | TXALOKA

BEREYA elektrizitatea
K21 KALITATEA Empresa Registrada Nº 3/02/003 Nivel 3

• LURREKO TELEBISTA DIGITALA. LTD
• HD SISTEMA
• ALARMAK. TB. SATELITEAK
• ANTENA KOLEKTIBOAK
• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
• TB ZERBITZU TEKNIKOA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• SOINU INSTALAZIOAK
• KONPONKETAK OROKORREAN
• ATEZAIN AUTOMATIKOAK
• TDT ANTENAK (Lurreko telebista digitala)

Ondo pasa Santamasak!

Etxagibel Notarioa 1 - 2. Pab - ARRASATE Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa.: 943 77 15 34

Aukeratu bi

Angela edertasun-tratamendu. Eta eraman

DOAN

Angela Experience errritual berria.

AURPEGIA

Zure aurpegiak zutaz hitz egiten duelako, opari iezaiozu zure buruari gaztetasun errritual paregabea.

GORPUTZA

Bizi itzazu sentsazio berriak, ahaztu errutina eta utzi gure errritual exotikoek eraman zaitzaten.

***ANGELA EXPERIENCE ERRITUALA**
Zahartzearen kontrako errituala

***NFT ERRITUALA**
Tratamendu garbitzaile eta oxigenatzailea.

***COOCON ERRITUALA**
Argitasun tratamendua

***MAGNETIK ERRITUALA**
Tratamendu holistikoa diamante hautsarekin.

***RITUAL HIDRAPLUS**
Tratamendu hidratatzailea

***CITRICO ERRITUALA**
Bitamina tratamendua

GABON HAUETAN IZAN ORIGINALA

Oparitu edertasuna, oparitu ongizatea.

www.angelaestetika.net

Ferrerias, 35 - 20.500 Arrasate (Gipuzkoa) **Tel.: 943 798 823**

angela

Herriak alaitzeko apaingarriak prest

Gabonetako apaingarriek urte amaierari alaitasuna eta bizitasuna ematen laguntzen dute; bailarako herrietan ere nabari da Gabonetako espiritua.

M. GONZALEZ | BERGARA

Hotzak iragartzen digu uda aspaldi atzean utzi genuela. Udazkenean sartuta jada, eguraldi kaxkarra eta argi ordu eskasak dira protagonistak gurean.

Bada, baina, tristura hori alaitzeko balio dezakeen zerbait. Gabonak heltzen ari direla eta, poliki-poliki herria apainduz doa eta hainbat txokotan argiak eta Gabon zuhaitzak ikusteak ilusio berezia pizten die askori. Bailarako herriak apaingarriz josten hasi dira dagoeneko eta hainbat txokotan Gabonetako espiritua antzeman dezakegu.

Apaingarriak edonon

Kaleek, eskolek eta erakusleihoek itxura berezia dute asteotan.

Arizmendi ikastolako umezaintza gunean, esaterako, atzo jaso zuten Olentzeroren bisita eta egun berezirako jaiotza eta Gabonetako zuhaitz eta apaingarriak ez ziren falta izan. Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean ere, ikasgeletan jaiotzak eta apaingarriak ipini dituzte.

Aretxabaletako kaleak ere argiz josita daude, eta, bailarako beste herri batzuetan moduan, erakusleiho lehiaketa martxan dute. Abenduaren 31ra arte egongo dira denda parte-hartzaileen erakusleihoak apainduta eta lehen hiru sailkatuek jasoko dute saria: irabazleak 250 euro eta plaka bat; bigarren sailkatuak 150 euro; eta hirugarrenak 100 euroko saria.

Oñatiko Olakua auzoko jaiotza ere bihar jarriko dute, auzoko ahateen putzuan. Iazko arazoak ez errepikatzea espero dute. Erregе ostera arte izango dute jaiotza ipinita.

Gatzagara ere heldu dira Gabonetako apaingarriak. Gurel guraso elkarteko kideen eskutik, aurten estreinakoz, euskal mitologiako pertsonaiak jarri dituzte plaza nagusian. Besteak beste, Tartalo, Basajaun, laminak, Olentzero eta Mari Domingi. Eguberriei begira, gainera, haurrek gutuna idatzi diote Olentzerori, hurrengo urteei begira herrirako nahi dituzten gauzak eskatuta.

Arrasateko Belenista Elkarteak aurten ez du Garibai kaleko jaiotza jarriko. Horren ordez, Arrasateko elizetan zehar jaiotza ibilbide bat egingo dute, nahi duenak ikus dezan. Arabako Belenista Elkarteak lagunduta, San Juan elizan, Uribarrin, San Frantziskon, Mojetan eta San Andresen jarriko dituzte.

Umezaintzako jaiotza. | M.G.

Aretxabaletako kaleak. | GOIENA

Aretxabaletako erakusleihoak. | GOIENA

Olakuako jaiotza Oñatin. | GOIENA

Gatzagako apaingarriak. | JOSETXO ARANTZABAL

Arantza Alonso, San Juan parrokian. | M.G.

Jaiotza ibilbidea Arrasaten

Aurten ez da Gabonetako jaiotzarik jarriko Garibain. Arrasateko Belenista Elkarteak, Arabako Belenista Elkartearen laguntzarekin, herriko hainbat elizatan zehar jaiotza ibilbidea egingo du, nahi duenak ikus eta goza dezan.

"Datozen urteetan diru gehiago eskuratuz gero Garibaiko jaiotza berriro ere jartzeko asmotan gara, baina jaiotza elizetan jarrita, apurtzeko edo lapurtzeko arriskurik ez da izango", dio Arantza Alonsok, Arrasateko Elkarte Belenistako kideak.

Santamas eguna baino lehen jaiotzak prest egotea espero dute Arrasateko jaiotzazaleek.

Apaingarriak edonon

Oñatiko Udalak, iaz bezala, kale -argirik ez du ipini, baina, Oñatin urteetako ohitura denari eutsita, Foruen plazan pinua ipini du. Joan den astean jaso zuten langileek, eta bonbillak dagoeneko ipinita dauzka; orain, isiotzea bakarrik falta da. Aurreko urteetan ez bezala, oraingoan Oñatin ez dira kaleko Gabonetako argiak ipiniko. Horrela, Oñatiko Udalak ere zuhur jokatu gura du, gastuari eusteko. Denetara, 7.000 euroko inbertsioa izango da.

Bergarako Udalak egin du aurten Gabonetako apainketan inbertsio handiena, Debagoieneko udalen artean: 12.361,208 euroko aurrekontua du. Horrekin, udaletxearen aurrealdea, herriguneko kale nagusiak, Bolu auzoa, San Antonioko Jaiotza, azokaren eraikina, frontoia eta Domingo Irala parkea apaindu ditu led sistemako bonbilladun argi-arkuekin.

Gainerako udalek iaz bezala egingo dute; gehienek detaileren bat ipiniko dute, Gabonetako ukitua emateko herriari.

Gizenagoa izatea? Ezinezkoa!

Txerria 350 bat kilorekin dator azurten Arabako Añua herrixkatik, pisutsu eta osasuntsu; Santamas Komisiñuek Herriko Plazan aurkeztuko du abenduaren 21ean (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Ez dakit zenbatekoa izango den pisu ofiziala, baina 350 kiloetatik gertu egongo da; bai, horixe!". Maria Estibaliz Ladron de Gebara abeltzainaren hitzak dira, 2010eko santamasetako txerriaren gainean. Añuako (Araba) bere baserrian hazi du txerria: "Izugarri ona dago!", dio umoretsu. Kantuarekin bat eginez, beraz, izugarri *gizendu jaku txarrixa* aurten. Emea da eta lau urte ditu, eta dieta "izugarri ona" daramala ziurtatu digu jabeak. Elikagai naturalak bakarrik jaten ditu: zerealak –garagarra eta oloa bereziki– eta ortutik soberan geratzen diren barazkiak, hain justu.

Lehen aldia izango da txerria Ladron de Gebararen baserritik ekarriko dutena Arrasateko santamasetara. Estreinaldi ederra denik ezin ukatu, 350 kilo izatea ez dago-eta batere txarto.

'Carlota' izatetik 'Motxo' izatera

Ladron de Gebarak *Carlota* jarri dio izena, baina Santamas Komisiñuek, ohitura duen moduan, izen propioa jarri dio: aurten *Motxo* bataiatu dute. Hodei Guridi Komisiñoko kideak jakinarazi du "sonoritate ona" duelako aukeratu dutela izena. Beraz, ez dauka zerikusirik Bermeoko arrainontziarekin. Gainera, aurten ere *Krixis* izena jartzea "oso errepikakorra" litzateke, Guridiren ustez –*Krixis* eta *Krixis II.a* izena eraman du azken bi urteetan–. Aurkezpena hilaren 21ean izango da, Herriko Plazan (19:00). Txerri zozketarako txartelak, berriz, feria egunean salduko dituzte.

Aurten ere, Santamasetako protagonista izango da txerria. | GOIENA

DATUA

350

KILO INGURU

Itzel dator txerria: haren egungo jabeak 350 bat kilo izango dituela dio.

Txerria aurkitzeko prozesua

Santamas Komisiñuek azken urteotan Jose Luis Gurendez abeltzain arabarrari egokitu dio txerria aukeratzeko ardura. Gurendez animalien saleroskетan aritu da hainbat urtean –harreman estua du abeltzainekin–, baina dagoeneko ez dabil lan horretan. Hala, aurtengoa txerria aukeratuko duen azken urtea izan daitekeela esan digu: "Nagusia naiz dagoeneko lan hauetan ibiltzeko, gazteak has daitezela behingoz halako lanetan!", adierazi du tonu umoretsu bezain ironikoan.

AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO
TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK

LASERRA
Foto-gaztetzea • Foto-sendotzea • Depilazioa

Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Amagarako kideok
Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!



Arruabarrena doktorea
Elkargokide zenbakia. 6073

TERAPIA MEDIKUAK
Betetzeak hazido hialuronikoarekin • Botoxa

Gorputz mesoterapia

Dieta pertsonalizatua

Gabonetan:
etxeko produktuetan
%15eko deskontua.
Aprobetxatu eta
OPARITU
EDERTASUNA ETA
ONGIZATEA

EROSKI zurekin

Abenduaren 2tik 2011ko urtarrilaren 5era arte

Oparitu Ametsak

EASYNOTE packard bell
TJ66-AU 460SP

- Barruko kolorea zuria eta kanpokoa beltza
- Windows 7 Home
- Premiun 64 bit
- Intel T4500 prozesagailua
- Memoria: 4 GB
- Disko gogorra: 320 Gb
- Pantaila: 16,5 “
- Webcama
- Wi-fia

479€

Arrasateko trikitilariak, Santamas kalejiran. | IMANOL SORIANO

Dena prest dago Santamasetarako

Bihar, hilaren 18a, Meatzarien jolasen jaia egingo da KULKI Kultura eta Kirola taldearen eskutik

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

"Herriarekin eta herriarendako" egindako egitaraua dela azpimarratu du Santamas Komisiñuak. Udalarekin eta herriko hainbat kultura elkarterekin batera, herritarrak baserritar jantzita kalera irtetera gonbidatu gura izan dituzte, Santamasek berez duten xarma bereziari lagunduz.

Elkarlanean, iazko egitaraua mantentzea lortu dute.

Motxo izena izango du aurtengo txerriak, igaro urteetako *Krixix* eta *Krixix II* txerriak gogoan dituztela.

Asteburuan ekintzak

Hilaren 22a heltzeko egun batzuk falta diren arren, datozen egunetarako badaude ekintzak antolatuta. KULKI Kultura eta Kirola taldearen eskutik 12 urtera artekoentzat Meatzarien jolasen jaia egingo da.

Hilaren 20an, *Baserria Euskal Herriko paisaian* izenburupeko hitzaldia izango da Kultuarten, 18:30etan hasita. Santamas bezpera helduta, Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren eskutik, *Motxo* txerria aurkeztuko dute plazan hilaren 21ean.

Santamas egunerako egitarau zabala eta oparoa prestatu dute. Tradizioari jarraituz, azoka eta ganadu feria ez dira falta izango. Bestetik, taloa, txistorra, sagardoa, herri kirolak, bertsoak, musika edota euskal dantzak ere izango dira, Santamasak behar bezala ospatu ditzagun.

EGITARAUA

ABENDUAK 21, MARTITZENA

09:00 Etxafuegoak.

18:00 Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa.

18:30 Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa eta konpartsa txikia. Irteera, Herriko Plazatik.

19:00 Herriko Plazan, *Motxo* txerriaren aurkezpena.

19:30 Dragoialde txarangaren kalejira.

22:30 Herriko Plazan, dantzaldia Drindots taldearekin.

23:30 Herriko Plazan, zezen suzkoa.

ABENDUAK 22, EGUAZTENA

09:00 Etxafuegoak.

09:30 Udalaxpe txistulari taldearekin diana.

10:00 Laubide Plazan, ganadu feria.

10:00 Biteri etorbidean, hegazti erakusketa.

10:00 Seber Altube plazan, fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa.

10:30 Jokin Zaitegi Plazan, artisau langintzen jarduera feria.

11:00 Herriko Plazan, Aramaioko Sagardogileen sagardo dastaketa eta taloak.

11:30 Kalejira: Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea eta Arrasateko gaitariak.

11:30 Iturengo joaldunak herriko kaleetan.

11:30 'Incansables' txaranga herriko kaleetan.

12:00 Zaldibarren, Herri Kirolak: Mugerza aita-semeak eta Kañamares osaba-ilobak: aizkora, zutikako aizkora, atxurrarekin mozketa, motozerrarekin irudiak eta trontza; eta Iñaki eta Iñazio Perurena harri-jasotzaileak elkarren kontrako lehian.

12:15 Herriko Plazan, Lore Gazteak dantza taldearen ekitaldia.

12:45 Herriko Plazan, Arrasateko trikitilarien ekitaldia.

13:15 Herriko Plazan, Arrostaitz dantza taldearen ekitaldia.

13:45 Herriko Plazan, Txerri dantza herrikoia.

14:15 Portaloitik irtenda kalejira herrikoia Musakolako kiroldegiraino, Gernika oinezkoen zumarditik.

14:30 Musakolako kiroldegian, herri bazkaria. Txartelak salgai: Monte, Kajoi, Basati eta Bengoa tabernetan. Salneurria: 18 euro. Umeentzat tailerrak egongo dira, Txatxilipurdiren eskutik.

17:00 Uarkape Udal pilotalekuan pilota jaialdia: Goi mailako pilotari afizionatuen binakako bi partidu. Partiduen artean, Mauri Zubillagari omenaldia egingo diote, azken urteotan Arrasateko pilotaren alde egin duen lana eskertzeko.

19:30 Herriko Plazan, Txerri dantza eta Larrain dantza.

20:00 Herriko Plazan, *Motxo* txerriaren zozketa.

20:00 Herriko plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

20:30 Amaia antzokian, Bertso saioa. Bertsolariak: Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi. Gai jartzailea: Asier Ibaibarriaga. AEDk antolatuta.

LIZARRALDE
KIROLAK
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK
ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47
OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

Gabon jai zoriontsuak igaro!
Fraiskozuri 7 • BERGARA
Tel.: 943 71 09 10
Faxa: 943 76 93 77
"la Caixa"

Hainbat belaunaldi batuta, Amaian

Aurtengo bertso jaialdia aldaketekin dator: beteranoak eta gazteak igoko dira agertoki gainera

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Urtero moduan, bertsolari jaialdi ederra antolatu du AED elkarteak santamasen harira. Aurtengo saioan, agertoki gainean urteak daramatzaten bertsolari bikainak eta eskarmentu handia eta gaztetasuna dutenak egongo dira parean; alde batetik, Joxe Agirre, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Imanol Lazkano beteranoak; eta bestetik, Uxue Alberdi eta Miren Amuritza gazteak.

Emanaldia Amaia antzokian izango da, 20:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude; 800 sarrera inguru dituzte gertu. AEDren bulegoan eta Irati eta Monte tabernetan eros daitezke horiek. Azken momentuan erostea nahiago dutenek leihatilan ere topatuko dituzte egunean bertan. Bertsozaleek 10 euro ordaindu beharko dituzte saioa ikusteagatik; AEDko bazkideek, berriz, 8 eurotan lortuko dituzte.

Beste ikuspuntu batetik jorratu

Arrasaten egiten den bertso jaialdi garrantzitsuena da santamasetan AEDk antolatzen duena. Elkarteko Itxaro Artolak gogorarazi du urtero puntako bertsolariak ekartzen dituztela; hain justu, txapelketako finaletan parte hartzen dutenak. Aurten, dena dela, aldatzea erabaki dute. Bordaren esanetan, "urrian Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finalistak egon ziren Arrasaten, Udalbiltzaren alde egindako jaialdian. Bi hilabeteren bueltan berdina eskaintzea aztertu eta aurten beste ikuspuntu batetik jorratzea erabaki dugu. Gizon historikoak eta emakume gazteak batu ditugu; polita izango da bata bestearengana zelan hurbiltzen den ikustea".

Gai-jartzaile moduan Asier Ibaibarriagak jardungo du. Ezaguna da Ibaigarriaga gurean, ermuarra bada ere Arrasaten egiten du-eta lan.



Gregorio Larrañaga. | LANKU

Miren Amuriza. | LANKU



Imanol Lazkano. | LANKU

Uxue Alberdi. | JON BEREZIBAR

Joxe Agirre. | LANKU

ESANAK

"Eguazteneko bertso jaialdian polita izango da bata bestearengana zelan hurbiltzen den ikustea"

ITXARO ARTOLA | AED-KO KIDEA

DATUA

8

EURO

Sarrerak salgai daude AEDn eta Monte eta Irati tabernetan. AEDko bazkideendako 8 eurotan daude eta gainerakoendako, 10 eurotan. Leihatilan ere eros daitezke.

baratzetik dator azokara doie harrixe jaso guran dabil erraldoie buruzapi, txapel kaleko kantoie bertso doinu barri bat kolkuen daroie

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Iñaki Perurena | Harri-jasotzailea

"Aspaldiko harremana dugu Arrasaterekin eta polita da urtero etortzea"

- Santamas egunean saioa egingo du Perurenak
- Abenduaren 22an, 12:00etan, Zaldibarren

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Urteak dira Iñaki Perurena Arrasatera etortzen dena Santamas egunean ikuskizuna ematera. Aurten ere gurean izango da.

Hainbeste urte Arrasatera etortzen... Herria gustuko duzun seinale izango da, bada!

Bai nik herria eta baita herritarrek ni ere gustuko nauten seinale izango dela esango nuke. Urteak dira Arrasateko santamasetara gatozena, eta ilusioarekin egiten dugun zerbait da, gainera.

Ilusioarekin diozu. Zer dela eta?

Honezkero utzita izango genukeelako bestela! Urtetan gauza bera egiten dihardutenek halabeharrez edo gogoz egiten dute. Gure kasuan, gure lana da, baina gustu handiz egiten dugun lan.

Arrasateko santamasek, Santo Tomas eguna baino egun bat geroago ospatzeaz gain, badute ezer berezirik?

Herriz herri saioak eskaintzera joaten garenean, gure lana ondo betetzea izaten da gure helburua. Lan hori giro atseginean egitea lortzen badugu, askoz hobeto. Arrasateko antolatzaileekin aspaldidanik dut harremana eta benetan giro polita eta atsegina bizi izaten dugu santamasetan. Goazen tokira goazela jendearen erantzuna ona izaten da, baina Arrasaterekin dugun harreman bereziak bertako saioa ere berezi bihurtzen du guretzat.

Alderik ikusten da urteek aurrera egin ahala? Hobera ala txarrera goaz?

Giro ona eta polita ikusi izan dut beti. Hasieran alde zaharrean egiten genuen gure emanaldia eta orain, berriz, frontoian. Alde batean zein bestean, jendearen erantzuna beti izan da ona, eta eskertzekoa da.

Lanera bai, baina parrandan gelditzeko aukerarik izan duzu?

"Giro polita eta atsegina bizi izaten dugu Arrasateko santamasetan"

Zorionez, lanik ez zaigu falta eta aurreko eta ondorengo egunetan ere saioak izaten ditugu sarritan. Beraz, parrandara gelditzeko astirik ez dugu!

Tradizioa eta ohiturak gogoratzeko aukera polita izaten dira santamasak. Jai soil gisa hartzen dela uste duzu ala baserritar jantzia janzteak badu esanahi berezirik euskaldunontzat?

Jairik jai ibiltzeko aitzakia behar izaten dugu askotan eta aurkitzea ez da zaila izaten. Ikuspuntu askoz erosoa dugu gaur egun eta ez dakit horrelako jai batek gure arbasoen bizimodua benetan ezagutzeko aukera handirik ematen digun. Hala ere, jai polita da eta urtetan zehar iraun dezala!

Amaitzeko, sarean are ezagunagoa egin zaituen bideoa aipatu beharrean nago...

Askotan idatzi bat egin edota hizketaldi bat bota eta ez da gehiegi zabaltzen eta ezagutzen. Elkarrizketa hau udaberrian egin zidaten eta norbaitek elkarrizketaren bost zati sarean zintzilikatu zituen. Eta hortxe zeuden. Egun baten, aldiz, norbaitek bideoak aurkitu, elkarrizketaren zati bat hartu eta ingelesezko izenburua jarri zion. Harrigarria da norbaitek egiten duen mugimendu batek zer-nolako eragina eta oihartzuna izan dezakeen.

Iñaki Perurena. | GOIENA

"Bost minutuko bideoan gauza asko esaten eta ikusten direla uste dut"

Hizketaldirako apenas astirik ez dugun garai honetan ordenagailu aurrean esertzeko tartetxoa beti aurkitzen dugu egungo jendarte honetan eta azken asteotan bideoak izan dituen sarrera eta bisita kopuruaren gorakada harrigarria izan da. Bost minutuko zati baten gauza asko esaten eta ikusten dira, jarrerak, erantzunak... Jendearen artean eztabaida eta jakin-mina ere piztu duela esango nuke, eta Euskal Herria apur bat gehiago ezagutzeko balio baldin badu, ongietorria izan dadila!

Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.

KULTURA

Ametsa, egia bihurtuta

Olentzero&Co musikalak aurreikuspen guztiak gainditu ditu; Arrasate *konkistatu* ondoren, Kursaaleko emanaldirako sarrerak agortuta.

Txemi Etxeberria eta Oihan Vega ikusleen txaloak eskertzen, aurreko asteburuan Amaia antzokian. | JOSETXO ARANTZABAL

EDU MENDIBIL | BERGARA

Hiru urteko ametsa gauzatu da. *Miserableak*, *Oliver!* eta *Seussen mundua* ikuskizunetan parte hartu ondoren, musikal propioa sortzeko grinak eraginda *Olentzero&Co!* idazteari ekin zion Oihan Vegak (Bergara, 1981). Hiru urteren ondoren, ikusleen babesa lortu du. Arrasateko hiru emanaldietan 2.400 ikusle izan ziren asteburuan, Amaia antzokia hiru aldiz lepo beteta, eta aurretik Eibarko Coliseon beste horrenbeste lortu zuten; 1.000 ikusle bi emanalditan.

Aurrezkiak, musikalerako

Ez da erraza izan musikala aurrera ateratzea. Oihanen hitzetan: "Nire aurrezki guztiak inbertitu ditut musikala aurrera ateratzeko. Ziurrenik dirua galduko dut, baina izandako erantzunari esker, gutxienik ez dut kartzelan amaituko... [Barre]". Partaide guztien inplikazioa eta, bereziki, Eibar, Bergara eta Arrasateko udalen laguntza eskertu nahi du: "Esfortzurik handiena egin behar izan duten erakundeen laguntza izan dugu; Diputazioak eta Jaurlaritzak, aldiz, ez digugu ezer eman. Ea orain zerbait inplikatzen diren... euskarazko lehen musikal originala dela kontuan izanda".

Hurrengo emanaldia Donostiako Kursaalen izango da, abenduaren 30ean. 7.000 euro ordaindu behar izan dute aretoaren alokairuagatik, baina sarrera guztiak agortuta daude dagoeneko: 1.800 ikusle joango dira. Hainbat aretotako zuzendariak izango dira bertan, eta hortik emanaldi gehiago sortzeko itxaropena daukate. Hori dela eta, ez dute orain-dik erlaxatu nahi eta Arrasateko emanaldien ostean ez zuten ezta ospakizun txiki bat ere egin: "Nekatuta geunden eta hurrengo egunean eskolara edo lanera bueltatu behar genuen. Kursaaleko emanaldia daukagu orain buruan, eta gero, ikusi behar...", dio. Musika sortzerakoan Txemi Etxeberriaren (Bergara, 1980) laguntza izan du Vegak. Aspaldiko lagunak dira, eta oraingoan, lanean, gaupasa askotxo egin dituzte elkarrekin. Musika orkestratzeaz arduratu da Etxeberria. Hain zuzen, orkestra zuzendari izateko ikasketak egiten dihardu Maastrichten, eta musikala gertatzeko Bergaran dabil azkenaldian. Urtarrilean itzuliko da Holandara. "Niretako gauza magikoa izan da musikala eginda ikustea eta sorpresa atsegina izan duen harrera. Eguaztenean deitu zidan Oihanek Donostiako sarrerak agortuta zirela esaten". Musikari buruz zera diosku: "Pop-rocka da nagusi, baina salsa, tango eta bals ukituak ere baditu... eta Laboari egindako omenaldia ere badago. Ondo konpondu gara Oihan eta biok, eta elkarrengandik asko ikasi dugu". Musikaleko une bakar bat aukeratzea zaila egiten zaio: "Peruk eta amaordeak kantatzen duten unea, agian, orkestra eta abeslariak zuzentzen ditut-eta orduan...".

Atzean geratu dira kontaezinak diren entsegu orduak; biek ere partaide guztien, aurrean zein atzean daudenen, laguntza txalotzen dute, "dirua ere jarri dutelako, jantziak, makillajea eta bestelako materiala erosten". 230 bat lagunek hartu dute parte: 150 agertokian, 20 musikari eta beste 50 lagun teknikari, tramoiari eta beste lanetan.

'Casting'-a eta sustoa

Peru protagonista izateko 60 bat gaztetxok egin zuten *casting*-a. Oier Arevalillo (9 urte) aukeratu zuten, eta bete-betean asmatu ere: "Ikusleen aurrean hazi egin da Oier. Ikaragarrizko artista daukagu herrian", dio Vegak. Susto handiena entsegu orokorrean izan zuten, bengala batek leher egin zionean Valen Moñuxi. Ondorioz, besoan ebakuntza egin behar izan zioten Tasio ikazkinaren rola duen Moñuxi. "Bagenekien arriskua egon zitekeela suarekin eta arnesekin; horregatik, Valenek eta biok izan dugu horien ardura. Zorionez, ez zen ezer larririk izan eta aurrera egin genuen".

Ametsa bete da. Etxeberriak ondo laburtzen du: "Azken emanaldian familiakoak izan ziren, eta, nolabait, urtetan haiengandik jasotako laguntza eskertu nahi izan nien. Txikitan tronpa erosteko *paga* ematen zidaten; zera pentsatu nuen domekan, hunkituta: ordainetan, hortxe musikala".

DVDa, kalean

Olentzero&Co! musikalaren DVDa salgai dago dagoeneko, 13 eurotan. Goiena Klubeko bazkideek 10 eurotan eskuratu ahal izango dute (argibideak: 943 25 05 05). Goiena telebistan ere ikusi ahal izango da musikala, abenduaren 24an, 20:55ean.

ZIBURU
UMEEN JANTZI DENDA
Iparragirre 4 BERGARA 943 53 21 14
GABONETAKO ESKAINTZAK %30eko deskontuak
AURREKO DENBORALDIAN %60ko deskontuak
catimini LEVI'S IKKS

Danbakako finalaren atariko azken emanaldia gaur Elgetako Espaloian

Dark Code bergararrak, Kubers arrasatearrak eta Asfiksia oñatiarrak gaurko lehian

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Dagoeneko 15 talde igaro dira Espaloia Kafe Antzokitik eta gaur gauean azken hiruren txanda izango da. Urtarrilaren 14ko finalerako sailkatzen ahaleginduko dira Dark Code (Bergara), Kubers (Arrasate) eta Asfiksia (Oñati). Hasiera baten Industria Dolor taldea ere iragarrita zegoen gaurko, baina azkenean arrasatearrak ez dira gaur Elgetan izango. Hiru talde eta hiru estilo ezberdineko taldeak dira Espaloian izango ditugunak: bergararrek death metal melodikoa egiten dute; arrasatearrak pop-rock estilotik hurbil daude eta oñatiarrek heavy -rockari heldu diote euren abestietan.

Zozketa gaurko kontzertuan

Gaurko kontzertuan, bigarren eta hirugarren taldeen emanaldien artean, zozketa egingo dute Espaloiko ikusleen artean. Hain zuzen ere, tatuaje-bonu bat zozketatuko du Arrasateko Ganesha Tattoo dendak. Emanaldirako sarrerak, ohi bezala, 5 eurotan izango dira salgai Espaloiako leihatilan. Gaztekutxarekin 3 euroren truke eskura daitezke.

Astelehenean finalistak

Astelehenean, hilaren 20an, GOIENA paperak emango du aditzera epaimahaiaren azken erabakia. Orduan jakingo dugu zein hiru talde sailkatzen diren urtarrilaren 14ko finalerako.

Bestalde, orain arte Danbakan parte hartu duten taldeen zuzeneko emanaldiak ikusgai dituzue Interneten, ondoko helbidean: *www.youtube.com/danbaka*.

KONTZERTUA

Noiz: Gaur, egubakoitza. 22:30ean.
Non: Elgetako Espaloian.
Sarrera: 5 euro; Gaztekutxa, 3 euro.

DARK CODE

Dark Code | Bergara

Dark Code 2008ko udan sortutako taldea da. Aitor (gitarra eta ahotsa) Mikel (bateria), Elortza (gitarra eta koruak) eta Rodri (baxua). Nagusiki death metal melodikoa egiten dute, baina bestelako ukituak ere sartzen dituzte kantuetan. Talde gaztea da eta ilusioz beterik aurkeztu dira Danbakara aurreneko aldiz. Hasieran gustuko taldeen bertsioak egiten bazituzten ere, kantu propioak dituzte dagoeneko. Azken hilabeteotan gogor egin dute lan entsegu lokalean.

KUBERS

Kubers | Arrasate

Monica Duran abeslari arrasatearrarekin batera Roberto Torres (gitarra), Daniel Fernandez (gitarra), Francisco Serrano (baxua) eta Iker Argote (bateria) dira taldean. Duranek gitarra akustikoa jotzen du hainbat kantutan. Pop-rocka egiten dute eta gustuko taldeen artean Nirvana, Muse eta The Cramberries aipatzen dituzte. Bi urteko ibilbidea daukate eta aurten 15 emanaldi egin dituzte han eta hemen. Gogoz daude Espaloian jotzeko. Lagunak izango dituzte alboan.

ASFIKSIA

Asfiksia | Oñati

Metallica, Megadeth eta bestelako taldeen bertsioak egiten hasi ziren oñatiarrak, orain dela lau bat urte. Ikasketengatik Jon Kortabarria bateria-jotzailea Danimarkan dago eta Andoni Sasigain bergararrak hartu du haren lekua. Eneko Igartua, Unai Lete eta eta Harriet Aiala dira taldeko beste kideak. Aurretik Nade eta Lukrezia taldeetan ibilitakoak dira eta, esan bezala, heavy-rock estiloari eutsi dio Asfiksiak azkenaldian. Emanaldi indartsua iragarri dute gaurko.

Elgetan joko dute, urtarrilaren 14ko finalean. | ATOM RHUMBA

Atom Rhumba, finaleko 'teloneroak'

Atom Rhumba talde ezaguna izango da aurtengo gonbidatua Danbakako finalean, urtarrilaren 14an. Bi urteko isilaldiaren ostean, *Gargantuan Melee* izenburuko diskoa kaleratu zuten urrian eta aurkezpen biran dira Atom Rhumbakoak; esan bezala, Gabonen ostean geldialdia egingo dute Elgetan. Finalaren ataria berotzeaz arduratuko da boskote bilbotar-nafarra (Joseba Irazoki eta Iñigo *Cabezafuego* dira azken fitxaketak).

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA
943 71 17 68

'Kultura bonua' lor daiteke urtarrilaren 5era arte

Bigarrenez jarri du martxan Jaurlaritzak; aurten, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin erabil daiteke bonua

MIRIAN BITERI | BERGARA

Aurten ere *Kultura bonua* eskuratu ahal izango da gurean. Joan den urtean Debagoienean izandako harrera ona ikusita, aurten establezimendu gehiago atxiki zaizkio Jaurlaritzatik martxan jarritako kanpainari. Hain justu ere, bailaran hiru herritan erabili ahalko da bonua: Arrasaten, Elkarren; Bergaran, Zangitu estankoan eta Elkarren; eta Oñatin, Arantzazuko oroigarri-dendan, Ibarrondo liburu-dendan, Altuna estankoan eta Soto Herrera Vilma Haydee (lehengo Hirukar) liburu-dendan.

Bonu horrek balio du liburuak eta musika-euskarriak, museoetarako, zuzeneko ikuskizunetarako edo bestelako ekitaldietarako sarrerak erosteko. Astelehena ezkero salgai daude aurtengo 52.000 bonuak. Aurten erkidego osoan 350 establezimendu sartu dira horretan, joan den urtean baino %22 gehiago.

Iaz bezala, 25 euroren truke erosi ahal izango dira urtarrilaren 5era arte, eta 40 euroko balioa izango dute, aurretik aipatutako kultura produktuak erosteko.

Kutxako kutxazainetan

Interesatuek Kutxako askotariko zerbitzuetako kutxazainetan dituzte bonuak eskura, baita BBKren kutxazainetan eta Vital Kutxak salmenta elektronikorako duen zerbitzuan ere. Bonuak urtarrilaren 5era arte erosi ahal izango badira ere, urtarrilaren 20era arte gastatu ahal izango dira kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan. Horren harira, Jaurlaritzako Kultura Sailetik ohartarazi dute behin epea igaroz gero ez dutela ordaintzeko baliorik izango eta osorik gastatu beharko direla, inolaz ere ez dela dirurik itzuliko.

Bestalde, gazteak erakartzeko asmoz, lehiaketa bat egingo da Interneten. *Eitb.com* eta *Kulturklik*-ekin batera bideo-spot lehiaketa bat antolatu dute, bonua ezagutarazteko eta kulturaren kontsumoa bultzatzeko. 3.000 euroko saria dago bideo onenarendako eta 2.000 eurokoa bigarrenarendako. Horrez gainera, ikusleen saria ere egongo da, *Eitb.com*-en bidezko spot bozkatuenarendako; 1.000 eurokoa izango da hori.

DATUA

7

ESTABLEZIMENDU

Horiexek dira kanpainan sartu direnak gurean. Liburu-dendak, estankoak eta oroigarri-dendak dira, hain zuzen ere.

Iaz 600 bonutik gora

Joan den urtean jarri zuten martxan esandako kanpaina, eta bailaran harrera ona izan zuen. 600 bonutik gora banatu zituzten dendek.

Non Servium taldea izango da, besteak beste, Bergaran. | NON SERVIUM

Non Servium, Adversion eta The Fill Sor I Knout musika taldeek joko dute bihar gauean Jam aretoan

M.B. | BERGARA

Kontzertuak itzuli dira ostera ere Jam aretora. Bihar, zapatua, Non Servium, Adversion eta The Fill Sor I Knout Madrilgo musika taldeak igoko dira oholtza gainera, 21:00etan. Sarrerak 13 eurotan salduko dira leihatilan; aurretik erosi nahi dutenek Bergarako Jam eta Popis tabernan eta Arrasateko Daten lortu ahal izango dituzte, 10 euroren truke.

Non Servium Mostoles herriko taldea da; Espainiako oi! mugimenduan talde esanguratsuenetarikoa. 1990eko hamarkada amaieran hasi zen ezagun egiten, eta orain arte hiru lan kaleratu ditu: *Orgullo obrero*, *NSA La santa familia* eta *El imperio del mal*.

'El juicio final' azken lana

Bestalde, Adversionek azken lana aurkeztuko du biharko kontzertuan, *El juicio final* izenekoa. Punk estiloa jorratzen du Mostolesko taldeak. The Fill Sor I Knout, berriz, Efectos Sekundarios taldeko kideekin osatuta dago eta punk klasikoa jotzen du. Gorputza mugitzeko gaua izango da biharkoa.

SANTAMASAK
ARRASATEN

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA
EGUAZTENA, ABENDUAK 22, 19:45

BABESLEA:
GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

goienakluba“

Abantailaz betetako kluba!

Opari ederrak zure esku!

Gabonetan oparitu txartela

- Gabonetarako opariren bat falta bazaizu, aukera paregabea duzu: oparitu Goiena Klubeko txartela.
- Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.

Zozketa bereziak 2011n

Irabaz itzazu 350 euro

- 2011rako oparien artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.

Home Cinema zuretako

- 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fideltasuna sarituko dugu.
- Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | 2011 urteko bazkidetza: **48 euro**.

www.goienakluba.com

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 205.000 euro.606867197.

Eskoriatza. 47 metro koadroko apartamentua salgai. Logela bat. Sukaldea jantzia. Garajearekin. Hiru urteko eraikuntza. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez.650 95 56 44.

Oñati. 60 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez.699784749.

Oñati. 60 metro koadroko apartamentua salgai erdigunean. Hiru logela, komun bat eta sukalde-egongela. Nahiko berria eta jantzia.651709053.

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, trastelekua-ganbara eta garajea. 647 24 80 02.

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata, handixeagoa, Pedro Ignazio Barrutia kalean. Bestea, txikixeagoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 22 09 38

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Inarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01.21.

Arrasate. Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656 75 00 94

Oñati. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea.650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606 74 42 37.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa genuke. Hilean 500 -550 euro ordaintzeko prest.647 22 35 87.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. 666 68 00 04.

Arrasate. Ikasleendako logela ematen dut errentan, komun partikularrarekin. Unibertsitatetik gertu, Erguin auzoan. Deitu 648 19 10 38 telefonora.

Bergara. Logela ematen da errentan. Emakume batentzat, nahiago. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 650 62 12 94.

Bergara. Gela bat alokatuko nuke. Deitu 652 74 67 15 telefono zenbakira.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakrutz 25-27an. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 46 36 71

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai etorbidean. 679 74 00 61.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

